

Zarautz hizketan

Zarauzko ahozko ondarearen
bilketa eta azterketa:
hizkera eta etnografia

Aintzane Agirrebeña
Belen Maiz
Fernando Muniozguren
Asier Sarasua
Miren Zabaleta



ZARAUZKO UDALAK

Euskara Zerbitzua

Zarauzko ahozko ondarea biltzeko beka.
Euskara Saila, Zarauzko udala.

Egileak: Aintzane Agirrebeña, Belen Maiz, Fernando Muniozguren, Asier Sarasua, Miren Zabaleta

Copyright: Zarauzko udala (edizio honetarako)

Argazkiak: Zarauzko Udal Artxiboa, Asier Sarasua Aranberri

L.G.: SS-603/2007

ISBN: 13:978-84-935743-0-7

Harremanetarako: hizketan@gmail.com

www.hizketan.org

Fernando, hiretako.

Atarikoa

“Izan ginelako gara, garelako izango dira” dio esaera zaharrak. Euskarak gure herrian izan duen aurrerakada ez litzateke ulertuko atzera begiratu gabe eta garai berrietara moldatzeko nola aldatu den ikusi gabe. Hau izan zen Zarautzen euskararen eta ahozko tradizioaren eta kultura ondarearen ikerketa babestera bultzatu gintuen arrazoirik nagusia.

Ziur nago liburu honetan agertzen diren azalpen, adibide eta ondorioak gure etxeetan, ikastetxe eta euskaltegietan aztertuko direla gure herriaren historia, kultura eta hizkuntzaren errealitatea ezin direlako ulertu, ezta estimatu ere, ezagutzen ez badira. Metodologia eta baliabide abangoardistak erabiliz, herri bezala liburu honekin gure historia eta bereziki euskararena ezagutzeko beste hazi bat landatu nahi izan dugu.

Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzutik ekintza eta ekimen ugari jarri ditugu martxan euskararen bilakaera gauzatzeko. Hezkuntza, hedabideak, ostalaritza, merkataritza eta orain enpresa mundua funtsezkoak dira euskarak gure herriko txoko guztietan presentzia izan dezan. Etorkizuneko Zarautzi begira gauden momentu honetan zarauztarrok garbi daukagu nork bere eguneroko harremanetan euskara maitatu, ezagutu eta erabiltzen badugu denon artean hizkuntza bizia izaten jarraituko dugula.

Ez nuke bukatu nahi lan honek argia ikusi dezan lagundu duten guztiei eskerrik eman gabe. Esker mila beraz, azaldu duten arduragatik informatzaile guztiei, epaimahaiko kideei, ikertzaileei, kolaboratzaileei eta, nola ez, Fernando Muniozgureni akuilu lana egiteagatik azkeneko egunera arte. Mila esker guztioi bihotz-bihotzez.

Imanol Lasa

Euskara Zerbitzuko zinegotzia

Aurkibidea

Hitzaurrea	11
1. Sarrera	13
1.1. Metodologia eta urratsak	13
1.1.1.- Galdetegiak	13
1.1.2.- Lekukoen aukeraketa	16
1.1.3.- Egindako elkarrizketak	16
1.1.4.- Zinten laburpena, kodifikazioa eta transkripzioa	20
Transkripzioak eta idaztarauak	21
1.2. Zarautz	24
1.2.1.- Historia	25
1.3. Euskararen egungo egoera Zarautzen	27
1.3.1.- Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera (1981-2001)	28
1.3.2.- Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera (2001)	28
1.3.3.- Hizkuntza-gaitasuna, auzoaren arabera (1996)	29
1.3.4.- Erabileraren inguruko datuak	29
2. Ezaugarri fonetikoak	33
2.1. Bokalismoa	33
2.1.1.- Hiatoak	33
2.1.1.1.- Bokalkalkulak	33
2.1.2.- Diptongoak	34
2.1.2.1.- Beheranzko diptongoak:	34
2.1.2.2.- Goranzko diptongoak	34
2.1.2.3.- Triptongoak	34
2.1.3.- Bokalk geminatuak	34
2.1.4.- Aldaera nagusiak	35
2.1.4.1.- Amaierako <i>e > a</i>	35
2.1.4.2.- /r/ aurrean bokalk irekidura, bereziki <i>e > a</i>	35
2.1.4.3.- <i>e > a</i> izan aditzean (<i>zan, dala, zala, dalako...</i>)	35
2.1.4.4.- <i>o > u</i> NON galdetzailearen eratorrietan	35
2.1.4.5.- Gaztelaniazko <i>-(i)ón</i> amaieradun maileguetan <i>> -(i)oi</i>	35
2.1.4.6.- Gaztelaniazko <i>-(c)ión</i> amaieradun maileguetan <i>> -ziyo</i>	35
2.2. Kontsonantismoa	36
2.2.1.- Herskariak	36
2.2.1.1.- Herskariak galtzea	36
2.2.1.2.- VdV>VrV bilakaera	36
2.2.2.- Sudurkariak	37
2.2.2.1.- /n/ galtzea IZAN aditzean: <i>-n + tz > -tz-</i>	37
2.2.2.2.- <i>-ain > -ai</i> ; <i>-uin > -ui</i>	37
2.2.3.- Albokariak	37
2.2.3.1.- Mendebaleko bereizgarri diren txandakatzerik ez	37
2.2.4.- Dardarkariak	38
2.2.4.1.- Dardarkariak galtzea	38
2.2.4.2.- Zenbakien deklinabidea	38
2.2.5.- Igurzariak: J eta F	38
2.2.5.1.- J	38
2.2.5.2.- F	38
2.2.6.- Frikariak	39

2.2.6.1.- z->tx- afrikatzea	39
2.2.7.- Afrikatuak	40
2.2.8.- Bustidurak	40
2.2.8.1.- Adierazgarriak	40
2.2.8.2.- Asimilaziozkoak	40
2.2.9.- Arau morfonologikoak	41
2.2.9.1.- EZ + aditza:	41
2.2.9.2.- <i>n-, l-, r-</i> ostean afrikatuak	41
2.2.9.3.- Adizkien hasierako <i>d-</i> galtzea	41
2.2.9.4.- <i>Ba- + dV- > baV</i>	42
2.2.9.5.- <i>behar > be(e)r / bia(r)</i>	42
2.2.9.6.- Aditz nagusiaren ohiko aspektuaren <i>-n</i> galtzea	42
3. Izenaren morfologia	43
3.1. Deklinabidea	43
3.1.1. Izenen deklinabide-taulak	43
3.1.1.1.- Izen arrunt bizigabeen deklinabide-taulak	46
3.1.1.2.- Izen arrunt bizidunen deklinabide-taulak	48
3.1.1.3.- Pertsona-izenen deklinabide-taula	48
3.1.1.4.- Leku-izenen deklinabide-taula	48
3.2. Determinatzaileak	49
3.2.1.- Mugatzaileak	49
3.2.1.1.- Erakusleak	49
3.2.2.- Zenbatzaileak	51
3.2.2.1.- <i>Bat</i> eta <i>batzuk</i>	51
3.3. Izenordainak	52
3.3.1.- Pertsona-izenordainak	52
3.3.2.- Izenordain zehaztugabeak	55
3.3.2.1.- Galderazko izenordainak: <i>zein</i> eta <i>zer</i>	55
3.3.2.2.- Galderazko izenordainetatik eratorriak: <i>inor</i> , <i>ezer</i> , <i>edozein</i> , <i>zeozer</i> , <i>zera</i>	57
3.3.3.- Izenordain elkarkariak eta bihurkariak	58
<i>Alkar</i>	58
3.4. Postposizio askeak	59
3.5. Adjektiboak mailakatzeko partikulak eta atzizkiak	59
3.5.1.- Maila-aditzondoak	59
3.5.2.- <i>-en</i> , <i>-a(g)o</i> eta <i>-e(g)i</i> atzizkiak	59
Gehientasuna: <i>-en</i>	59
Gehiagotasuna: <i>-a(g)o</i>	59
Gehiegitasuna: <i>-e(g)i</i>	59
3.5.3.- Atzizki txikigarriak eta handigarriak	59
4. Aditzaren morfologia	61
4.1. Aditza	61
4.1.1.- Hitanoko adizki bereziak	61
4.1.2.- Ahalera galdu egin da	61
4.1.3.- <i>Izandu</i> tankerako aditz gutxi	61
4.1.4.- <i>Joan</i> aditzean adizki bereziak	62
4.1.5.- <i>Jardun</i> aditza	62
4.1.6.- <i>-te</i> pluralgilea	63
4.1.7.- Aditz trinkoen erroan <i>-a-</i> agertzen da	63
4.1.8.- Aditzetan <i>-atu</i> eta <i>-itu</i> formak nagusi	63

4.1.9.- Partizipioa eratzeko moduak	64
4.1.10.- <i>Egin</i> indargarria erabiltzen da	64
4.1.11.- Nor-Nork oso gutxi erabiltzen da	64
4.1.12.- * <i>Edun</i> aditzaren lekuan, <i>Eduki</i>	65
4.1.13.- Ahaleran - <i>tu</i> gordetzen da	65
4.2. Aditzondoak	66
4.2.1.- Denbora-aditzondoak	66
4.2.2.- Leku-aditzondoak	66
4.2.2.1.- Erakusleetatik eratorriak	66
4.2.2.2.- <i>Ber-</i> aurrizkidunak	67
4.2.2.3.- Zehaztugabeak	67
4.2.2.4.- Bestelakoak	67
4.2.3.- Modu-aditzondoak	67
4.2.3.1.- Erakusleetatik eratorritakoak	67
4.2.3.2.- Zehaztugabeak	67
4.2.3.3.- -TO / -KI atzizkiaz osatutakoak	67
4.2.3.4.- -TA atzizkiaz osatutakoak	67
4.2.3.5.- Bestelakoak	67
4.2.4.- Iritzi-aditzondoak	67
4.3. Aditz-aulak	69
4.3.1.- Aditz perifrastikoak	70
Nor	70
Nor-nori	71
Nor-nork	72
Nor-nori-nork	76
4.3.2.- Aditz trinkoak	83
<i>Egon</i>	83
<i>Etorri</i>	85
<i>Joan</i>	88
<i>Ibili</i>	90
<i>Eraman</i>	91
<i>Jakin</i>	92
<i>Ekarri</i>	94
<i>Eduki</i>	96
5. Sintaxia	99
5.1. Perpaus bakuna	99
5.1.1.- Adierazpen-perpausak	99
5.1.2.- Aginte-perpausak	100
5.1.3.- Harridura-perpausak	101
5.1.4.- Galde-perpausak	102
5.2. Perpaus elkartuak	104
5.2.1.- Perpaus juntatuak	104
5.2.1.1.- Emendiozko juntagailuak	104
5.2.1.2.- Juntagailu hautakariak	104
5.2.1.3.- Aurkaritzako juntagailuak	105
5.2.2.- Mendeko perpausak	105
5.2.2.1.- Perpaus osagarriak	105
5.2.2.2.- Perpaus erlatiboak	109
5.2.2.3.- Konparazio-perpausak	110

5.2.2.4.- Ondorio-perpausak	114
5.2.2.5.- Denbora-perpausak	114
5.2.2.6.- Modu-perpausak	118
5.2.2.7.- Helburuzko perpausak	121
5.2.2.8.- Kausa-perpausak	122
5.2.2.9.- Perpaus kontzesiboak	125
5.2.2.10.- Baldintzazko perpausak	126
5.3. Lokailuak	128
5.3.1.- Emendiozko lokailuak	128
5.3.1.1.- <i>Ere</i>	128
5.3.1.2.- <i>Gainera (gaiñea)</i>	130
5.3.1.3.- <i>Eta gero</i>	130
5.3.1.4.- <i>Behintzat</i>	130
5.3.1.5.- <i>Behinik behin (behiñipeiñ/biñipiñ)</i>	131
5.3.1.6.- <i>Gutxienez (gutxiñez)</i>	131
5.3.2.- Hautakariak	131
5.3.2.1.- <i>Bestela</i>	131
5.3.2.2.- <i>Gainontzean (gaiñuntzian, gaiñontzian, gaiñontzen...)</i>	132
5.3.3.- Aurkaritzakoak	132
5.3.3.1.- <i>Berriz</i>	132
5.3.3.2.- <i>Halare, hala(z) ta guztiz (ere)</i>	133
5.3.3.3.- <i>En kanbio</i>	133
5.3.3.4.- <i>Ordea</i>	134
5.3.3.5.- <i>Edozein modutara ere (eozein mouta're)</i>	134
5.3.4.- Ondoriozkoak	134
5.3.4.1.- <i>Bada (ba)</i>	134
5.3.4.2.- <i>Orduan, (ordun)</i>	134
5.3.4.3.- <i>Hartaka</i>	135
5.3.4.4.- <i>Oseake (o sea que) / Asike (así es que)</i>	135
5.3.5.- Kausazkoak	136
5.3.5.1.- <i>Zergatik (zeatikan)</i>	136
5.3.5.2.- <i>Eske</i>	136
5.3.5.3.- <i>Izan ere</i>	136
6. Lexikoa: hiztegia eta aldaerak	137
7. Zarauzko euskararen kokapena	177
7.1. Zarauzko euskararen ezaugarrien zerrenda	177
7.1.1.- Erdialdeko euskalkiaren ezaugarriak	177
7.1.2.- Euskara giputzaren ezaugarriak	177
7.1.3.- Azpieuskalkiaren ezaugarriak	178
Gipuzkoa iparraldeko azpieuskalkia	178
Gipuzkoako erdigune eta sortaldeko azpieuskalkia	178
Gipuzkoa hegoaldeko azpieuskalkia	178
Gipuzkoa sartaldeko azpieuskalkia	179
7.2. Zarauzko euskara, kokapena eta ondorioak	180
8. Zaruaztarrekin hizketan	187
9. Bibliografia	259

Hitzaurrea

2004. urtean Zarauzko Udalak, Euskara Zerbitzuaren eskutik, herriaren ahozko ondarea biltzeko eta aztertzeko beka eman zuen, eta gure proiektuaren proposamena onartzearekin batera hasi zuen lan honek bere ibilbidea, 2004ko udazkenean. Taldekideon asmoa, labur-labur esanda, Zarauzko nagusienekin hitz egin, eta herriko hizkera eta aspaldiko ohiturak batzea izan da, eta horretan aritu gara bi urte luzez.

Proiektuan zehar 50 grabazio inguru egin ditugu, denak bideoan eta euskarri digitalean; gainera, 1987an udalak antolatutako beste beka batean grabatutako 20 grabazio berreskuratu eta digitalizatu ditugu. Horren guztiaren emaitza, Zarautz hizketan proiektua izan da. Liburu eta DVD hau dira proiektuaren laburpena eta lehenengo emaitza, baina, honetaz gain, Interneten ere jarri dugu materialaren zati handi bat, eta datu-base ireki bat ere sortu dugu, hemendik aurrera herrian jaso edo jorratu daitekeen antzeko materiala ere bertan txertatu ahal izateko.

Euskal Herria ahozkotasanak eduki dezakeen garrantziaren eredu garbia da. Izan ere, euskaldunoi ahozko transmisioaren bitartez iritsi zaigu gure aurrekoen ondarearen zati handi-handi bat. Orain gutxira arte izan da horrela, baina, gaur egun, mendez mendeko transmisio hori eten egin da eta ahozko memoria hori galzorian dugu. Gure herriak azken bizpahiru belaunaldietan izan duen aldaketa izugarria izan da, eta neurri batean, bi herri ezberdin ditugula esan dezakegu, bizimoduan, sineskeretan, hizkeran, komunikatzeko moduan... Orain arte izan garena eta gaur egun garena ulertzeko, ezinbesteko dugu gure aurretikoen ondare hori jasotzea; betiko galdu aurretik biltzea.

Bilketa eta ikerketa proiektu honen bitartez, XX. mendeko lehen urteetan jaio ziren hiztunen hitza jaso nahi izan dugu; Zarauzko nagusienekin hitz egin eta euren bizipenak batu ditugu. Alde batetik, alderdi etnografikoa jasotzen saiatu gara, batez ere, gehien aldatu diren sailetan sakonduz: baserri munduko ohi-ituretan, lanbide zaharretan, jaietan, antzinako sinesmenetan, lagunarteko eta familiarteko harremanetan, ume-jolasetan... Horrekin batera, Zarauzko ondare linguistikoa jaso dugu, zarauztarrok gure izaeraren eta nortasunaren bereizgarri dugun euskara. Azken batean, ez ditugu grabazio solteak egin nahi izan, Zarauzko herriaren memoria kolektiboa jaso baizik, eta ondoren, bildutako material hori guztia ahal bezain ondo sailkatu.

Zarautz hizketan da lan honen izenburu nagusia, eta eskerrak eman nahi dizkiegu euren hitza utzi diguten zarauztar guztiei. Izan ere, lanaren protagonistak gurekin hizketan jardun dutenak dira. Euren hitza izan da gure euskarria eta lana egiteko ezinbesteko zitzaigun lehengaia. Dударik gabe, gure eskerrik beroena hain ondo hartu gaituztelako, eta euren kontu, zaletasun, oroitzapen eta baita zoritxarrak ere gurekin banatu dituztelako.

Bestalde, benetan eskertzen dugu Udalak taldekideoi eman digun babesa. Uste dugu horrelako lan bat orain egitea ezinbestekoa zela gure herriko hizkeraren testigantza zuzena jaso ahal izateko, eta Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkitu dugu gure lana betetzeko behar genuen laguntza. Eskerrak, era berean, lekukoen izenak lortzen eta eurekin harremana sortzen lagundu diguzuenoi: Pedro Mari Alberdi, Xabier Alberdi, Ane Arregi, Inazio Lertxundi, Pako Serras eta Iñaki Zulaika. Eta eskerrik asko, nola ez, lanaren zuzenketa lanetan fin bezain zorrotz ibili diren Xabier Etxaberi eta Jesus Mari Olaizola "Txiliku"ri, eta bereziki, epaimahaikide lanaz haratago, laguntzaile izan ditugun Jesus Mari Makazagari eta "Txipi" Ormaetxeari.

Lan honek ez du Zarauzko herri hizkera guzti-guztia biltzen; jakin badakigu lehen hurreraketa besterik ez dela (gehienbat lexikoan eta aditzean). Hala ere, datozen urteotan egin daitezkeen beste ikerketa batzuen oinarri izan daitekeela uste dugu, eta baita, berandu aurretik, Zarauzko herriaren hizkera den altxorra jaso eta ez ahazteko balioko duen lana ere. Ahalegin horretan jarri ditugu gure gogo eta nahia.

1.1. Metodologia eta urratsak

1.1.1. GALDETEGIAK

Proiektuaren lehenengo eginkizuna elkarriketetan aztertu ditugun gaiak aldeztu aurretik eza-gutu eta jorratzea izan zen, eta horietan oinarrituz, galdetegiak atontzea. Batez ere hiru alderdi landu ditugu: bizimodua, euskalkia, eta Zarauzko historia.

Badira antzeko lan etnografikoak eta linguistikoak egiteko erabili izan diren zenbait galdetegi orokor. Gure kasuan, esparru geografikoa murriztagoa izan da, Zarautzek ezaugarri bereziak ditu eta, gainera, XX. mendean oso nortasun berezia izan duen herria da, kulturean, ekonomian... Hortaz, Zarauzko hizkeraren eta bizimoduaren alderdi interesgarrienak jaso ahal izateko, galdera berezi eta zehatzak behar izan ditugu, herriko ahozko ondarearen alderdi etnografikoa eta hizkeraren ezaugarri nagusiak jasotzeko.

Galdetegi etnografikoak bizitzaren alderdi gehienak aztertzen ditu, besteak beste, etxe-giroa, lagunartea, umetako kontuak, lanbideak, herriko politika, baserriko lanak, aisialdia... Horrez gainera, galdetegi linguistiko bat ere erabili izan dugu, bost atal nagusi dituen: fonetika, morfologia, aditza, sintaxia eta lexikoa (alderdiak, esatera zaharrak, eta abar). Kasu horretan, galderak zehatzagoak dira, eta hizkeraren alderdi nagusiak aztertzeko balio dute, zenbait kasutan gaztelaniarazko adibideak abiatuz.

Beste lan etnografiko eta atlas etno-linguistiko gehienetan galdetegi bakarra dago eta osorik egiten zaie informatzaile guztiei. Gure kasuan, ordea, hainbat gai jorratu ditugunez, ezi-nezkoa litzateke galdetegi osoa denei egitea, luzeegia delako. Gainera, gai asko oso zehatzak dira eta hiztun askok ez dakite gauza handirik horien gainean. Beraz, galdetegi hori bi modutan landu izan dugu. Galdesorta bat, orokorra, lagun gehienekin erabili dugu: Zarauzko kaleak, jaiak, eskola kontuak, politika gai orokorrak, lagunarteko kontakizunak, sinismenak... Bestalde, gai zehatzagoak galdetzeko, galdetegi espezifikoak atondu ditugu, hiztunaren arabera aukeratuak: lanbide zaharrak, kirola, gerratea, baserriko bizimodua... Azken horiek hiztunaren arabera moldatu eta erabili ditugu.

Galdetegiak beti eskura izan arren, grabazioetan ez gaituzte gehiegi lotu; galdetegiak ez dira itxiak izan. Hiztunari ahalik eta informazio handiena ateratzea lortzeko, grabazioan zehar zenbait galdera aldatu egin ditugu, edo elkarriketan zehar berriak gehitu, elkarriketak berak hala eskatuta. Hauxe da galdetegiaren eskema orokorra:

Umetan eta etxean

- Familiako kontuak: gurasoak, aiton-amonak...
- Anai-arrebak
- Etxea: non bizi, nola...
- Umetako gaiztakeriak
- Umeak nola zaindu, kantuak, ipuinak...
- Jolasak eta jokoak

Herria

- Zarautz nolakoa zen?
- Auzoak: Iñurritza, Azken Portu...
- Lehengo Zarautz eta oraingoa: aldeak, berezitasunak...
- Inguruko herriak zarautzarrentzat
- Zarautz ingurukoentzat
- Lehengo dendak, tabernak, eta abar

Eskolako kontuak

- Eskola non?
- Irakasleak
- Ikaskideak
- Ikasgaiak
- Beste eskola batzuk
- Neskak, mutilak...

Sinesmenak

- Erljioa
- Heriotza, bataioak, ezkontzak
- Kutunak
- Kondairak
- Laminak, basajaunak
- Sanjuanak, sua, kurutzeak
- Erljioa. Apaizak
- Gabonak
- Baserrietako eta langintzetako sinesmenak

Aisialdia

- Aisialdia
- Zinea, dantza
- Jaiak, oporrak
- Udaldia Zarautzen: lehen eta orain
- Kirolak
- Herri kirolak: aizkoran, oilarrak, ahariak, idi-probak...
- Pilota: pilotalekuak, partidua eta pilota-riak
- Erromeriak, jaiak
- Neskatan-mutiletan
- Mendizaletasuna
- Ehiza eta arrantza
- Basoa, fauna eta ustiaketa

Kultura

- Musika
- Koralak
- Kultura-ekitaldiak
- Eskolako kontuak
- Herriko kulturgileak: idazleak, kantariak, musikariak, margolariak...

Euskara

- Euskararako joera
- Euskara eskolan: egoera, irakasleak, zigorak...
- Soziolinguistika (egiten zen, nork, noiz...) Gaztelaniaren lekua
- Zuka / Hika / Berorika
- Euskal jaiak
- Euskaltzaleak Zarautzen

Baserria

- Baserriko jauna, aitona-amonak, maiora-razgoa
- Emakumea baserrian
- Baserriaren zatiak
- Auzolana
- Suteak, harginak, baserriak nola berriz-tatu
- Auzoak eta beraien arteko harremana
- Baserriko lana
- Garia
- Baratzeta, artoa
- Lanabesak; nola egin? nork?
- Lihoa eta artilea, zurdak, sokak eta abar-kak
- Errotara bidean, ogia
- Ganadua, abereak, aziendaren gobernu
- Garoa
- Karea, ikatza, elurra

- Sagardoa eta txakolina


- Neurriak: lakaria, imina, anega, kanak...

Lanbidea

- Non eta noiz?
- Lan tresnak
- Lanbidearen historia
- Zarauzko lanbideak

Politika

- XX. mendeko gertakari nagusiak Zarautzen
- Errepublika
- Gerratea
- Frankismoa
- Zarauzko alderdi politikoak eta politikariak



1.1.2.- LEKUKOEN AUKERAKETA

Lekukoak aukeratzeko orduan, antzeko lanetan normalean jarraitzen diren irizpideak jarraitu ditugu: herrikoak izatea, ahal dela bizi guztia bertan igarotakoak, eta herriko hizkera ondo dakitenak. Horrez gainera, burua argi izatea eta ongi ahoskatzea komeni izaten da. Laginketa egiteko orduan, elkarrizketatuen ezaugarrien artean oreka bilatu dugu, aukeraketa so-

ziolinguistiko zuzena egiteko: sexua, auzoa, adina...



Zarautz, Urdanetatik. Ezkerretara Azken Portu eta Santa Barbara auzoak; eskuinaldean Iñurritza eta Mollarri.

Auzoei dagokienez, inguru hauetako hiztunak elkarrizketatu ditugu: Iñurritza, Urteta, Elkano, Santa Barbara, Azken Portu, Salbide, Hiru Erreketa eta Zarauzko herrigunea. Gainera, Getaria, Aia, Aizarnazabal eta Zestoako hiztun gutxi batzuk ere elkarrizketatu ditugu, Zarautzekiko duten ikuspegia jasotzeko, eta hizkeran izan daitezkeen aldeak neurtzeko. Azken batean, herri bakoitzaren izaera ez dute barruko indarrek bakarrik osatzen; nortasun kolektibo horretan kanpoko elementuekin

edukitako hartu-emanak ere zeresan handia dauka.

Adinari dagokionez, batez ere nagusienak aukeratu ditugu (60-70 urtetik gorakoak), lanaren helburuak betetzeko aukerakoagoak direlako. Hala ere, gazteago batzuen hitzak ere jaso ditugu (20-50 bitartekoak), hizkuntzaren aldaketak eta joerak ikusi ahal izateko.

Alderdi linguistikoak alde batera utzi eta etnografikoak kontuan hartzen baditugu, beste faktore batzuk ere aztertu behar izan ditugu lekukoak aukeratzeko: lanbideak eta zaletasunak. Ahalik eta lanbide eta zaletasun ezberdin gehieneko lagunak elkarrizketatzen saiatu gara, bilketa aberatsagoa izan zedin.

Lekukoak aukeratzeko orduan, azken urteotan Zarautzen antzeko lanak egin dituzten lagunekin hitz egin dugu, eta hiztun egokienak zeintzuk diren erabakitzen lagundu digute. Beste batzuen artean, ondokoen laguntza jaso dugu: Ane Arregi, Xabier Alberdi, Pako Serras, Pedro Mari Alberdi, Inazio Lertxundi, Iñaki Zulaika eta Xabier Etxabe. Eskerrak eman nahi dizkiegu denei.

1.1.3.- EGINDAKO ELKARRIZKETAK

Elkarrizketak egiteko erabili dugun metodologia erraza da: dokumentatu eta gidoia prestatu ondoren, elkarrizketa egin behar diogun pertsonarekin leku lasai batean elkartu eta grabazioa egin. Grabazioak bideoz egin ditugu. Kaset edo Minidisc-ek badute zenbait abantaila (arinagoak dira, praktikotasun handiagoa, jende nagusia ez dute horrenbeste beldurtzen), baina bideoz egitea askoz interesgarriagoa iruditu zaigu: irudia beti da didaktikoagoa eta erakargarriagoa, elkarrizketatuen azalpenak askoz biziagoak dira, eta dibulgazio esparrua handitzen du.

Hiztun bakoitzarekin 60-120 minutuko grabazioak egin ditugu, gutxi gorabehera. Batzuekin bigarren egun batean ere elkartu gara, informazio gehiago jasotzeko. Elkarrizketa gehienak banaka egin izan ditugu, baina zenbait kasutan bi lagun batera ere elkarrizketatu ditugu, tertulia modukoak antolatuz. Tertulia horiek lagunarteko hizkuntza eta hitanoa jasotzen laguntzen dute; gainera, elkarren arteko tirabiran gai eta kontu gehiago agertzen dira.



Manoli Uria Aldalur eta Antonio Serras Azpillaga



Joxe Mari Eizagirre Goenaga

Hilario Epelde Lizaso

Hona hemen proiektu honetan zehar egindako elkarrizketen eta elkarrizketatuen zerrenda. Gutxi gorabehera, 50 hiztun inguru, eta 55 grabazio-ordu.



Juan Agoues Zubeldia

F. J. Aranburu Aranguren

Pakita Uria Mancisidor

Maria Larrañaga Manterola

HIZLARIA	ZINTAREN KODEA	JAIOTEGUNA
Inaxio Lertxundi Ameztol	ZAR-001	1932-02-06
Ander Alberdi Arregi	ZAR-003, 037, 038	1933-02-04
Maria Josefa Txurruka Egaña	ZAR-004	1913-12-02
Juan Ezenarro Barrenetxea	ZAR-005	1911-12-02
Joxe Ezenarro Roteta	ZAR-006	1921-04-08
Xantos Leunda Eizagirre	ZAR-007	1912-02-01
Juana Lizarralde Buenetxea	ZAR-008	1914-11-24
Antonio Eizagirre Uranga	ZAR-009	1933-02-09
Pakita Uria Mancisidor	ZAR-009	1937-02-18
Inazio Lazkano Roteta	ZAR-010	1924-01-13
Benita Eizagirre Ibarguren	ZAR-011	1909-03-19
Juan Iturria Astiazaran	ZAR-012	1921-08-29
Jose Agustin Etxabe Olaskoaga	ZAR-013	1924-04-27
Francisco Javier Aranburu Aranguren	ZAR-014	1921-04-22
Juan Jose Markaide Etxabe	ZAR-015	1935-10-07
Pako Olazabal Iruretagoiena, "Paxo"	ZAR-015	1936-07-03
Feli Arruti Amendibar	ZAR-017	1931-09-24
Manoli Olaizola Alkorta	ZAR-018	1917-12-08
Agate Loiola Antzuola	ZAR-019	1925-11-28
Rosario Loiola Antzuola	ZAR-019	1922-10-07
Ignacia Loiola Antzuola	ZAR-019	1927-03-22
Antonio Serras Azpillaga	ZAR-020	1920-10-19
Manoli Uria Aldalur	ZAR-020	1923-11-22
Maria Larrañaga Manterola	ZAR-021	1908-07-07
Jose Mutiozabal Begiristain "Txabillo"	ZAR-022	1930-02-16
Bonifacio Mutiozabal Begiristain "Txabillo"	ZAR-023	1926-03-09
Jesus Mari Kaperotxi Arakistain	ZAR-024	1928-10-30
Ignacio Makazaga Arruabarrena "Beaxai"	ZAR-025	1925-08-20
Mariano Gereka Etxaniz	ZAR-026	1929-09-15
Pepita Goikoetxea Agirre	ZAR-027	1934-07-23
Karmele Elola Aranburu	ZAR-028	1924-07-05
Juan Agoues Zubeldia	ZAR-029, 039, 044	1927-12-14
Pio Ilarramendi Arizaga	ZAR-030	1942-11-18
Rafael Iturzaeta Martija	ZAR-031	1928-10-23
Marcial Olaizola Iruretagoiena	ZAR-032	1917-06-29
Imanol Murua Arregi	ZAR-033, 034	1935-06-03
Pako Urkia Manzisidor	ZAR-035	1935-12-07
Migel Lopetegi Arreseigor	ZAR-036	1926-02-06
J. M. Olaizola Lazkano "Txiliku"	ZAR-040	1951-04-15
Juan Lazkano Roteta "Juan XXIII"	ZAR-041	1925-12-19
Pako Makatzaga Arruabarrena	ZAR-042	1927-11-22
Santos Azpeitia Leunda	ZAR-043, 044	1926-03-16
Juan Zulaika Lizaso	ZAR-045	1929-11-18
Andoni Odriozola Arruabarrena	ZAR-046	1932-10-20
Vitorio Odriozola Arruabarrena	ZAR-046	1937-12-26
Joxe Mari Eizagirre Goenaga	ZAR-047	1925-11-25
Sebastian Eizagirre Martija	ZAR-048	1942-01-24
Hilario Epelde Lizaso	ZAR-049	1947-09-25

Bestalde, guk egindako elkarriketez gain, duela 20 urte inguru udalak antolatutako "*Zarauztar aiton-amonen hizkera*" bekan bildutako grabazioak ere jaso eta katalogatu ditugu. Horiek ere oso interesgarriak izan dira beste 20 hiztunen lekukotasuna biltzeko. Handik ere hainbat pasarte, ezaugarri linguistiko eta adibide jaso ditugu. Hauxe da 1987ko bekan elkarriketatu zituztenen zerrenda:

- Agustin Agoues (1900)
- Asuncion Bonetxea
- Alfonso Sansebastian (1918)
- Arantza Etxeberria (1926)
- Balero Odriozola (1902)
- Emiliano Alberdi
- Eugenia Sobera (1905)
- Frantziska Uranga (1917)
- Inoxenxio Epelde (1902)
- Iñaki Eizmendi (1913)
- Isidoro Unzueta (1917)
- Jesusa Madariaga (1915)
- Jose Mari Uria (1898)
- Josefa Lizaso (1918)
- Joxepa Antoni Aristi (1905)
- Juana Leonarda Irulegi (1902)
- Manolo Agirrezabal (1916)
- Mariano Izeta
- Margarita (1911)
- Mari Cruz Etxabe (1915)
- Maritxu Elozegi
- Mikaela Zubeldia (1917)
- Miren Etxabe (1902)
- Pakita Agirresarobe (1910)
- Pedro Joxe Eizagirre (1907)
- Prontxio Azpiazu

Horiez gainera, zarauztar gehiagoren ahotsa entzuteko eta gazteen hizkeran izan daitezkeen al-daketak jaso ahal izateko, ondorengo lagun gazteago hauei ere galdetegi linguistikoa egin diegu:

- Ane Arregi Iturzaeta (1964-05-05)
- Elena Illarramendi Larrañaga (1964-09-19)
- Ainhoa Alberdi Gisasola (1969-01-14)
- Iera Arrieta Kortajarena (1979-01-14)
- Ainhoa Elola Manterola (1979-05-29)
- Oihana Aizpurua Olaizola (1979-09-10)
- Ainara Aiestaran Iruretagoiena (1979-12-08)
- Xabier Garate Aiestaran (1982-06-03)
- Oier Aizpurua Olaizola (1988-02-15)

Amaitzeko, inguruko zenbait herritan ere elkarrizketak burutu ditugu, herri horiek Zarautze-kin izan duten hartu-emanaz aztertu, Zarautzekiko duten ikuspuntua jaso, eta hizkeran izan daitezkeen berezitasunak neurtu ahal izateko. Hona hemen lekukoen zerrenda:

- Maria Aristi (Urdaneta, Aia, 1921)
- Andres Lertxundi (Aia, 1917)
- Juanito Eizagirre (Getaria, 1930)
- Margarita Etxabe (Narrondo, Zumaia, 1922)
- Roberto Bergara (Aizarna, Zestoa, 1916)
- Joxe Etxabe (Aizarnazabal, 1941)

1.1.4.- ZINTEN LABURPENA, KODIFIKAZIOA ETA TRANSKRIPZIOA

Grabatu ditugun bideo-zintetako informazio guztia eroso erabiltzeko, derrigorrezkoa izan da grabazio bakoitzarentzat laburpen-fitxa bat egitea eta informazio guztia bilduko duen datu-basea antolatzea. Horregatik guztiatik, grabatutako zinta guztiak katalogatu eta kodifikatu egin ditugu, eta datuak datu-basean txertatu dira ondoren.

Datu-base horrek 3 taula nagusi ditu:

- Zintaren datuen taula
- Lekukoaren datuen taula
- Elkarrizketaren kodifikazioaren eta transkripzioaren taula

Lehenengoan zintaren edo elkarrizketaren datu nagusiak bildu ditugu: noiz eta non egin den, nork, iraupena, ohar teknikoak... Bigarrenean, lekukoaren datu pertsonalak (jaioteguna, biografia laburra, helbidea...). Azkenik, hirugarrenean, elkarrizketa bakoitzaren minutuz

minutuko laburpena egin dugu: minutu bakoitzean, hitzunak zeri buruz hitz egin duen, kode batzuen bidez zehaztuz. Hauexek dira azken horretan batu ditugun datuak:

- **Zintaren kodea.**
- **Pasartearen zenbakia.** Zinta bakoitza, minutuz minutu markatzen diren pasarteetan banatzen da. Pasarte hauetako bakoitzari kode bat ematen zaio.
- **Minutuz minutuko laburpena.** Zutabe batean minutuak markatzen dira, denbora tarte bat mugatuz, eta aurrerago dagoen beste zutabe batean denbora tarte horretan hitzunak zer kontatzen duen laburtzen da.
- **Gai-kodeak.** Laburtutako pasarte bakoitzari kode bat ematen zaio, lantzen duen gaiaren arabera.
- **Laburpena.** Pasarte horren laburpena, hitzunak esandakoa laburtuz.
- **Izenburua.** Pasartei izenburua jartzen zaie interesgarriak direnean.

- **Transkripzioa.**

Datu-base horrekin, edozein gai zein zintatan eta zinta horren zenbatgarren minutuan dagoen jakin dezakegu. Hasiera batean lan astuna izan arren, hurrengo urratsetan ahozko dokumentuaren erabilera asko errazten du, bai transkripzioak egiteko orduan, bai edozein bilaketa egiteko, edo hedapenerako. Kodifikazio horren ondorioz, azterketarako unitatea ez da zinta, ondo definitutako 3-4 minutuko pasarte bat baizik, bere izenburu, iraupen, gai, eta transkripzio jakinarekin. Datu-base hori erabili dugu ondorengo azterketa etnolinguistikoa, eta datu-base hori da Interneten kontsultagai dagoen informazioaren oinarria.

Transkripzioak eta idaztarauak

Herri bateko hizkera jaso eta aztertzeke orduan, arazo handienetako bat transkripzioak egitea da. Orain dela urte batzuk arte transkripzio hertsia hertsia egiten ziren, laburdura guztiekin; transkripzioak ziren hizkerak jasotzeko eta ikertzeko aukera bakarra. Gaur egun, herrietako hizkerak Minidisc, DVD eta CDRom-etan gordetzen dira. Transkripzioak, beraz, hizkera aztertzeke erabili beharrean, dibulgaziorako erabiltzen dira gehienbat. Hori kontuan izanik, transkribatzeko orduan, alderdi filologiko hutsa baino gehiago, irakurlea da garrantzitsuen guretzat. Irakurleak testua irakurri ahal izatea, ulertzea, gozatzea, eta identifikatuta sentitzea. Hauexek dira jarraitu ditugun irizpide nagusiak:

- Arau orokor bezala, ahal dela hitzak osorik eta banatuta idatzi. Baturako hurbilpena egin, ulermena ahalbidetzeko, baina ahozkotatasunaren grazia eta Zarauzko euskara-



Zarauzko Kale Nagusia, XX. mende hasieran



ren ezaugarri nagusiak gordez, batez ere morfologian eta hitz barruko fonetikan. Ez horrenbeste hitzen arteko loturetan.

- H erabili
- Z/S eta TZ/TS bereizi (nahiz eta Zarautzen bereizketa hori egin ez)
- Bustidurak adierazi, hiztunak hala erabiltzen baditu. Eta bustidura sortzen duen bokala idatzi: *-iñ / -ill / -itt*.
- Deklinabide kasuetan hiztunak esaten dituen bezala adierazi beti. Esate baterako, genitiboan: *"Santo Kriston eskia"*.
- Mugatzailearekin sortzen diren aldaketa fonetikoak ere adierazi: *etxia, txikiya, ensayua...*
- Bokalarteko *-r*- galtzen denean, ez idatzi: *zea, bea, etxea...*
- Bokalarteko *-g*- galtzen denean ere ez adierazi: *eiteko, dao, ezautu...* Kasu hau zaila goa da, sarritan *-g*- leundu egiten delako, baina ez guztiz galdu (*gogorra, sagarra...*). Horrelakoetan, belarria findu, eta hiztunak dioena errespetatzen saiatu gara.
- *d>r* bilakaera. Hiztunak dioena gorde: *trenbirian...*
- Beste aldaketa fonetiko guztiak ere, hiztunak esaten dituen bezala utzi ditugu: *ebiya* (ez *euriya*), *iyo* (ez *igo*).
- *Eta, ta, da...* Lehenengo bi kasuetan, hiztunak dioena errespetatu dugu. Hirugarrenaren kasuan, ordea, *da* idazkera nahasgarria izan zitekeen, eta horrelakoetan *ta* idatzi dugu.
- *Ere*: hiztunak dioena idatzi dugu: *ere / re / e*. Azken bi kasuetan, hitzari lotuta eta apostrofe batekin adierazi dugu: *hori're / haiek'e bai*.
- Aditzetan, hiztunak erabiltzen dituen formak errespetatu ditugu, zuzen-zuzenean, inongo aldaketarik gabe. Adibidez: *gaude / gare / gabe*.
- Aditzen loturen ondorioz sortzen diren aldaketak, aldiz, ez ditugu adierazi. Ez aditz nagusiak galtzen dituen kontsonanteak, ez aditz laguntzailean sor daitezkeen aldaketa fonetiko puntualak. Adibidez: *esate zun > esaten zun*.
- Gaztelaniazko hitzak:
 - Hitz solteak direnean, hiztunak bere gain hartutakoak, normal idatzi ditugu: *kuarto de baño*.

- Gaztelaniazko esaldiak edo hitz multzoak, hiztunak nahita gaztelaniaz esan dituenak, erdal grafiaz eta kakotx artean.
- Ulertzen ez diren pasarteak, zalantzazkoak edo transkribatu gabe geratzen direnak, kortxete artean: [...]
- Hiztunak beste baten hitzak sartzen dituenean, kakotx artean eta etzanda adierazi dira.
- Elkarrizketan bigarren hiztun baten ahotsa azaltzen bada (alaba, senarra, iloba...), bere hitzen aurretik adierazi dugu, adibidez, "Alaba:".

Hona hemen adibide bat. Uste dugu irakurtzeko nahiko erraza dela eta, hala ere, Zarauzko hizkeraren ezaugarri nagusiak gordetzen dituela. Ez dago zalantzarik berriketan dabilena Zarautz ingurukoa dena.

Benita Eizagirre

- Eta, zenbat, zenbat anai-arreba ziñaten baserri-yan?
- Gu, hamar izan ta zortzi hazi, bi txikittan jaio ta berehala hillak.
- Zenbat neska ta zenbat mutil ziñaten?
- Ba... bizi giñan lau neska ta lau mutill, zortzi.
- Eta, zein gehio bizi zan baserriyan zuekin?
- Pues, amona eta aita-amak.



- Eta, gogoratzen dituzu txikitan, zure txikitako urte haiek baserrikuak? Ze iten zenuten ta?
- Ba, eskolan hasi nitzan kumuniyo txikiya in ta, ein ta segituan, eta zortzi urte nittunian jun zan maistra, bakaziya hartu zitun, ta gehio ez zan etorri. Hurrena etorri zan ha-maika urte nitunian, ta orduan'e [...] zenbat ingo zitun ba, urte pare bat eo. Albisturko hua zan gaiñea. Ta berriz'e alde in zun, eta, geo, aitona zahar bat bazan, hola, eskian ez baiña, zea, Parrokiko Santo Kriston eskia ta Urtetako San Sebastianen eskia, bi, ne-guan bi txandetan ibiltzen zan. Zeakua zan, hor, Lasartetikan, Añorgaldeako horkua, zea, etorrita ta sei duro entregatzen zitun Urtetan. Ez dakit beak gixajuak zenbat iraba-ziko zun! Ta, hua're tartietan, hillabetian bat eta zean, baserri baten ta besten ta, ta guri eskola ematen jardutzen zan, baiña, ez zekiyan zean... Dotriña eakusten ziun ta, errezuak eakusten zixkigun ta, eskribitzen'e eakusten ziun, baiña kuentetan ez zekiyan beak, eta... hola zeatu giñan. Eta geo, nik zenbat urte nitun?... Hamahiru, hamabost, hamabost urte o, holako bat izango nittun, o igual gutxiyo, ba, hortxe, hamalau urte o, Mujika maistra etorri zan, azkoitiarra bea izatez. Gizona Bergarakua zun, eta pintoria, ta Ameriketa junda ta ibiltzen zitzaion. Harrek in zittun bastante urte, harek ingo zitun dozena erdi bat urte, bai. Ta geo, aldi batian beste maistrik ez zan izan.

1.2. Zarautz

Lan honen jomuga Zarauzko euskararen azterketa izanik, haren ezaugarri nagusiak aztertzen hasi aurretik, nahitaezkoa dugu herriaren kokapenari berari tartetxo bat egitea. Izan ere, gure hizketaren ezaugarriak aztertzeko eta ulertzeko ezinbestekoa da, labur bada ere, Zarauzko herria bera kokatzea eta inguruko herriein dituen loturak aipatzea, geografikoak zein sozialak.

Zarautz Gipuzkoako kostaldeko udalerria da eta Urola Kosta eskualdean dago. Iparraldean Bizkaiko itsasoa du, mendebaldean Getaria, eta gainontzean Aiako lurrek inguratzen dute. Hala ere, nolabait mugakide ditu Orio (ekialdean) eta Aizarnazabal (hego-mendebaldean).

Hondartza handia du (2 km luze), Iñurritza erreka ondoan, eta hori dela eta turismoak indar handia izan du herrian, gutxienez azken 130 urteotan. Kanpotarren etengabeko etorrera horrek eragin handia izan du herriaren bizimoduan eta izaeran. Industria arloan altzarigintzak, oihalgintzak eta arte grafikoak indar handia izan dute. Nekazaritzak ez du horrenbesteko garrantzirik izan, baina mahastiak eta barazkigintza herriaren alderdi bereizgarria izan dira, eta oraindik ere badira.

Populazioak gora egin du etengabe XX. gizaldian: mende hasieran 2.838 biztanle ziren; 1950ean, 6.729; eta 1991n, 17.517. Azken urteotan beste hazkunde bat izan du, eta une honetan 22.000 biztanletik gora ditu.






1.2.1.- HISTORIA

Hiribildua noiz sortu zen ez dago argi, Gipuzkoa Gaztelako erresumaren menpera pasa zenean apika, 1200. urtearen inguruan. Alfontso VIII.ak interes handia izan zuen kostaldean hiribilduak sortzeko, itsas merkataritza eta itsasorako irteerak bere esku izan nahi baitzituen. Hondarribia, Mutriku eta Getaria orduan sortu zituen eta uste izatekoa da Zarautz ere orduantxe sortuko zuela.

1237an Fernando III.ak Donostiako Forua eman zion, baina ordurako hiribildua zen. Foruaren truke, harrapatutako balea bakoitzaren zati bat erregeari eman behar zioten. 1393an Getariarekin elkartu zen, baina ez zuten elkarrekin denbora asko egin, 1397rako zein bere aldetik baitzegoen berriro.

XIX. mendetik aurrera, hazten, industrializatzen eta garatzen hasi zen. Garai bateko herri nekazaria guztiz itxuraldatu zuten moda berriek. Garapena eragin zuten faktore garrantzitsuenak kostaldeko errepidea eta kostaldeko trenbidea izan ziren. Gainera, 1865 eta 1866an Isabel II.a erreginak Zarautz aukeratu zuen udako itsas bainuak hartzeko eta ospea lortu zuen horrela. Izan ere, udako klimak, paisajeak eta hondartzak erakarrita, kanpotar ugari hurbildu zen herrira. Gehienak aristokratak eta burgesak, toki lasaiaren bila. Pixkanaka-pixkanaka Mendilautako hareatza jauregiz, lorategiz eta pasealekuz bete zen, eta hondartza egoitza-leku bihurtu.



Era berean, garai honetan Zarautzek ateak ireki zizkion industriari, Pascual Madoz jaunaren bultzadari esker 100 langiletik gora izan zituen lehenengo ehun-fabrika sortu baitzen hondartzan.



Ordutik aurrera, eta XX. mendean aurrera egin ahala, beste leku eta gizarte-maila askotari-ko jendea iritsi zen Zarautza: medikuak, artisauak, merkatariak, mirabeak, irakasleak... denak ere hiri berriak eskaintzen zituen aukerak aprobetxatzeko gogoz. Ostatuak, kafetegiak eta gelak alokatzen zituzten etxeak edonon aurki zitezkeen. Turismo hiri berria jaio zen, eta horrekin batera, bere garaian hain garrantzitsua izan zen ehungintzarekin batera, beste industria mota ugari ere agertu ziren, hala nola, gitarra klasikoaren fabrikazioa, grafikagintza, al-tzarigintza, eta abar.

Gaur egun bi nortasun horiei eusten die oraindik ere: turismo hiri kosmopolita da batetik eta industria hiria bestetik. Hala ere, nahiz eta hiri modernoa izan eta kalitate handiko zerbitzuak eskaini, Zarautzek ez ditu antzinako oinatz eta tradizioak ahaztu, eta horregatik da hain era-kargarria herritarrentzat nahiz bisitarientzat.

1.3. Euskararen egungo egoera Zarautzen¹

1.3.1.- HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA (1981-2001)



Eustatek emandako datuen arabera, Zarautzen hamar lagunetik zazpi euskaldunak dira (%71,9). Erdaldun elebakarrak, hau da, euskaraz batere ulertu eta hitz egiten ez dutenak, biztanleriaren %17,2 dira. Elebidun hartzaileak, hots, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, %10,9 dira. 1981etik 2001era izan den bilakaera kontuan hartuz gero, euskaldunen ehunekoa 6,8 puntu igo da. Elebidun hartzaileek ere gora egin dute 0,5 puntu igoz. Erdaldun elebakarren ehunekoak, berriz, behera egin du; kasu honetan 7,3 puntu jaitsi da.



¹Atal honetan azaltzen diren datu eta azterketa guztiak Zarauzko udalak emandakoak dira.

1.3.2.- HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA (2001)

Euskaldunen proportzioa nagusi da adin guztietan. Portzentaje handienak gazteen artean gertatzen dira. 19 urtetik beherako adin-tarteetan euskaldunen nagusitasuna erabatekoa da, hamar lagunetik bederatzi euskaldunak dira.



1.3.3.- HIZKUNTZA-GAITASUNA, AUZOAREN ARABERA (1996)

1996tik hona herria asko aldatu den arren, eta datu berriagorik ezean, interesgarria iruditu zaigu auzoen arabera hizkuntza-gaitasunari dagozkion datuak ere hemen azaltzea. Auzo guztietan euskaldunak nagusi dira. Ehunekoen arabera, Alde Zaharra eta Iñurritza dira auzorik euskaldunenak (%77,04 eta %77,79, hurrenez hurren). Azken Portu eta Itxasmendi auzoek, ostera, erdaldun elebakarren portzentajerik handienak dituzte (%23,17 eta %27,56, hurrenez hurren).

	Guztira	Euskaldunak %	Elebidun hartzaileak %	Erdaldun elebakarrak %
Zarautz	18.101	72,52	9,67	17,82
Alde Zaharra	4.304	77,04	9,22	13,73
Azken Portu	3.479	66,92	9,92	23,17
Iñurritza	2.085	77,79	9,30	12,90
Itxasmendi	1.847	60,86	11,59	27,56
Mendilauta	2.690	74,35	11,30	14,35
Vista Alegre-Landa eremua	1.649	76,29	8,07	15,65
Zelai Ondo	2.047	72,20	7,96	19,83

Eustatek emandako datuak

1.3.4.- ERABILERAREN INGURUKO DATUAK (2005)

Erabilerari buruzko datuak 2005eko apirilaren 19tik 24ra SIADECOK egindako kale-erabileraren azterketatik ateratakoak dira.

Ahozko erabileraren emaitza orokorra

	Guztira
Behatutako ahozko komunikazio kopurua	7.839
Euskarazkoak	5.216
%	66,5

Iturria: SIADECO, 2005eko maiatza


Zarautzen, toki publikoetan euskararen erabileraren indize orokorra %66,5ean kokatu da. Behatutako hiru hizkuntza jokabidetatik bi euskaraz, eta bat erdaraz izan dira; laburbilduz, 3 pertsonetatik 2 euskaraz ari zirela esan daiteke.

Euskararen erabilera adinari jarraiki

	Behatutako komunikazioak	Zenbat euskaraz	Euskaraz %
Haurrak (0-14)	2.742	2.170	79.1
Gazteak (15-24)	1.289	940	72.9
Heldu gazteak (25-39)	1.666	976	58.0
Helduak (40-59)	1.427	751	52.6
Nagusiak (60 eta +)	715	388	54.3
GUZTIRA	7.839	5.216	66.5

Iturria: SIADECO, 2005eko maiatza

Haurren eta gazteen artean ematen da euskararen erabilera mailarik altuena: 0-14 urte bitarteko haurren artean, euskaraz ari zirenen ehunekoa %79,1koa da (5etik 4 euskaraz ari ziren), eta gazteen artean %72,9koa (4tik ia 3, beraz, euskaraz ari ziren). Gainerako hiru adin multzoei dagokien euskararen erabileraren ehunekoa batez bestekoaren azpitik kokatzen da: heldu gazteen kasuan, euskararen erabileraren portzentaia %58,0koa da, eta adin horretatik gorakoen artean baxuagoa.



Iturria: SIADECO, 2005eko maiatza


Kale erabilera zonaldeari jarraiki

Zonaldeak		Guztira
Alde zaharra erdialdea	Behatutakoak Euskaraz (%)	2.738 64.6
Iñurritza San Pelaio	Behatutakoak Euskaraz (%)	1.808 85.6
Azken Portu	Behatutakoak Euskaraz (%)	1.187 60.7
MAXI ingurua eta Itxasmendi	Behatutakoak Euskaraz (%)	2.106 55.-9
Guztira	Behatutakoak Euskaraz (%)	7.839 66.5

Iturria: SIADECO, 2005eko maiatza

Zarautzen behatu diren lau zonaldeetan euskararen erabilaren indizea oso desberdina dela esan daiteke. Honela, Iñurritza-San Pelaio inguruan, euskararen erabilaren indizea %85,6an kokatzen da, eta Maxi-Itxasmendi inguruan, aldiz, %55,9an. Tartean geratzen dira Alde Zaharra/Erdialdea %64,6rekin eta Azken Portu %60,7rekin.

Euskararen erabilaren rankinga, zonaldeari jarraiki (%)



Iturria: SIADECO, 2005eko maiatza

Dena den, emaitzak zonaldeka interpretatzean kontuan izan behar dugu neurtzen dena ez dela bertako biztanleen hizkuntza jokabidea, auzo jakin hartako kale eta leku publikoetan dabilen jendearena baizik. Zonalde batzuetan, merkatalguneetan, taberna giroko lekuetan, ikastetxe inguruetan eta abarretan beste auzoetako jende ugari biltzen da eta, ordea, beste zenbait auzotan normalean bertakoak izaten dira kalean dabilen gehienak.

2

Ezaugarri fonetikoak

2.1. Bokalismoa

2.1.1.- HIATOKAK

2.1.1.1. Bokal-elkarketak

a + a > a (alaba, errota, neska)

Zarautzen euskara batuko arau orokorra jarraitzen da, adibidez: *errota + a > errota*. Dena dela, inguruko herrietako eredu orokorrari jarraituz, hitz gutxi batzuetan -aa bokal luzeak gordetzen dira: *saldaa, gaztaa, azaa, askaa, sokaa...* Halere, gogoan izan fosildutako hitz gutxi batzuetan besterik ez dela gertatzen, eta hiztun nagusien artean bereziki. Hemen adibide bat:

Sagardua eran iten zuen, ta, nehiko ogia jan, ta holaxe, gero intxaurrak asko, intxaurrak, eta gaztaa.

(Josefa Lizaso)

e + a, e, o > ia, ie, io

etxe > etxia

i + a (e, o) > iya (iye, iyo)

ogi > ogiya

o + a (e, o) > ua (ue, uo)

asto > astua

u + a (e, o) > ua (ue, uo)

katu > katua

Kasu honetan, berezia da Urteta auzoa. Aia inguruko baserrietan entzuten den -uba amaiera (*buruba, diruba, piñuba...*) ez da ezaguna Zarauzko kalean, baina Urtetan erabiltzen dute, inguruko auzoetan bezala (Urdaneta, Aizarna...). Adibidez: *xauba, izuba, trikuba, altuba, basakatuba, orduba, gastuba, katuba...*

A itsatsia

Berez **a** amaiera duten hitz askotan, bokal hori galdu egin da, batez ere **-ia** amaierako hitzetan: *feri, animalia, habi, txorakeri, zikinkeri, pizti, industri, farmazi, egi...* Beste hitz bakanen batean ere gertatzen da fenomeno hori, esate baterako, *makil* hitzaren kasuan. *Gauza* hitzaren kasuan, bietara erabiltzen da, *gauz* zein *gauza*.

2.1.2.- DIPTONGOAK

2.1.2.1. Beheranzko diptongoak:

au > a/o/u

Hitz askotan diptongoak soiltzeko joera dago: *arpegi*, *alki*... Baita adizki batzuetan ere: *nazu*, *nazue*; *dakat*, *zakan* ('zeukan').

-ei- diptongoaren sinplifikazioa

- *bedeinkatu* > *bedinkatu*
- *ehiztari* > *iztari*
- *egin* > *in*
- *hogeita* > *ogeta*

-u- > -b-

U bokala diptongo baten zati denean, edo bokal erdia, kontsonante bihurtzen da: -u- > -b-

- *euli* > *elbi*
- *uri* > *ebi*
- *gaua* > *gaba* (*gabian*...)
- *hauek*, *hauen*... > *habek*, *haben*...
- *zeuden* > *zaben*, *zeben*...

2.1.2.2. Goranzko diptongoak

- *guazen* ('goazen')², *eguardi* ('eguerdi'), *zeuek* ('zeuek')...
- *kanpaia*....
- *gaua* > *gaba*

2.1.2.3. Triptongoak

Kasu bereziak izan arren, aipatzekoa da kontsonanteen galeraren ondorioz zenbait hitzetan agertzen diren triptongoak, esate baterako: *uain* ('orain'), *Xuai* (Zudugarai toponimoa), edo *Xoain* (Sorogain baserria)³.

2.1.3.- BOKAL GEMINATUAK

Lehen mailako bokal geminatuak ia erabat galduta daude Zarauzko euskaran. Nagusien artean (eta batez ere baserriarren artean), oraindik ere bizirik daude bokal luze horien aztarnak (*behe*, *ahaztu*...), baina oro har, horrelakoak soilduta erabiltzen dira zarauztar gehien artean: *ahal* > *al*; *txahal* > *txal*, *nahastu* > *nastu*, eta abar.

Bigarren mailakoak, ordea, oso ugariak dira, kontsonante baten galeraren ostean sortzen direnak, VCV > VV. Zarautzen oso erraz galtzen dira -g- eta -r- bokal artekoak eta beraz: *gogorra* > *goorra*; *zarata* > *zaata*; *badakizue* > *baakizue*.

² Zarautzen, *guazen* > *gazen* bilakaera ere gertatzen da.

³ Hitzunaren eta esaldiaren arabera kasu batzuetan bi silabatan banatzen dira hitz horiek.

2.1.4.- ALDAERA NAGUSIAK

2.1.4.1. Amaierako $e > a$

Mendebaleko hizkeren bereizgarria den ezaugarri hori ez da iritsi Zarautzera, eta -e amaieradun hitzak dira nagusi (*lore, landare, andre, ote, golde...*). *Ahata* hitza bietara erabiltzen da.

2.1.4.2. /r/ aurrean bokal irekidura, bereziki $e > a$

Hiztun zaharren artean oso maiz entzuten dira ebakera horiek, hau da, /r/ aurrean, $e > a$ bilakaera. Adibidez:

- 1.- *baxtar/baztar, ixtar, pitxar, ear, muskar, tallar, basarri, eguardi...*
- 2.- *izardi, igari, axari*

Ez ostera beste hauetan: *piper, bider, berri, berdin, txerri*.

Gazteen artean nahikoa galduta dago ezaugarri hori, eta oro har, euskara estandarreko e-dun formak nagusitu dira (*ixter, bazter, tailler, igeri, azeri...*).

2.1.4.3. $e > a$ IZAN aditzean (*zan, dala, zala, dalako...*)

Izan aditzean, mendeko formetan, -a agertzen da, eta ez euskara estandarreko -e: *zan, dala, zala, dalako*.

2.1.4.4. $o > u$ NON galdetzailearen eratorrietan

Non galdetzailearen eratorri guztietan *non > nun* bilakaera gertatu da: *nun, nundik, nungo...*

2.1.4.5. Gaztelaniazko -(i)ón amaieradun maileguetan $> -(i)oi$

Oro har, gaztelaniazko -(i)on amaieradun hitzak -oi bilakatzen dira Zarautzen: *kamioi, abioi, frontoi...* Hala ere, hiztun batzuen ahotan -on formak ere aurkitu ditugu, batez ere bi hitzetan: *kamiona* (edo *ganbiona*) eta *frontona*.

2.1.4.6. Gaztelaniazko -(c)ión amaieradun maileguetan $> -ziyo$

Horixe da araua Zarautzen. Horrela: *operaziyo, salbaziyo, kalefaziyo...*

2.2. Kontsonantismoa

	Ezpainkaria	Ezpain hortzetakoa	Horzkaria	Hortzobikaria Bizkark. / Apik.	Sabaiaurrekoa	Sabaikaria	Belarea
Herskari							
ahoskabeara	p		t				k
Herskari							
ahostuna	b		d				g
Sudurkaria	m			n		ñ	
Frikaria		f		z	s	x	y j
Afrikatua				tz		tx	
Albokaria				l		ll	
Dardarkaria				r			
Dard. azkarra				rr			

2.2.1.- HERSKARIAK

2.2.1.1. Herskariak galtzea

Zarauzko hizkeran bokal arteko herskariak galtzeko joera handia dago. Batez ere *-g-* gal-tzen da, baina *-b-* eta *-d-* ere maiz desagertzen dira:

- d-:** *euki* ('eduki'), *ean* ('edan'), *mouan* ('moduan'), *aar* ('adar'), *eo* ('edo'), *earki* ('ederki'), *bajjua* ('badijoa'), *baakisu* ('badakizu')...
- b-:** *proatu* ('probatu'), *baarrun* ('babarrun')...
- g-:** *eiñ* ('egin'), *euzki* ('eguzki'), *nausi* ('nagusi'), *ezautu* ('ezagutu'), *nearrez* ('negarrez'), *goorra* ('gogorra'), *guatu* ('gogoratu').

*g-*ren galera beste hainbat kasutan ere agertuko zaigu: *egon*-en adizkietan (*nago* > *nao*, *no*), *-tegi* atzizkian (*txakonlindi*), *-ago* graduatzailean (*lehenago* > *leno*; *politago* > *poli-to...*), eta, aditzean, *-gu* markan (*degu* > *deu*).

2.2.1.2. VdV > VrV bilakaera

Oso joera nabaria, bai hitzun nagusietan, bai gazteagoetan. Jatorriz *-d-* duten hitz askotan, *d* > *r* bilakaera gertatzen da, adibidez: *biria* ('bidea'), *moruan* ('moduan'), *urabarri* ('udaberri'), *merikua* ('medikua'), *-di* atzizkidun hitzak (*piñuri*, *pagari...*), *-ada* atzizkidunak (*erderakara*, *patxara...*) eta abar.

Kostaldeko beste zenbait herritako (Lekeitio, Mutriku...) hitzen arteko *d>r* bilakaera ez da Zarautzen gertatzen. Adibidez, Ondarroan, *ikusi reu* ('ikusi du'), edo Lekeitioan, *laguna rator* ('laguna dator'). Zarautzen *d-* galdu egiten da, normalean, eta ez dago *d>r* bilakaerarik: *etorri'anian* ('etorri denean'), *ikusi'u* ('ikusi du'), *izango'ia* ('izango dira').

2.2.2.- SUDURKARIAK

2.2.2.1. /n/ galtzea IZAN aditzean: *-n + tz > -tz-*

Izan aditzaren zenbait adizkitan *-n* galtzen da sistematikoki: *nitzan*, *hitzan*...

2.2.2.2. *-ain > -ai; -uin > -ui*

usain > usai

artzain > artzai

arrain > arrai

ipu(n) > ipu(r)i

higu(n) > higu(i)

2.2.3.- ALBOKARIAK

2.2.3.1. Mendebaleko bereizgarri diren txandakatzerik ez

Mendebaleko hizkeretan gertatzen diren zenbait txandakatze Urola Kostako beste herri batzuetara iritsi diren arren (batez ere Azkoitia eta Zumaia ingurura), Zarautzen ezezagunak dira.

Adibidez:

/d txandakatzeak

mendebalerago: *edur*, *zidar*, *bedar*, *idar* / Zarautzen: *elur*, *zillar*, *belar*, *illar*.

/n txandakatzeak

mendebalerago: *narru*, *guntzurrun*, *nasai*... / Zarautzen: *larru*, *giltzurdin*, *lasai*...

2.2.4.- DARDARKARIAK

2.2.4.1. Dardarkariak galtzea

Herskarien kasuan esan dugun moduan, *-r-* interbokalikoa ere oso erraz galtzen da Zarautzen:

Za(r)ata, arma(r)iyua, bea ('bera'), *atea* ('atera'), *Zaautza, geo, hoixe, oain, egualdi, atai, e* ('ere'), *betzako* ('beretzako'), *iten ai da* ('egiten ari da'), *oaindik, itxea* ('etxera'), *(d)ia* ('dira'), *zian* ('ziren')... datiboa eta partitiboa: *semiai, semeik*...

2.2.4.2. Zenbakien deklinabidea

Zenbakien deklinabidean, gehienetan, loturako *-(r)e-* ez da ahoskatzen. Beraz: *hirutan, seitan, zazpitan, zortzitan*... Gazteen artean, hala ere, beste hauek ere arruntak dira: *hiru-retan, seiretan, zazpiretan*...

2.2.5.- IGURZKARIAK: J ETA F

2.2.5.1. J

Euskal Herri erdialde guztian bezala, Zarautzen ere /x/ ahoskera egiten da, gaztelaniazko berbera.

2.2.5.2. F

Gipuzkeraren ezaugarrien artean dago /f/ soinua ez ahoskatzea, eta bere lekuan /p/ erabiltzea (*feria* > *periya*, *afaria* > *apaiya*...). Zarautzen ere badago horren aztarna txiki bat, baina baserritar edadetuen artean bakarrik. Klean oso arraroak dira *p*-dun formak, eta kaleko hiztunek ere beti esaten dute "*hori baserritarren kontua den/k*". Salbuespen baka-rrak, eremu geografiko zabalagoa duten hitz hauek dira, (ia) beti *p*-rekin ahoskatzen baiti-tugu zarauztarrok: *pulamentu, napa, parre, alper* eta *alpapa*.

Horiez gainera, baserritarren artean beste hainbat aurkitu ditugu, besteak beste: *apesiyo* ('afizio'), *palta, pameli* ('familia'), *paillo, pronto, penomena, pulamentu, paltsu, apai* ('afari'), *desapiyo, paneka, dipuntu, pranko, peri, Pilomena, Felipe, Fernando, Aprika, opiziyo, diperentziya, puente* ('fuentea', janaria zerbitzatzekoa), *pesta, pama*...

2.2.6.- FRIKARIAK

Zarautzen, normalean, s ahoskatzen da z-ren lekuan, edo hobeto esanda, bien arteko soinu bat. Baserritar edadetuen artean oraindik ere badira z eta s bereizten duten hiztunak, baina kalean eta gazteen artean erabat galdu da.

2.2.6.1. z- > tx- afrikatzea

Zenbait hitzetan, hasierako z afrikatzeko joera dago. Hainbat adibide jaso ditugu: *txakur*, *txerri*, *txekor*, *txitxare*, *txoko*, *txintxo*, *txilbor*, *txindurri*, *txorroskillo*...

Beste zenbait hitzetan, afrikatzea hautazkoa da, eta hiztunaren arabera (edo bustiduraren balio adierazgarriaren arabera), forma batean edo bestean erabiltzen da Zarautzen: *zintzarri/txintzarri*, *zintzilik/txintzilik*, *zipriztin/txipriztin*, *zuri/txuri*, *zoro/txoro*, *zotz/txotx*...

Beste eskualde batzuetan afrikatzen diren hitz batzuk, bestalde, ez dira normalean afrikatzen Zarautzen: *ximel*, *zuzen*, *zaldun*, *xiba*, *ximur*...



2.2.7.- AFRIKATUAK

tz eta *tx* dira erabiltzen diren afrikatu bakarrak; *ts* desagertu egin da.

• **-ns-, -ls-, -rs-** eta antzeko multzoak afrikatu egiten dira

Hitz barruko taldeetan ez ezik, hitz artean ere gertatzen da Zarautzen, inguruko herrietan bezala. *Hil zan > hil'tzan; behar zuelako > ber'tzulako...*

2.2.8.- BUSTIDURAK

2.2.8.1. Adierazgarriak

Bustidura adierazgarriak oso arruntak dira Zarauzko hizkeran. Hementxe guk jasotako zenbait: *goxua, beltxa, xamurra, xamarra, xinplia, kaxkarra, koxkorra, xurra, xoxua...*

2.2.8.2. Asimilaziozkoak

	Bustidura	Salbuespena	Adibidea
n > ñ	bai, sistematikoki	i-n-i ingurunea (<i>sinistu, ipini...</i>); <i>bina</i> eta <i>seina</i> .	<i>gaiñera, oiñ, baiño, piñua, liñua,</i> <i>soiñua, eiñ, txikiña, miñ, jakiñ...</i>
l > ll⁴	bai, sistematikoki	i-l-i ingurunea <i>ibili...</i> eta zenbait mailegu: <i>motxila,</i> <i>jubilatu, alkilatu...</i>	<i>oillasko, mutilla, teillatu, abilla,</i> <i>fraille, armailla...</i>
t > tt	Baserri giroko hitzunen artean bereziki; kalean nekez		<i>seittun, beittu, dittugu, aitta, aittu,</i> <i>zittun, txikittan, hittunan, nittun, dittuk,</i> <i>jaittan, aittona, gaittun, partittu, nola-</i> <i>baitt, nunbaitt, moittu, noizpaitt...</i>
tz > tx	ez	atxur	
ts > tx	ez	<i>itxaso, itxu</i>	
z > x	batzuetan		<i>keexi/geexi, aixkora, pixtu, ixkuta-</i> <i>tu... xixkiyon, dixkat, nekixkin...</i>
s > x	bai		<i>ixilik, lixo, pixu, bixigu, ixtoria,</i> <i>aixkiria, ixkira, lixtua...</i>
d (nd, ld, td) > dd	ez		
t (nt, lt, tt) > tt, tx	ez		

⁴Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, gazteen artean oso arrunta da *-ll-* ordeze *-y-* ahoskatzea: *teiyatua, oiyaskua...*

2.2.9.- ARAU MORFOFONOLOGIKOAK

2.2.9.1. EZ + aditza:

- ez + *b-*, *d-* > *ezp-* / *ezt-*

ez badakizu > *ezpakizu*

ez dator > *eztator*

- ez + *l-* *n-* > *el-*, *en-*

ez naiz > *enaiz*

ez nekien > *enekin*

ez litzateke > *elitzake*

ez luke > *eluke*

- ez + *g-* > *ezg-*

Kasu honetan, salbuespenak salbuespen, ez dago aldaketarik.

ez genuen > *ezgenuen*

ez gara > *ezgea*

- ez + *z-* > *etz-*

ez zen > *etzan*

ez ziren > *etzian*

2.2.9.2. *n-*, *l-*, *r-* ostean afrikatuak

hil zen > *hil'tzan*

ba al zatoz > *ba al'tzatoz*

jan zuen > *jan'tzun*

behar zuen > *ber'tzun*

2.2.9.3. Adizkien hasierako *d-* galtzea

Aditz laguntzailearen hasierako *d-* sarri galtzen da ahozko jardun arinean:

hartu det > *hartu'et*

ekarriko dezu > *ekarriko'zu*

emango didazu > *emango'iazu*

2.2.9.4. Ba- + dV- > baV

jaten badezue > jaten ba'ezue
ikusten baden > ikusten ba'en
iristen badira > iristen ba'ia

2.2.9.5. behar > be(e)r / bia(r)

Oro har, Zarautzen, *behar* > *ber* aldaera gertatzen da. Bilakaera hori, gainera, arau oro-korra da gazte jendearen artean.

egin behar dugu > in ber deu

Hala ere, nagusienei egindako bilketetan *behar* > *bia(r)* bilakaera ere agertzen da, beharbada baserri giroan gehiago.

Zer behar duk? > ze bia(r) dek?

Ez dirudi, dena dela, aldaera bien artean arau markaturik dagoenik.

2.2.9.6. Aditz nagusiaren ohiko aspektuaren -n galtzea

Aditz nagusiak -tzen/-ten marka badu, ia-ia aditz laguntzaile guztiekin gertatzen da.

ikusten ziren > ikuste zian
ikusten ditugu > ikuste'itugu
jaten nituen > jate nitun

3

Izenaren morfologia

3.1. Deklinabidea

3.1.1.- IZENEN DEKLINABIDE-TAULAK

3.1.1.1. Izen arrunt bizigabeen deklinabide-taulak

1. Mugagabea

	errota	kale	mendi	itsaso	buru	haritz
Nominatiboa	errota	kale	mendi	itsaso	buru	haritz
Partitiboa	errotai ^(an)	kalei ^(an)	mendi ^(an)	itsaso ^(an)	burui ^(an)	haritz ^(an)
Ergatiboa	errotak	kalek	mendik	itsasok	buruk	haritzek
Datiboa	errotai ⁵	kalei	mendii	itsasoi	burui	haritzei
Genitiboa	errotan	kalen	mendin	itsason	burun	haritzen
Instrumentala	errotaz	kalez	mendiz	itsasoz	buruz	haritzez
Soziatiboa	errotakin	kalekin	mendikin	itsasokin	burukin	haritzekin
Motibatiboa	errota ^{(ng)atik} (an)	kale ^{(ng)atik} (an)	mendi ^{(ng)atik} (an)	itsaso ^{(ng)atik} (an)	buru ^{(ng)atik} (an)	haritze ^{(ng)atik} (an)
Destinatiboa*	errotantzat errotantzako	kalentzat kalentzako	mendintzat mendintzako	itsasontzat itsasontzako	buruntzat buruntzako	haritzentzat haritzentzako
Prolatiboa	errotatzat	kaletzat	menditzat	itsasotzat	burutzat	haritztat haritzat
Leku-genitiboa	errotatako	kaletako	menditako	itsasotako	burutako	haritzetako
Inesiboa	errotatan	kaletan	menditan	itsasotan	burutan	haritzetan
Ablatiboa	errotatetik ^(an)	kaletatik ^(an)	menditatik ^(an)	itsasotatik ^(an)	burutatik ^(an)	haritzetatik ^(an)
Adlatiboa	errotata ^(ra)	kaleta ^(ra)	mendita ^(ra)	itsasota ^(ra)	buruta ^(ra)	haritzeta ^(ra)
Muga-adlatiboa	errotata ^{(ra)iño}	kaleta ^{(ra)iño}	mendita ^{(ra)iño}	itsasota ^{(ra)iño}	buruta ^{(ra)iño}	haritzeta ^{(ra)iño}
Hurbiltze- -adlatiboa**	errotata ^{(ra)ka}	kaleta ^{(ra)ka}	mendita ^{(ra)ka}	itsasota ^{(ra)ka}	buruta ^{(ra)ka}	haritzeta ^{(ra)ka}

⁵ -a bukaera duten hitzen deklinabidea berezia da mugagabeen. Izan ere, bukaerako -a hori ezegonkorra denez, askotan a/e alternantziak gertatzen dira. Esate baterako, datiboa: *gauzai/gauzei, kartzelai/kartzelei*, eta abar.

* Destinatiboa: -tzat/-tzako

Destinatiboan bi aldaera erabiltzen dira Zarautzen, baina bigarrena da nagusi, hiltun eda-detuenen artean, bederen. Esate baterako:

*Mahaian gaiñian sei errial, ta jesus, amak zea, famili **danantzako** euneko ogiya, sei errialekin, pentsa zazu ta, hamabi lagun o eongo giñan.*

(Xantos Leunda)

*Ta jarri zun entrada lehen hiru zeakin, eskolak bihiak jostatzeko ebiya zanian ta. Ta, geo zitun bi piso: bat **mútilantzako** ta bestia **néskantzako**.*

(Xantos Leunda)

** Hurbiltze-adlatiboa: -untz(a)

Zarautzen oso-oso gutxi erabiltzen da hurbiltze adlatiboa. Erakusleekin eta kasu konkretu batzuetan bakarrik (*hauntza*, *honuntza*...). Adibidez:

*Bai, porke Frailetatikan **hauntza're** ez zan ezer, e. Dana txaletak eta dana, zea, Frailetako... San Francisco kaletikan herrira, paso nibeletikan herrira, eta...*

(Joxe Ezenarro)

*Maietz-kulixka. Bai, bai, bai, bai. Ta hori, aurten'e, urtero-urtero-urtero-urtero maietzian golian azalduko da bandaa bat. Iten dia kosta jetsi, gora iyo, atzea **hauntza** jun, atzea etorri, hortxe ibiliko dia.*

(Ander Alberdi)

Gainerako kasuetan, hurbiltze-adlatiboa adierazteko adlatibo arrunta erabiltzen da (*etxe-runtz* > *etxera*; *goruntz* > *gora*), edo bestela adlatibo horri *-ka* atzizkia gehitzen zaio: *etxea-ka*, *beheraka*, *goraka*...

*** Azentuaren balio bereizlea: singularra eta plurala

Zarautzen azentua desberdina da singularreko eta pluraleko kasuetan, eta kasu askotan azentuaren bidez bakarrik bereizten dira singularreko eta pluraleko formak. Pluraleko kasuetan azentua aurreratu egiten da. Esaterako:

alábakin: singularra álabakin: plurala

anáiakín: singularra ánaiakin: plurala

*Laundu zien, **lágunai** esan niyen aldamenen...*

(Manoli Olaizola)

*Hamalau-hamabost urteako, fundiziyuan **gízonakin** lanian zabillen hua.*

(Manoli Olaizola)

*Ta jarri zun entrada lehen hiru zeakin, eskolak bihiak jostatzeko ebiya zanian ta. Ta, geo zitun bi piso: bat **mútilantzako** ta bestia **néskantzako**.*

(Xantos Leunda)

**** Mugatzailearen asimilazioa:

Urola kostako hainbat eremutan, indartsua da mugatzailearen asimilazioa, batez ere nominatibo pluralean (*etxek* vs. *etxeak*) eta inesiboan (*etxen*, *etxin* vs. *etxean*). Zarautzen bi eremu bereiztu behar dira. Ezaugarri hori bazterrekoa da kaletarren artean eta, horren lekuko, zarautzarrek Orioko hiztunei txantxetan esaten dieten esaldi hau: “*Orioko karamelok, merkek eta goxok*” (eta antzera, zestoarrek aizarnarrei: “*Aizarnakok, txanpon baten karamelok*”). Baina kaletarren artean ezezaguna den asimilazio hori, oso zabaldua dago Zarauzko baserri-tarren artean, baita herritik hurbilen dauden baserrietan ere, eta maiz entzungo ditugu forma asimilatuak: *mendiñ* (‘mendian’), *kalen* (‘kalean’), *katuk* (‘katuak’), *zorrik* (‘zorriak’), eta abar.

2. Mugatu singularra

	errot	kale	mendi	itsaso	buru	haritz
Nominatiboa	errot	kalia	mendiya	itsasua	burua	haritza
Partitiboa	—	—	—	—	—	—
Ergatiboa	errotak	kaliak	mendiyak	itsasuak	buruak	haritzak
Datiboa	errotai	kaliai	mendiyai	itsasuai	buruai	haritzai
Genitiboa	errotan	kalian	mendiyan	itsasuan	buruan	haritzan
Instrumentala	errotaz	kaliaz	mendiyaz	itsasuaz	buruaz	haritzaz
Soziatiboa	errotakin	kaliakin	mendiyakin	itsasuakin	buruakin	haritzakin
Motibatiboa	errot(ng)atik(an)	kalia(ng)atik(an)	mendiya(ng)atik(an)	itsasua(ng)atik(an)	burua(ng)atik(an)	haritza(ng)atik(an)
Destinatiboa	errotantzat errotantzako	kaliantzat kaliantzako	mendiyantzat mendiyantzako	itsasuantzat itsasuantzako	buruantzat buruantzako	haritzantzat haritzantzako
Prolatiboa	—	—	—	—	—	—
Leku-genitiboa	errotako	kaleko	mendiko	itsasoko	buruko	haritzeko
Inesiboa	errotan	kalian	mendiyan	itsasuan	buruan	haritzian
Ablatiboa	errotatik(an)	kaletik(an)	menditik(an)	itsasotik(an)	burutik(an)	haritzetik(an)
Adlatiboa	errot(ra)	kale(r)a	mendi(r)a	itsaso(r)a	buru(r)a	haritze(r)a
Muga-adlatiboa	errot(ra)íño	kale(r)aiño	mendi(r)aiño	itsaso(r)aiño	buru(r)aiño	haritze(r)aiño
Hurbiltze-adlatiboa	errot(ra)ka	kale(r)aka	mendi(r)aka	itsaso(r)aka	buru(r)aka	haritze(r)aka

3. Mugatu plurala

	errota	kale	mendi	itsaso	buru	haritz
Nominatiboa	errotak	kaliak	mendiyak	itsasuak	buruak	haritzak
Partitiboa	—	—	—	—	—	—
Ergatiboa	errotak	kaliak	mendiyak	itsasuak	buruak	haritzak
Datiboa	errotai	kali <i>ai</i>	mendi <i>yai</i>	itsasu <i>ai</i>	buru <i>ai</i>	haritz <i>ai</i>
Genitiboa	errotan	kali <i>an</i>	mendi <i>yan</i>	itsasu <i>an</i>	buru <i>an</i>	haritz <i>an</i>
Instrumentala	—	—	—	—	—	—
Soziatiboa	errotakin	kali <i>akin</i>	mendi <i>yakin</i>	itsasu <i>akin</i>	buru <i>akin</i>	haritz <i>akin</i>
Motibatiboa	errotangatik(an)	kaliangatik(an)	mendiyangatik(an)	itsasuangatik(an)	buruangatik(an)	haritzangatik(an)
Destinatiboa	errotantzat errotantzako	kaliantzat kaliantzako	mendiyantzat mendiyantzako	itsasantzat itsasantzako	buruantzat buruantzako	haritzantzat haritzantzako
Prolatiboa	—	—	—	—	—	—
Leku-genitiboa	errotetako	kaletako	menditako	itsasotako	burutako	haritzetako
Inesiboa	errotetan	kaletan	menditan	itsasotan	burutan	haritzetan
Ablatiboa	errotetatik(an)	kaletatik(an)	menditatik(an)	itsasotatik(an)	burutatik(an)	haritzetatik(an)
Adlatiboa	erroteta(ra)	kaleta(ra)	mendita(ra)	itsasota(ra)	buruta(ra)	haritzeta(ra)
Muga-adlatiboa	erroteta(ra)íño	kaleta(ra)íño	mendita(ra)íño	itsasota(ra)íño	buruta(ra)íño	haritzeta(ra)íño
Hurbiltze-adlatiboa	erroteta(ra)ka	kaleta(ra)ka	mendita(ra)ka	itsasota(ra)ka	buruta(ra)ka	haritzeta(ra)ka

3.1.1.2. Izen arrunt bizidunen deklinabide-taulak

1. Mugagabea

	alaba	seme	gizon
Nominatiboa	alaba	seme	gizon
Partitiboa	alabaik(an)	semeik(an)	gizonik(an)
Ergatiboa	alabak	semek	gizonek
Datiboa	alabai	semei	gizonei
Genitiboa	alaban	semen	gizonen
Soziatiboa	alabakin	seme <i>kin</i>	gizone <i>kin</i>
Motibatiboa	alaba(ng)atik(an)	seme(ng)atik(an)	gizone(ng)atik(an)
Destinatiboa	alabantzat alabantzako	sementzat sementzako	gizonentzat gizonentzako
Prolatiboa	alabatzat	semetzat	gizontzat
Inesiboa	alaba(ng)an	seme(ng)an	gizone(ng)an
Ablatiboa	alaba(ng)andik(an)	seme(ng)andik(an)	gizone(ng)andik(an)
Adlatiboa	alaba(nga)na	seme(nga)na	gizone(nga)na
Muga-adlatiboa	alaba(ng)anaíño	seme(ng)anaíño	gizone(ng)anaíño

2. Mugatu singularra

	alaba	seme	gizon
Nominatiboa	alaba	semia	gizona
Partitiboa	—	—	—
Ergatiboa	alabak	semiak	gizonak
Datiboa	alabai	semiai	gizonai
Genitiboa	alaban	semian	gizonan
Soziatiboa	alabakin	semiakin	gizonakin
Motibatiboa	alaba(ng)atik(an)	semia(ng)atik(an)	gizona(ng)atik(an)
Destinatiboa	alabantzat alabantzako	semiantzat semiantzako	gizonantzat gizonantzako
Prolatiboa	—	—	—
Inesiboa	alaba(ng)an	semia(ng)an	gizona(ng)an
Ablatiboa	alaba(ng)andik(an)	semia(ng)andik(an)	gizona(ng)andik(an)
Adlatiboa	alaba(ng)ana alabana	semia(ng)ana semiana	gizona(ng)ana gizonana
Muga-adlatiboa	alaba(ng)anaiaño	semia(ng)anaiaño	gizona(ng)anaiaño

3. Mugatu plurala

	alaba	seme	gizon
Nominatiboa	alabak	semiak	gizonak
Partitiboa	—	—	—
Ergatiboa	alabak	semiak	gizonak
Datiboa	alabai	semiai	gizonai
Genitiboa	alaban	semian	gizonan
Soziatiboa	alabakin	semiakin	gizonakin
Motibatiboa	alaba(ng)atik(an)	semia(ng)atik(an)	gizona(ng)atik(an)
Destinatiboa	alabantzat alabantzako	semiantzat semiantzako	gizonantzat gizonantzako
Prolatiboa	—	—	—
Inesiboa	alaba(ng)an	semia(ng)an	gizona(ng)an
Ablatiboa	alaba(ng)andik(an)	semia(ng)andik(an)	gizona(ng)andik(an)
Adlatiboa	alaba(ng)ana alabana	semia(ng)ana semiana	gizona(ng)ana gizonana
Muga-adlatiboa	alaba(ng)anaiaño	semia(ng)anaiaño	gizona(ng)anaiaño

3.1.1.3. Pertsona-izenen deklinabide-aula

	Amaia	Ane	Xabi	Imanol
Nominatiboa	Amaia	Ane	Xabi	Imanol
Partitiboa	Amaiaik(an)	Aneik(an)	Xabi(r)ik(an)	Imanolik(an)
Ergatiboa	Amaiak	Anek	Xabik	Imanolek
Datiboa	Amaiai	Anei	Xabi(r)i	Imanolei
Genitiboa	Amaian	Anen	Xabin	Imanolen
Soziatiboa	Amaiakin	Anekin	Xabikin	Imanolekin
Motibatiboa	Amaia(ng)atik(an)	Ane(ng)atik(an)	Xabi(ng)atik(an)	Imanole(ng)atik(an)
Destinatiboa	Amaiantzat	Anentzat	Xabintzat	Imanolentzat
	Amaiantzako	Anentzako	Xabintzako	Imanolentzako
Inesiboa	Amaia(ng)an	Ane(ng)an	Xabi(ng)an	Imanole(ng)an
Ablatiboa	Amaia(ng)andik(an)	Ane(ng)andik(an)	Xabi(ng)andik(an)	Imanole(ng)andik(an)
Adlatiboa	Amaia(ng)ana	Ane(ng)ana	Xabi(ng)ana	Imanole(ng)ana
	Amaiana	Anena	Xabina	Imanolena
Muga-adlatiboa	Amaia(ng)anaiaño	Ane(ng)anaiaño	Xabi(ng)anaiaño	Imanole(ng)anaiaño

3.1.1.4. Leku-izenen deklinabide-aula

	Donostia	Añorga	Azpeitia	Lasarte	Oñati	Eibar	Zarautz
Nominatiboa	Donosti	Añorga	Azpeiti	Lasarte	Oñati	Eibar	Za(r)autz(a)
Ergatiboa	Donostik	Añorgak	Azpeitik	Lasartek	Oñatik	Eibarrek	Za(r)autza/ek
Datiboa	Donosti(r)i	Añorgai	Azpeiti(r)i	Lasartei	Oñati(r)i	Eibarrei	Za(r)autza/ei
Jabetza-genitiboa	Donostin	Añorgan	Azpeitin	Lasarten	Oñatin	Eibarren	Za(r)autza/en
Soziatiboa	Donostikin	Añorgakin	Azpeitikin	Lasartekin	Oñatikin	Eibarrekin	Za(r)autza/ekin
Motibatiboa	Donosti(ng)atik(an)	Añorga(ng)atik(an)	Azpeiti(ng)atik(an)	Lasarte(ng)atik(an)	Oñati(ng)atik(an)	Eibare(ng)atik(an)	Za(r)autza/e(ng)atik(an)
Destinatiboa	Donostintzat	Añorgantzat	Azpeitintzat	Lasartentzat	Oñatintzat	Eibarrentzat	Za(r)autza/entzat
	Donostintzako	Añorgantzako	Azpeitintzako	Lasartentzako	Oñatintzako	Eibarrentzako	Za(r)autza/entzako
Leku-genitiboa	Donostiko	Añorgako	Azpeitiko	Lasarteko	Oñatiko	Eibarko	Za(r)autzako Za(r)auzko
Inesiboa	Donostin	Añorgan	Azpeitin	Lasarten	Oñatin	Eibarren	Za(r)autza/en
Ablatiboa	Donostitik	Añorgatik	Azpeititik	Lasartetik	Oñatitik	Eibartik	Za(r)auztik
Adlatiboa	Donosti(r)a	Añorga(r)a	Azpeiti(r)a	Lasarte(r)a	Oñati(r)a	Eibarr(e)(r)a	Za(r)autz(e)a
Muga-adlatiboa	Donosti(r)aiño	Añorga(r)aiño	Azpeiti(r)aiño	Lasarte(r)aiño	Oñati(r)aiño	Eibarr(e)(r)aiño	Za(r)autz(e)aiño

3.2.1.2. Erakusle indartuak

1. Singularra

	hau	hori	hura
Nominatiboa	hauxe	hoixe	huaxe
Ergatiboa	honetxek	horretxek	haretxek
Datiboa	honetxei	horretxei	haretxei
Jabetza-genitiboa	honetxen	horretxen	haretxen
Soziatiboa	honetxekin	horretxekin	haretxekin
Destinatiboa	honetxentzat honetxentzako	horretxentzat horretxentzako	haretxentzat haretxentzako
Motibatiboa	honetxe(ng)atik(an)	horretxe(ng)atik(an)	haretxe(ng)atik(an)
Leku-genitiboa	honetxetako	horretxetako	haretxetako
Inesiboa	honetxetan	horretxetan	haretxetan
Ablatiboa	honetxetatik(an)	horretxetatik(an)	haretxetatik(an)
Adlatiboa	honetxeta(a)	horretxeta(a)	haretxeta(a)
Muga-adlatiboa	honetxeta(a)iño	horretxeta(a)iño	haretxeta(a)iño

2. Plurala

	hauek	horiek	haiek
Nominatiboa	hauetxek ⁸	hoietxek	haietxek
Ergatiboa	hauetxek	hoietxek	haietxek
Datiboa	hauetxei	hoietxei	haietxei
Jabetza-genitiboa	hauetxen	hoietxen	haietxen
Soziatiboa	hauetxekin	hoietxekin	haietxekin
Destinatiboa	hauetxentzat hauetxentzako	hoietxentzat hoietxentzako	haietxentzat haietxentzako
Motibatiboa	hauetxe(ng)atik(an)	hoietxe(ng)atik(an)	haietxe(ng)atik(an)
Leku-genitiboa	hauetxetako	hoietxetako	haietxetako
Inesiboa	hauetxetan	hoietxetan	haietxetan
Ablatiboa	hauetxetatik(an)	hoietxetatik(an)	haietxetatik(an)
Adlatiboa	hauetxeta(a)	hoietxeta(a)	haietxeta(a)
Muga-adlatiboa	hauetxeta(a)iño	hoietxeta(a)iño	haietxeta(a)iño

⁸ Erakusle indartuen kasuan ere, *habetxek*, *habetxei*, *habetxen*... tankerako formak azaltzen dira Zarautzen, nahiz eta forma arruntak taulakoak izan.

3.2.2.- ZENBATZAILEAK

Zenbatzaileek determinatzaile-sintagmaren zenbatasuna adierazten dute. Hiru sail bereiz daitezke: 1) zenbatzaile zehaztuak edo numeralak; 2) zenbatzaile zehaztugabeak; 3) zenbatzaile orokorrak.

Zenbatzaile zehaztuak	Zenbatzaile zehaztugabeak	Zenbatzaile orokorrak
bat, bi, hiru... bana, bina, hiruna, seina...	asko ⁹ , gutxi, batzuk, hainbat, honenbeste, horrenbeste, hainbeste, ugari, zenbait, nahikua, morduak, gehiegi, gehio, gutxiyo, pixkat, pilla bat, makiña bat / majiñat, hamaika, mordoxka, pranko ...	guzti, oso, dana

3.2.2.1. Bat eta batzuk

	bat	batzuk
Nominatiboa	bat	batzuk
Ergatiboa	batek	batzu(e)k
Datiboa	batei	batzu(e)i
Jabetza-genitiboa	baten	batzu(e)n
Soziatiboa	batekin	batzu(e)kin
Motibatiboa	batentzat / batentzako	batzu(e)ntzat / batzu(e)ntzako
Destinatiboa	bate(g)atik(an)	batzu(e)(g)atik(an)
Leku-genitiboa	bateko	batzu(e)tako
Inesiboa	batian	batzu(e)tan
Ablatiboa	batetik(an)	batzu(e)tatik(an)
Adlatiboa	bate(r)a	batzu(e)ta(ra)
Muga-adlatiboa	bate(r)aiño	batzu(e)taiño

⁹ Aipatzekoa da, asko zenbatzailea deklinatzeko orduan, zenbait hitzunik pluraleko deklinabidea eranstean diotela, gehienbat izenordain gisa azaltzen direnean: askoek, askoekin, askoei, eta abar. Adibidez: Azken Portun jaiotakua, igeian ez dakiye **askoek**, Zarautzen jaiota. (Pio Illarramendi)

3.3. IZENORDAINAK

3.3.1.- PERTSONA-IZENORDAINAK

Pertsona-izenordain arruntak	Pertsona-izenordain indartuak
Ni	Neu / neoni
Hi	Heu
Hua / bea	Bea
Gu	Geu / geoni
Zu	Ze
Zuek	Zeuek
Haiek / beak	Beak / beaiek (?)

Pertsona-izenordain indartuak ez dira asko erabiltzen Zarautzen. Adibide gutxi jaso ditugu, eta batez ere nagusien ahotan. Belaunaldi gazteenetan badirudi galzorian daudela.

Bestalde, 3. pertsonako forma indartuak arrunt bezala erabiltzen dira askotan (*bea* eta *beak* erabiltzen dira *hua* eta *haiek* erabili beharrean).

Taulan ikusten den bezala, izenordain indartuak sortzeko bi eredu daude Zarautzen: ekialderagokoa (*neoni*, *geoni*...) eta mendebaleragokoa (*neu*, *zeu*, *geu*...). Zarautzen azken horiek dira gehien erabiltzen direnak, alde handiarekin, erabili ere. Ekialdeko ereduak batez ere ergatiboan erabiltzen direla dirudi, eta lehenengo pertsonan dira erabiltzen diren forma bakarrak (singularrean, *ne(r)onek*, zein pluralean, *ge(r)onek*). Normalean, beraz, *neu* tankerakoak erabiltzen dira, bai nominatiboan, baita genitiboan ere.

Hementxe dituzue jaso ahal izan ditugun zenbait adibide:

*Hantxe eoten giñanan hirurok hartzen kafesnia, **geure** galletakin.*
(Joxepa Antoni Aristi)

*Ba... Ibili nuan urte askuan aítak iña, **neure** aítak iña. Oso mañosua huan lanian ta. Eta txalupa **beak** in ziyan taillarrian. Txoko batian, neguan.*
(Juan Agoues)

*Nik ez dakat, aizu, zea, goorapenik, nik **neuk**.*
(Feli Arruti)

*Katxibatxikuak egokitu zian kuadrilla bat, hartu zuen boseua, hartu zuen atletismoko gai guztiyak, arrauna're hartu zuen, eta zea, ta orduan, **neu're** pixkat haiekin ibili nitzan.*
(Inaxio Lertxundi)

Neonek neure aitonari aituta.

(Balero Odriozola)

*Baiño hola karrereta ta juteko zeaik ez nun nik. Ya, **neonek** bakarrikan ta, ibilli bizikletan hara ta honea.*

(Bonifacio Mutiozabal)

*lñork zeaik ez gendun eukitzen guk, **geuk, geonek** preziyok in, jartzen giñun hiru komisiyokok hiru jartzen giñan, hiru, bai, jartzen giñan ta, bai, preziyua in geo.*

(Antonio Eizagirre)

*Horko balkoitako harri earrak **neuk** jaso nitun, hemezortzi urte izango nitun, hamen San Pelaioko etxia in zanian.*

(Xantos Leunda)

	ni	hi	hua	gu	zu	zuek	haiek
Nominatiboa	ni	hi	hua	gu	zu	zuek	haiek
Ergatiboa	nik	hik	harek/hark	guk	zuk	zuek	haiek
Datiboa	nei	hiri	harei/hari	guri	zuri	zuei	haiei
Jabetza-genitiboa	ne(r)e	hire	haren	gure	zure	zuen	haien
Soziatiboa	ne(r)ekin	hirekin	harekin	gurekin	zurekin	zuekin	haiekin
Destinatiboa	ne(r)etzat ne(r)etzako	hiretzat hiretzako	harentzat harentzako	guretzat guretzako	zuretzat zuretzako	zuentzat zuentzako	haientzat haientzako
Motibatiboa	ne(r)e(g)atik(an)	hire(g)atik(an)	hare(ng)atik(an)	gure(g)atik(an)	zure(g)atik(an)	zue(ng)atik(an)	haie(ng)atik(an)
Ablatiboa	ne(r)e(g)andik(an)	hire(g)andik(an)	hare(ng)andik(an)	gure(g)andik(an)	zure(g)andik(an)	zue(ng)andik(an)	haie(ng)andik(an)
Adlatiboa	ne(r)e(g)ana nerena	hire(g)ana hirena	hare(ng)ana harena	gure(g)ana gurena	zure(g)ana zurena	zue(ng)ana zuena	haie(ng)ana haiena
Muga-adlatiboa	ne(r)e(g)anaíño	hire(g)anaíño	hare(ng)anaíño	gure(g)anaíño	zure(g)anaíño	zue(ng)anaíño	haie(ng)anaíño

	bea	beak	beaiek
Nominatiboa	bea	beak	beaiek
Ergatiboa	beak	beak	beaiek
Datiboa	beai	beai	beaiei
Jabetza-genitiboa	bean	bean	beaien
Soziatiboa	beakin	beakin	beaiekin
Destinatiboa	beantzat beantzako	beantzat beantzako	beaientzat beaientzako
Motibatiboa	bea(ng)atik(an)	bea(ng)atik(an)	beaie(ng)atik(an)
Ablatiboa	bea(ng)andik(an)	bea(ng)andik(an)	beaie(ng)andik(an)
Adlatiboa	bea(ng)ana	bea(ng)ana	beaie(ng)ana
Muga-adlatiboa	bea(ng)anaíño	bea(ng)anaíño	beaie(ng)anaíño

Berau eta beorri

	beorri
Nominatiboa	beorri
Ergatiboa	beorrek
Datiboa	beorri
Jabetza-genitiboa	beorren
Soziatiboa	beorrekin
Destinatiboa	beorrentzat / beorrentzako
Motibatiboa	beorre(ng)aitik
Ablatiboa	beorre(ng)andik
Adlatiboa	beorrena

Ez da erabiltzen gaur egun. Lehen aitonarengana zuzentzeko, euren gurasoek gurasoei... Apaizari ere berorika hitz egiten zitzaion (eta medikuari, maisuari...), errespetua adierazteko.

Genitibozko izenordainak

Arruntak	Indartuak	Bihurkariak
nere	neure	neure
hire	heure	heure
haren / bean	bean / bere	bere
gure	geure	geure
zure	zeure	zeure
zuen	zeuen	zeuen
haien / bean / been	bean / beaien	bean / beaien

3.3.2.- IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK

Galderazko izenordainak	Galderazko izenordainetatik eratorritakoak
(NOR) ez da erabiltzen	IÑOR, NORBAIT
ZEIN	EDOZEIN
ZER	EDOZER, ZERA, EZER, ZERBAIT, ZEOZER

3.3.2.1. Galderazko izenordainak: *zein* eta *zer*

	zein	zer
Nominatiboa	zein	zer
Ergatiboa	zeiñek ¹⁰	zerrek
Datiboa	zeiñei	zerrei
Jabetza-genitiboa	zeiñen	zerren
Soziatiboa	zeiñekin	zerrekin
Destinatiboa	zeiñentzat / zeiñentzako	zerrentzat / zerrentzako
Motibatiboa	zeiñe(ng)atik(an)	zerre(ng)atik(an)
Ablatiboa	zeiñe(ng)andik(an)	zerre(ng)andik(an)
Adlatiboa	zeiñe(ng)ana / zeiñena	zerre(ng)ana / zerrena
Muga-adlatiboa	zeiñe(ng)anaiño	zerre(ng)anaiño

Zeintzuk eta bere paradigma oso gutxi erabiltzen dira Zarautzen. Pluralerako ere *zein* oinarri duten formak erabiltzen dira.

¹⁰ Taulako eredu orokorrekin batera, bustidurarik gabeko formak ere erabiltzen dira Zarautzen: *zenek, zenekin, zenentzako...*

3.3.2.2. Galderazko izenordainetatik eratorritakoak

	iñork	norbait
Nominatiboa	iñor	norbait
Ergatiboa	iñorrek	norbaitek
Datiboa	iñorrei	norbaitei
Jabetza-genitiboa	iñorren	norbaiten
Soziatiboa	iñorrekin	norbaitekin
Destinatiboa	iñorrentzat / iñorentzako	norbaitentzat/norbaitentzako
Motibatiboa	iñorre(ng)atik(an)	norbaite(ng)atik(an)
Ablatiboa	iñorre(ng)andik(an)	norbaite(ng)andik(an)
Adlatiboa	iñorre(ng)ana / iñorrena	norbaite(ng)ana/norbaitena
Muga-adlatiboa	iñorre(ng)anaiño	norbaite(ng)anaiño

	edozein
Nominatiboa	edozein
Ergatiboa	edozeiñek
Datiboa	edozeiñei
Jabetza-genitiboa	edozeiñen
Soziatiboa	edozeiñekin
Destinatiboa	edozeiñentzat / edozeiñentzako
Motibatiboa	edozeiñe(ng)atik(an)
Ablatiboa	edozeiñe(ng)andik(an)
Adlatiboa	edozeiñe(ng)ana / edozeiñena
Muga-adlatiboa	edozeiñe(ng)anaiño

	edozer	zera	ezer	zerbait	zeozer
Nominatiboa	eozer	zea	ezer	zerbait	zeozer
Ergatiboa	eozerrek	zeak	ezerrek	zerbaitek	zeozerrek
Datiboa	eozerrei	zeai	ezerrei	zerbaitei	zeozerrei
Jabetza-genitiboa	eozerren	zean	ezerren	zerbaiten	zeozerren
Soziatiboa	eozerrekin	zeakin	ezerrekin	zerbaitekin	zeozerrekin
Destinatiboa	eozerrentzat eozerrentzako	zeantzat zeantzako	ezerrentzat ezerrentzako	zerbaitentzat zerbaitentzako	zeozerrentzat zeozerrentzako
Motibatiboa	eozerre(ng)atik(an)	zea(ng)atik(an)	ezerre(ng)atik(an)	zerbaite(ng)atik(an)	zeozerre(ng)atik(an)
Ablatiboa	eozerre(ng)andik(an)	zea(ng)andik(an)	ezerre(ng)andik(an)	zerbaite(ng)andik(an)	zeozerre(ng)andik(an)
Adlatiboa	eozerre(ng)ana eozerrena	zea(ng)ana zeana	ezerre(ng)ana ezerrena	zerbaite(ng)ana zerbaitena	zeozerre(ng)ana zeozerrena
Muga-adlatiboa	eozerre(ng)anaiño	zea(ng)anaiño	ezerre(ng)anaiño	zerbaite(ng)anaiño	zeozerre(ng)anaiño

Iñor eta ezer

Inguruko euskalki guztietan bezala, arruntak dira Zarautzen ere.

*Lehen*o **iñor** ez zeon, baiño oan listiñian asko azaltzen gea.
(Jesus Mari Kaperotxipi)

*Hoiek hondartza dana garbitzen due. Hoiek ez due **ezer** lagatzen.*
(Juan Agoues)

Zerbait tankerakoak

Izenordain galdetzailea + *bait*- egitura nahiko ohikoa da: *norbait*, *zerbait*, *nunbait*, *noizbait*, *nolabait*... Ez da gehiegi erabiltzen, baina ezaguna da hiztun guztientzat.



Zeozer (zer edo zer)

Segida honen barruan, gehien erabiltzen direnak ondorengo hirurak dira, batez ere aurrenekoa: *zeozer* ('zer edo zer'), *noizonoiz* ('noiz edo noiz') eta *nunonun* ('non edo non'). Beste zenbait ere ezagunak dira: *nunundik* ('non edo nondik'), eta *nuanua* ('nora edo nora'). *Nor* izenordainarekin sortutakoak, berriz, ez dira erabiltzen Zarautzen (*nonor*, *nonori*...)

Edonor, edozein, edozer

Edozein arrunta da, eta *edozer* ere ezaguna (batez ere belaunaldi gazteen artean). Besteak ez (*edonun*, *edonor*, *edonoiz*, *edonora*...). Horien lekuan *edozein* partikularekin sortutako perifrasiak erabiltzen dira: *edozein leku* (*edonon*), *edozein lagun* (*edonor*), *edozein momentutan* (*edonoiz*), *edozein lekutara* (*edonora*)...

Batenbat (bat edo bat)

Segida osoa dago Zarautzen: *batenbat*, *batenbatekin*, *batenbatengana*, *batenbatetik*, *batenbatera*...

3.3.3.- IZENORDAIN ELKARKARIAK ETA BIHURKARIAK

Alkar

	alkar
Nominatiboa	alkar
Datiboa	alkarrei
Jabetza-genitiboa	alkarren
Soziatiboa	alkarrekin
Destinatiboa	alkarrentzat / alkarrentzako
Motibatiboa	alkarre(ng)atik(an)
Ablatiboa	alkarre(ng)andik(an)
Adlatiboa	alkarre(ng)ana

3.4. Postposizio askeak

Besteak beste, ondorengoak aurkitu ditugu elkarriketatutako hiztunen artean:

albulan, aldamenian, alde, aldian, aldera, aldetik, antzera, aparte, arte, artian, artetik, aurrian, azpiyan, barru, behera, bitartez, bitartian, esker(rak), esku, frentian, gabe, gaiñian, gora, inguru, inguru(a)n, kanpo(r)a, kontra, mo(d)uan, onduan, ostian, parian, zihar...

3.5. Adjetiboak mailakatzeko partikulak eta atzizkiak

3.5.1.- MAILA-ADITZONDOAK

Talde honetakoak dira, besteak beste:

oso, nahiko, benetan, ziharo, guztiz, hain, askua...

3.5.2.- EN, -A(G)O ETA -E(G)I ATZIZKIAK

Talde honetakoak dira, bestalde:

Gehientasuna: -en

*Tratoreik **haundiyena** guk gendun.*

*Txakoliñik **goxuena** beste hoiek iten zuen.*

Gehiagotasuna: -a(g)o

*Korrikan bestiak gu baiño **azkarrauak** zian.*

*Makina **modernuauak** ekarri zituen, ta guri kalte.*

Gehiegitasuna: -e(g)i

*Zapata **gogorregiyak** ez zian onak izaten laneako.*

***Gaztegiya! Gaztegiya** nitzan ni politikan jarduteko!*

3.5.3.- ATZIZKI TXIKIGARRIAK ETA HANDIGARRIAK

-TXO txikigarria: *etxetxua*, *txikitxua*... Beste hizkera batzuetako -xe ez da erabiltzen Zarautzen (*txikixea*, *handixea*...). Hala ere, mailakatzailleekin bai erabiltzen da -xe atzizkia: *aurreaxio*, *atzeaxio*, *gaztexio*..

-KOTE handigarria: *haundikote*, *lodikote*, *sendokote*, *zabalkote*...

-(T)ZAR handigarria: *basarrizar*, *liburuzar*.



4

Aditzaren morfologia

4.1. Aditza

4.1.1.- HITANOKO ADIZKI BEREZIAK

Gipuzkoako beste hainbat tokitan bezala, Zarautzen ere hitanoko adizki bereziak agertzen dira: *natxiok* ('nagok') / *natxiak* ('noak') / *natxatorrek* ('natorrek') / *natxabillek* ('nabilek').

4.1.2.- AHALERA GALDU EGIN DA

Ahalera oso gutxi erabiltzen da. Edo, hobeto esanda, nagusien artean gutxi, eta gazteen artean batere ez. Belaunaldi nagusien artean oraindik ere entzun daitezke *leike*, *neike*, *lezake*, *leizake*... tankerako adizkiak, baina gazteagoek (eta baita nagusi gehienek ere), nominalizazioaren bitartez osatzen dituzte horrelako esaldiak, aditz-sail guztietan:

Nork:	<i>jutia badakat</i>
Nor-Nori:	<i>nei pasatzia bado</i>
Nor-Nork:	<i>itia badakat</i>
Nor-Nori-Nork:	<i>beai ematia badakat</i>

Ahaleraren aztarrena egitura lexikalizatu gutxi batzuetan agertzen da, esate baterako, *leikena da...* ('baliteke') bezalako egitura batzuetan.

4.1.3.- IZANDU TANKERAKO ADITZ GUTXI

Gipuzkoa sortaldeko beste inguru batzuetan gertatzen denaren aurka, Zarautzen *izandu*, *ibildu*, *egondu*, *bizitu*, *jakindu*... eta tankerako aldaerak oso gutxi erabiltzen dira. Hitzun batzuek *izandu* darabilte, eta oso gutxi batzuek *egondu*, baina salbuespena dira.

Hona hemen, hala ere, jaso ahal izan ditugun zenbait adibide:

Rusira ta dana esportatzen zuen, zeatik armaio bat zan, esto nik, ba, kataloguak eta bazkat eta, nik handikan, harrezkeo ibili izandu naiz Valentziyan ta feri guztitan, baiño halako armaioik ez ditut ezautu.

(Inaxio Lertxundi)

Geoztikan nik ikusi **izandu** det hura jatorduan batzokiyan, ta nik ez det bialdu **izandu**.
(Juan Iturria)

4.1.4.- JOAN ADITZEAN ADIZKI BEREZIAK

Joan aditzean adizki bereziak agertzen dira 3. pertsonan eta 1. singularrean, Gipuzkoa erdialdeko bereizgarri direnak: *nijua*, *dijua*, *dijuaz(te)*.

Ez dirudi aspaldiko kontua denik, zaharrenek *nua* eta *dua* erabiltzen dutelako nagusiki.

4.1.5.- JARDUN ADITZA

Nagusien artean *jardun* aditza erabiltzen da *ari izan* aditzarekin batera, baina gazteen artean desagertu egin da, eta *aritu* edo *egon* nagusitu dira. Adierazgarria da hiztun bati jasotako pasartea:

- Galdera: Kaletarrak eta baserritarrak desberdin hitz eiten al zuen, ba? Bai?
- (Juana Lizarralde) Honbre!
- Galdera: Baserritarrak hobia, e!
- (JL) Ta, nik uain berrogeita bi urte damaxkit Zarautzen bizitzen, ba, kaletarrak bezala hitz eiten det. Nei amorraziyua ematen die, “*lanian dao*”. Eonda, ez du lanik ingo! Hara, behin esan niyon, “*aizu, jardun in beharko dezu ikasiko bazu, eon ez!*”.
- (Alaba) Hori ez da zarauztarrena, e? Hori da erderatik itzulitakua!
- (JL) Bai, bai, bai, ba. Oain, hoixe ikasten due, euskera hori ikasten ai dittun, e, euskera hoixe ikasten ai ditun.
- (Alaba) Eskolan ez, ama.
- (JL) “*Euskeraz ba al dakizute! [...] eonda, ez dezue ikasiko, jardunda*”. Eske, amorra-ziyo bat... Hori da, hori da, erderan zea da hori!

4.1.6. -TE PLURALGILEA

Nor paradigmaren *-te* pluralgilea agertzen da (*zeazte*), baina Nor-Nork paradigmaren ez: *due* (ez *dute*), *dezue* (ez *dezute*).



4.1.7.- ADITZ TRINKOEN ERROAN -A- AGERTZEN DA

Trinkoen erroan *-a-* dago aditz gehienetan (*jakin, ibili, etorri*), esate baterako: *nakin, nabillen, natorren, zatorren...* Zalantzan dago eduki aditzean (*zauzkan* vs. *zeuzkan*). Eta *-e-* agertzen da egon aditzean: *neon*. Belaunaldi gazteagoetan *-e-* agertzen da maizago (*nebillen, nekin, zetorren, zeukan...*).

*Eman dio eundoko bultzazua, in du ikaragarritzko puzkerra, ta aurrian **zakan** mutil koskorra jo masaillian eta ia lurrea bota biharrian...* (Balero Odriozola)

4.1.8.- ADITZETAN -ATU ETA -ITU FORMAK NAGUSI

Urola kostan, batez ere Azkoitian eta Azpeitian, nahiko arrunta da *-atu* eta *-itu* amaiera duten aditzetan, herskaria galtzea, erdaratik mailegatutako aditzetan ez ezik, baita euskarazkoetan ere (*pentsatu > pentsau; atzeratu > atzerau; gelditu > geldiu*, eta abar). Zarautzen hautazkoa dela dirudi. Antza denez, zarautzar nagusien artean arruntagoak dira forma osoak: *harrapatu, gustatu, atzeratu, pentsatu, gelditu, garbitu, segitu, partitu...*

*E... kalian erten... bai plazan ta... ezta **pentsatu're**, beatzitako etxea, bestela pekatua zan. Txaparruak, txaparruak, "el traje de baño", nik monjai eakutsi, eaman in behar izaten giñon ikusteko nolakua zan, aitu?* (Feli Arruti)

Gazteen artean, berriz, gero eta arruntagoak dira *t* gabeko formak: *gustau, harrapau, banau, eskau, pentsau...*

4.1.9.- PARTIZIPIOA ERATZEKO MODUAK

Partizipioa eratzeke hiru forma daude euskaraz: -TA / -(R)IK / -A. Zarautzen lehenengo forma erabiltzen da gehienbat: *nekauta nao, inda dao* ('eginda')...

Hala ere, hirugarren aukerako hainbat adibide ere aurkitu ditugu:

*Amonak etziyon ba esan semia **hilla** zanikan, o sea, (...) bi semiak **hilda**; ta bat **hilla** zana bazekiyan, eta bestia bizi zulakuan.*

(Benita Eizagirre)

*Eta hau zeantzako dek ederra zeak, han, kalia **jarriya** zio.*

(Xantos Leunda)

4.1.10.- EGIN INDARGARRIA ERABILTZEN DA

Zarautzen ere *egin* aditz indargarria erabiltzen da¹¹:

*Bai, **eaman ingo** ziyoen bestela.*

(Juana Lizarralde)

*Ta **hartu eiten** zun. Hartutzen zun ta: "llevamos seis meses sin cobrar ni chiquita".*

(Ander Alberdi)

4.1.11.- NOR-NORK OSO GUTXI ERABILTZEN DA

Zarautzen, gehienetan, Nor-Nork beharrean, Nor-Nori-Nork formak erabiltzen dira, esate baterako: *atzo ikusi zintudan > atzo ikusi nizun*.

Nagusi-nagusienek oraindik ere erabiltzen dituzte Nor-Nork paradigmako formak, baina oso gutxi, eta 50-60 urtetik beherako belaunaldien artean ia erabat ezezagunak dira. Hala ere, hementxe dituzue nagusien ahotan jasotako zenbait adibide:

*Atzo **ikusi ziñutan**, eta pentsatu nun...*

(Juan Agoues)

*Hurrunakon **ikusi niñunian** esan tzian...*

(Benita Eizagirre)

¹¹EGLAn (Euskal Gramatika laburra: perpaus bakuna, 27. orr.) aipatzen denaren arabera, mendealeko zenbait hitzunez bakarrik erabiltzen dute egitura indargarri hau.

4.1.12.- *EDUN ADITZAREN LEKUAN, EDUKI

**Edun aditzaren lekuan Eduki erabiltzen da sarri: hiru etxe dazka, buruko miña daka...*
Joera hori nabariagoa da gazteen artean.

4.1.13.- AHALERAN -TU GORDETZEN DA

Ahaleran ez da -tu galtzen. Adibidez, *hartu leiket*.



4.2. ADITZONDOAK

4.2.1.- DENBORA-ADITZONDOAK

- *iñoiz, noiz, noizbait/noizpait, noiznahi, noiz(ed)onoiz*
- *A(g)uro, aldez aurretik, antxiña ('antzina'), artian, askotan, aspaldi, astero, atzo, atzea (berriz esanahiarekin), aurten, azkenian, berriro, berriz, behiñe(z) ('behin ere ez'), berandu, be(e)la ('berehala'), beti, bide batez, bitartian, biyar ('bihar'), biyen bitarten/biyen bitartian ('bien bitartean'), e(g)unez, etzi, etzidamu, estraña ('estreinako'), gabez ('gauetz'), gaur, gehienetan, geo ('gero'), goiz(a)o, hereñeun ('herenegun'), i(g)az (eta jun zan urtian), laixte(r), lehen, lehenokuan, oaiñ ('orain'), oaindikan ('oraindik'), oaindik oaiñea, oaindik oaiñ, oaintsu arte, ordu(a)n, pixkatian, puxkaten, sarri(tan), tarteka, honezkeo, segitu(a)n, sekula...*

4.2.2.- LEKU-ADITZONDOAK

4.2.2.1. Erakusleetatik eratorritakoak

1. taula: arruntak

	hemen	hor	han
Nominatiboa	hemen	hor	han
Leku-genitiboa	hemengo	horko	hango
Ablatiboa	hemendik(an)	hortik(an)	handik(an)
Adlatiboa	honea	horrea	hara
Muga-adlatiboa	honeaiño	horreaiño	haraiño

2. taula: indartuak

	hemen	hor	han
Nominatiboa	hementxe	hortxe	hantxe(n)
Leku-genitiboa	hemengotxe	horkotxe	hangotxe
Ablatiboa	hemenditxe hemendikantxe	hortitxe hortikantxe	handitxe handikantxe
Adlatiboa	honeaxe	horreaxe	haraxe
Muga-adlatiboa	honeaiñoxe	horreaiñoxe	haraiñoxe

4.2.2.2. Ber- aurrizkidunak

Talde honetakoak dira, esate baterako: *bertan(txe)*, *bertako(txe)*, *bertatik*, *bertara(xe)*, *bertaraiño(txe)*, ...

4.2.2.3. Zehaztugabeak

E(d)ozein tokitan, *iñun*, *ino(r)a*, *nunbait*, *nunahi*, *no(r)anahi* eta horiei postposizioak erantsiz sortzen direnak.

4.2.2.4. Bestelakoak

Albuan, *aldamenian*, *aurrian*, *atzian*, *azpiyan*, *gaiñian*, *goian*, *hurrian* ('hurreean' / 'hurbil'), *kanpuan*, *ondorenian*, *onduan*, *urruti*...

4.2.3.- MODU-ADITZONDOAK

4.2.3.1. Erakusleetatik eratorritakoak

Hola, *hala*, *halaxe*...

4.2.3.2. Zehaztugabeak

Nolabait, *iñola*, *iñundik iñora*, *ezetara're*...

4.2.3.3. -TO / -KI atzizkiez osatutakoak

- *Ondo*, *hobeto*...
- *Zatarki*, *gaixki*, *ederki*, *poliki*, *galanki*...

4.2.3.4. -TA atzizkiaz osatutakoak

Nekauta, *inda* ('eginda'), *esanda*, *nahita*...

4.2.3.5. Bestelakoak

Aguro, ahuzpez, aidian/airian, aldapagora, aldapabehera, apropos, atzekoz aurre(r)a, axkar/azkar, benetan, bitan/bi aldiz, bixkor/bizkor, derri(g)or/ derri(g)orrian, egoki, e(g)unez, errez/errex, gaiñezka, ganoraz, halako batian, hankutsik(an), harrapaztaka, hutsik, korrika, lau hanketan, larrubizik/narrubizik/narrugorritan, makal, mantxo, nahi ta nahi ez, nahiezta, negar batian, negarrez, oiñez, pixkaka, pozik, saltaka, saltoka, tikili-makala...

4.2.4. IRITZI-ADITZONDOAK

Zerrenda honetakoak dira: *bai ba, baleike, beharbada, duda gabe, hain zuzen, jakiña, leikena, nunbait...*

4.3. Aditz-taulak

Ondorengo orrialdeetan aurkezten ditugun taulak Zarauzko euskararen aditza jasotzeko lehenengo hurbilpena dira. Elkarriketetan jasotako adizkiez gain, zuzenean aditza jasotzeko hainbat elkarriketa ere egin ditugu. Ondorioz, Zarauzko aditzaren alderdirik gehienak jaso ditugula uste dugu, baina jakin badakigu oraindik ere beste hainbat forma geratuko zirela bidean, eta gutxien erabiltzen diren kasuetan (subjuntiboan, ahaleran, zenbait aditz trinkotan, eta abar) hutsuneak egon daitezkeela.

Taula hauetan Zarautzen jaso ditugun forma guztiak sartu ditugu, eta ikusiko duzueenez, sarri-sarri aldaera edo forma bat baino gehiago erabiltzen da kasu berbera adierazteko. Forma batzuk beste batzuk baino errotuago egongo dira herrian, eta beste adizki batzuk zuzen-zuzenak ere ez dira izango. Hala ere, gure asmoa ez da izan zuzentasuna bilatzea, herrian erabiltzen dena ahalik eta zehatzen jasotzea baizik.

Taulak aztertzeko orduan, kontuan izan gehienbat kaleko adizkiak bildu ditugula, eta baserri-auzoetan erabiltzen diren aldaera batzuk faltako direla. Esate baterako, *ditu* erako aditzak agertzen dira tauletan, eta baserri inguruetan arruntagoa da *dittu* forma palatalizatu edo bustia.

4.3.1.- ADITZ PERIFRASTIKOAK

NOR

	indikatio bo oraina	indikatio bo lehena	baldintza	ondorioa	ahalera	subjuntio bo oraina	subjuntio bo lehena	agintera
ni	naiz	nitzan	banintza(ke) ¹²	nitzake	neike	nain	nein	
	nauk	niñun nituan		niñuke nituke				
	naun	niñunan nitunan		niñunake nitunake				
hi (g)	haiz	hitzan	bahitza(ke)	hitzake	heike	hain		hai
hi (e)	haiz	hitzanan	baitza(ke)	hitzake	heike	hain		hai
hua	da	zan	balitza(ke)	litzake	leike	dain/dein	zein	bedi/bei
	dek	huan		huake				
	den	hunan		hunake				
gu	gea, geaz	giñan	bagiña(ke)	giñake	giñezke	gaitezen	gintezan	
	gaituk	giñun gituan		giñuke gituake				
	gaitun	giñunan gitunan		giñunake gitunake				
zu	zea, zeaz	ziñan	baziña(ke)	ziñake	ziñezke	z(a)itezen	ziñezan	zaitez
zuek	zea(z)te	ziñaten	baziñate(ke)	ziñateke	ziñezteke	z(a)itezten	ziñezten	zaitezte zizte
haiek	dia	zian	balia(ke)	liake	leizke	ditezen	zitezen	biez
	dituk	hituan		hituake				
	ditun	hitunan		hitunake				

¹² Zarautzen nahiko arrunta da baldintzako adizkiei berez ondoriokoa den -ke- marka gehitzea

NOR-NORI

NOR-NORI (Indikatiboa Oraina)

	nei	hiri (g)	hiri (e)	hari	guri	zuri	haiei
hura	zait	zaik	zain	zaio zako	zaigu zaku	zaizu	zaizue zaie
	zai(d)ak zatek / zaitek			zaiok zakok	zaiguk		zaiek
	zai(d)an zaiten			zaion zakon	zaigun		zaien
haiek	zaixkit ¹³	zaixkik	zaixkin	zaixkiyo	zaixki(g)u	zaixkizu	zaixkizue zaixkiye
	zaixkiak zaixkitek			zaixkiyok	zaixki(g)uk		zaixkiyek
	zaixkian zaixkiten			zaixkiyon	zaixki(g)un		zaixkiyen

NOR-NORI (Indikatiboa Lehena)

	nei	hiri (g)	hiri (e)	hari	guri	zuri	haiei
hura	zitzaitean zitzaian	zitzaian	zitzaian	zitzaion zitzaikon	zitzaigun	zitzaizun	zitzaizuen zitzaioen zitzaikoen
	zitzaitean			zitzaioan	zitzaiguan		zitzaiean
	zitzaitenan			zitzaionan	zitzaigunan		zitzaienen
haiek	zitzaixkiten zitzaixkian	zitzaixkian	zitzaixkian	zitzaixkiyon	zitzaixki(g)un	zitzaixkizun	zitzaixkizuen zitzaixkiyen
	zitzaixkitean			zitzaixkiyoan	zitzaixki(g)uan		zitzaixkiyean
	zitzaixkitenan			zitzaixkiyonan	zitzaixki(g)unan		zitzaixkiyen

¹³ *-izki-* pluralizatzailea duten aditzen kasuan, forma bustiak (*-ixki-*) adierazi ditugu, horiek direlako, gure ustez, Zarautzen gehien erabiltzen direnak. Kontuan izan, baina, hiztunaren arabera, forma arruntak ere erabiltzen direla.

NOR-NORI (Baldintza)

	nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
hua	balitzaia(ke)	balitzai(ke)	balitzaiña(ke)	balitzaio(ke)	balitzaigu(ke)	balitzaizu(ke)	balitzaizue(ke)	balitzaie(ke)
haiek	balitzaixkia(ke)	balitzaixki(ke)	balitzaixkiña(ke)	balitzaixka(ke)	balitzaixki(g)u(ke)	balitzaixkizu(ke)	balitzaixkizue(ke)	balitzaixkiye(ke)

NOR-NORI (Ondorioa)

	nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
hua	litzaiake	litzaiake	litzaiñake	litzaioke	litzaiguke	litzaizuke	litzaizueke	litzaieke
haiek	litzaixkiake	litzaixkike	litzaixkiñake	litzaixkiyoke	litzaixki(g)uke	litzaixkizuke	litzaixkizueke	litzaixkiyeke

NOR-NORK

NOR-NORK (Indikatiboa Oraina)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
ni		nauk	naun	nau natxik natxin		nazu	nazue	naue natxiek natxien
hi (g)	haut			hau	haugu			haue
hi (e)	haut / haunat			hau	haunagu			haue
hua	det diyat diñat	dek	den	du dik din	deu diyau diñau	dezu	dezue	due diye diñe
gu		gaituk	gaitun	gaitu gatxik gatxin		gaituzu	gaituzue	gaitue gatxi(t)ek gatxi(t)en
zu	zaitut			zaitu	zaitugu			zaitue
zuek	zaituet			zaitue	zaituegu			zaitue
haiek	ditut dixkiyat / dixkit dixkiñat	dituk	ditun dixkik dixkin	ditu dixkiyau dixkiu dixkiñau	ditugu	dituzu	dituzue	ditue dixkiyet dixkiñe

NOR-NORK (Indikatiboa Lehena)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
ni		niñuan	niñunan	niñun nitxin nitxiñan		niñuzun	niñuzuen	niñuen nitxian nitxien nitxianan nitxienan
hi (g)	hiñutan hiñuten			hiñun	hiñugun			hiñuen
hi (e)	hiñutanan hiñutenan			hiñunan	hiñugunan			hiñuenan
hua	nun nuan nín niyan niñan	huan	huan hunan	zun zín ziyan ziñan	gendu(a)n giñun(a)n geniñ geniyan geniñan	zen(d)un ziñun	zenduen ziñuen	zuen ziyen ziñenan
gu		giñuan	giñunan	giñun gitxin gitxiñan		giñuzun	giñuzuen	giñuen giñuzten gitxizten gitxiztenan
zu	ziñutan ziñuten			ziñun	ziñugun			ziñuen
zuek	ziñueten			ziñuen	ziñuegun			ziñuen
haiek	nitun nixkiñ nixkiyan nixkiñan	hituan	hituan hitunan	zitun zixkin zixkiyan zixkiñan	genduzen giñuzen genitun genixkiñ genixkiyan genixkiñan	zituzun ziñuzen	zituzuen	zituen zixkiyen zixkiñenan

NOR-NORK (Baldintza)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
ni		baniñu(ke)	baniñuna(ke)	baniñu(ke)		baniñuzu(ke)	baniñuzue(ke)	baniñue(ke)
hi (g)	bahiñuket			bahiñu(ke)	bahiñuke(g)u			bahiñueke
hi (e)	bahiñunaket			bahiñuna(ke)	bahiñunake(g)u			bahiñuenake
hua	banu(ke)	bau(ke)	bauna(ke)	balu(ke)	bagendu(ke) bagiñu(ke)	bazendu(ke) baziñu(ke)	bazendue(ke) beziñue(ke)	balue(ke)
gu		bagiñu(ke)	bagiñuna(ke)	bagiñu(ke)		bagiñuzu(ke)	bagiñuzue(ke)	bagiñue(ke)
zu	baziñuket			baziñu(ke)	baziñuzke(g)u			baziñue(ke)
zuek	baziñueket			baziñue(ke)	baziñuezke(g)u			baziñue(zke)
haiek	banitu(zke)	baituake	baituna(ke)	balitu(zke)	bagenitu(zke) bagiñuzke	bazituzu(ke)	bazituzue(ke)	balitue(ke)

NOR-NORK (Ondorioa)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
ni		niñuake	niñunake	niñuke		niñuzuke	niñuzueke	niñueke
hi (g)	hiñuket			hiñuke	hiñuke(g)u			hiñueke
hi (e)	hiñunaket			hiñunake	hiñunake(g)u			hiñuenake
hua	nuke	huake	hunake	luke	genduke giñuke	zen(d)uke ziñuke	zendueke ziñueke	lueke
	nike			like	genike			liyeke
gu		giñuake	giñunake	giñuke		giñuzuke	giñuzueke	giñueke
zu	ziñuket			ziñuke	ziñukegu			ziñueke
zuek	ziñueket			ziñueke	ziñuekegu			ziñuezke
haiek	nituzke	hituake	hitunake	lituzke	giñuke	zituzuke	zituzueke	litueke
	nixkike			lixxike	genixkike			lixxiyeke

NOR-NORK (Subjuntiboa Oraina)

	nik	harek	guk	zuk	zuek	haiek
ni		nazala		nazatela		
hua	(de)zaten	(de)zala	(de)zagun	(de)zazun	(de)zazuen	(de)zatela deiela
gu		gaitzala		gaitzazun	gaitzazuen	gaitzatela
zu		zaitzala				zaitzatela
zuek		zaitzatela				zaitteztela
hayek	ditzaten	ditzala	ditzaun	ditzazun	ditzazuen	ditzatela

NOR-NORK (Subjuntiboa Lehenaldia)

	nik	harek	zuk	zuek	haiek
hua	nezan	zezan	zezazun	zezazuen	zezaten
harek	nitzan	zitzan	zitzazun	zitzazuen	zitzaten

NOR-NORK (Agintera)

	hik (g)	hik (e)	zuk	zuek
ni	nazak	nazan	nazu	nazue
hua	zak	zan	zazu	zazue
gu	gaitzak	gaitzan	gaitza(t)zu	gaitzazue
haiek	itzak	itzan	itza(t)zu	itzazue

NOR-NORI-NORK

NOR-NORI-NORK (Indikatiboa Oraina Singularra)							
	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	haiek
nei		diak	dian	dit		diazu	die
				ziak			ziek
							ziatek
							zie
				zian			zien
							ziaten
							zienan
hiri (g)	diat			dik	diau		diye
hiri (e)	diñat			din	diñau		diñe
harei	diyot	diyok	diyon	diyo	diyou	diyozu	diyozue
	ziot			ziok	ziyou		ziotek
	zionat			zion	zionau		zioten
guri		di(g)uk	di(g)un	di(g)u		di(g)uzu	di(g)uzue
				zi(g)uk			zi(g)u(t)ek
				zi(g)un			zi(g)u(t)en
zuri	dizut			dizu	dizugu		dizue
zuei	dizuet			dizue	dizueu		dizue
haiei	diyoet	diyek	diyen	diye	diyeu	diyezu	diyezue
	ziet			ziek	ziyeu		ziek
	zienat			zien	ziyenau		zien

NOR-NORI-NORK (Indikatiboa Oraina Plurala)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		dixkiak	dixkian	dixkit		dixkiazu	dixkiazue	dixkie
				zixkiak				zixki(t)ek
				zixkian				zixki(t)en
hiri (g)	dixkiat			dixkik	dixkiyau			dixkiye
hiri (e)	dixkiñat			dixkin	dixkiñau			dixkiñe
harei	dixkiyot	dixkiyok	dixkiyon	dixkiyo	dixkiyou	dixkiyozu	dixkiyozue	dixkiyoe
	zixkiot			zixkiok	zixkiou			zixkio(t)ek
	zixkionat			zixkion	zixkionau			zixkio(t)en
guri		dixki(g)uk	dixki(g)un	dixki(g)u		dixki(g)uzu	dixki(g)uzue	dixki(g)ue
				zixki(g)uk				zixki(g)u(t)ek
				zixki(g)un				zixki(g)u(t)en
zuri	dixkizut			dixkizu	dixkizugu			dixkizue
zuei	dixkizuet			dixkizue	dixkizueu			dixkizue
haiei	dixkiyet	dixkiyek	dixkiyen	dixkiye	dixkiyeu	dixkiyezu	dixkiyezue	dixkiye
	zixkiet			zixkiyek	zixkiyeu			zixkiyek
	zixkienat			zixkiyen	zixkiyenau			zixkiyen

NOR-NORI-NORK (Indikatiboa Lehena Singularra)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		hian	hianan	zian		ziazun	ziazuen	zien
				zitx(i)an				zitx(i)en
				zitx(i)anan				zitx(i)enan
hiri (g)	niyan			zi(ya)n	geniyan			ziyen
	niñ				geniñ			
hiri (e)	niñan			ziñan	geniñan			ziñenan
harei	niyon	hiyon	hiyonan	ziyon	geniyon giñon/giñun ziogun	ziyozun	ziyozuen	ziyoen
	nitx(i)on			zitx(i)on	gitx(i)on			zitx(i)oen
	nitx(i)onan			zitx(i)onan	gitx(i)onan			zitx(i)oenan
guri		hi(g)un	hi(g)unan	zi(g)un		zi(g)uzun	zi(g)uzuen	zi(g)uen
				zitxi(g)un				zitxi(g)uen
				zitxi(g)unan				zitxi(g)uenan
zuri	nizun			zizun	genizun			zizuen
zuei	nizuen			zizuen	genizuen			zizuen
haiei	niyoen	hiyen	hiyenan	ziyen	geniye	ziyезun	ziyезuen	ziyen ziyoen
	nitx(i)en			zitx(i)en	gitxien			zitx(i)en
	nitx(i)enan			zitx(i)enan	gitxienan			zitx(i)enan

NOR-NORI-NORK (Indikatiboa Lehena Plurala)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		hixkian	hixkianan	zixkian zibxik(i)an zibxik(i)anan		zixkiazun	zixkiazuen	zixkien zibxik(i)en zibxik(i)enan
hiri (g)	nixkiyan nixkiñ			zixkiyan zixkiñ	genixkiyan genixkiñ			zixkiyen
hiri (e)	nixkiñan			zixkiñan	genixkiñan			zixkiñenan
harei	nixkiyon nitbixk(iy)on nitbixk(iy)onan	hixkiyon	hixkiyonan	zixkiyon zibxik(i)on zibxik(i)onan	genixkiyon gitbixk(i)on gitbixk(i)onan	zixkiyozun	zixkiyozuen	zixkiyoen zibxik(i)oen zibxik(i)oenan
guri		hixki(g)un	hixki(g)unan	zixki(g)un zibxik(g)un zibxik(g)unan		zixki(g)uzun	zixki(g)uzuen	zixki(g)uen zibxik(g)uen zibxik(g)uenan
zuri	nixkizun			zixkizun	genixkizun			zixkizuen
zuei	nixkizuen			zixkizuen	genixkizuen			zixkizuen
haiei	nixkiyen nitbixk(iy)en nitbixk(iy)enan	hixkiyen	hixkiyen	zixkiyen zibxik(iy)en zibxik(iy)enan	genixkiyen gitbixk(iy)en gitbixk(iy)enan	zixkiyezun	zixkiyezuen	zixkiyoen zibxik(iy)en zibxik(iy)oen zibxik(iy)enan zibxik(iy)oenan

NOR-NORI-NORK (Baldintza Singularra)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		bahiake	bahiana(ke)	balia(ke)		baziazu(ke)	baziazue(ke)	balie(ke)
hiri (g)	banik(e)			balik(e)	bagenik(e)			balie(ke)
hiri (e)	baniñ(ake)			balिñ(ake)	bageniñ(ake)			balिñena(ke)
harei	baniyo(ke)	bahiyo(ke)	bahiyona(ke)	balio(ke)	bageniyo(ke)	baziyozu(ke)	baziyozone(ke)	balie(ke)
guri		bahi(g)u(ke)	bahi(g)una(ke)	balig(u)(ke)		bazig(u)zu(ke)	bazig(u)zone(ke)	balig(u)e(ke)
zuri	banizu(ke)			balizu(ke)	bagenizu(ke)			balizue(ke)
zuei	banizue(ke)			balizue(ke)	bagenizue(ke)			balizue(ke)
haiei	baniye(ke)	bahiye(ke)	bahiyena(ke)	balie(ke)	bageniye(ke)	baziyezu(ke)	baziyezue(ke)	balie(ke)

NOR-NORI-NORK (Baldintza Plurala)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		bahixkia(ke)	bahixkiana(ke)	balixkia(ke)		bazixkiazu(ke)	bazixkiazue(ke)	balixkie(ke)
hiri (g)	banixkik(e)			balixkik(e)	bagenixki(ke)			balixkiye(ke)
hiri (e)	banixkiña(ke)			balixkiñ(eke)	bageniñkiña(ke)			balixkiñena(ke)
harei	banixkiyo(ke)	bahixkiyo(ke)	bahixkiona(ke)	balixkiyo(ke)	bagenixkiyo(ke)	bazixkiyozu(ke)	bazixkiyozue(ke)	balixkiye(ke)
guri		bahixki(g)u(ke)	bahixki(g)una(ke)	balixki(g)u(ke)		bazixkiguzu(ke)	bazixkiguzue(ke)	balixkigue(ke)
zuri	banixkizuke			balixkizu(ke)	bagenixkizu(ke)			balixkizue(ke)
zuei	banixkizueke			balixkizue(ke)	bagenixkizue(ke)			balixkizue(ke)
haiei	banixkiyeke	bahixkiye(ke)	bahixkiyena(ke)	balixkiyeke	bagenixkiye(ke)	bazixkiyezu(ke)	bazixkiyezue(ke)	balixkiye(ke)

NOR-NORI-NORK (Ondorioa Singularra)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		hiake	hianake	liake		ziazuke	ziazueke	lieke
hiri (g)	nike			like	genike			liyeke
hiri (e)	niñake			liñake	geniñake			liñenake
harei	nioke	hiyoke	hiyonake	liyoke	genioke	ziyozuke	ziyozueke	liyoeke
guri		hi(g)uke	hi(g)unake	li(g)uke		zi(g)uzuke	zi(g)uzueke	li(g)ueke
zuri	nizuke			lizuke	genizuke			lizueke
zuei	nizueke			lizueke	genizueke			lizueke
haiei	nioke	hiyeke	hiyenake	liyeke	genioke	ziyezuke	ziyezueke	liyeke

NOR-NORI-NORK (Ondorioa Plurala)

	nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		hixkiake	hixkianake	lixkiake		zixkiazuke	zixkiazueke	lixkieke
hiri (g)	nixkike			lixkike	genixkike			lixkiyeke
hiri (e)	nixkiñake			lixkiken	genixkiñake			lixkiñenake
harei	nixkiyoke	hixkiyoke	hixkiyonake	lixkiyoke	genixki(y)oke	zixkiyozuke	zixkiyozueke	lixki(y)oeke
guri		hixki(g)uke	hixki(g)unake	lixki(g)uke		zixki(g)uzuke	zixki(g)uzueke	lixki(g)ueke
zuri	nixkizuke			lixkizuke	genixkizuke			lixkizueke
zuei	nixkizueke			lixkizueke	genixkizueke			lixkizueke
haiei	nixkiyeke	hixkiyeke	hixkiyenake	lixkiyeke	genixkiyeke	zixkiyezuke	zixkiyezueke	lixkiyeke

NOR-NORI-NORK (Subjuntiboa Oraina)

	nik	harek	guk	zuk	zuek	haiek
nei		dian		diazun	diazuen	diaten
harei	diyoten	diyon	diyoun	diyozun	diyozuen	diyoen
guri		di(g)un		di(g)uzun	di(g)uzuen	di(g)uen
zuri	dizuten	dizun	dizugun			dizuen
zuei	dizueten	dizuen	dizuegun			dizuen
haiei	diyeten	diyen	diyeun	diyezun	diyezuen	diyen

NOR-NORI-NORK (Agintera Singularra)

	hik (g)	hik (e)	zuk	zuek
nei	iak	ian	iazu	iazue
harei	iok	ion	iozu	iozue
guri	i(g)uk	i(g)un	i(g)uzu	i(g)uzue
haiei	iek	ien	iezu	iezue

NOR-NORI-NORK (Agintera Plurala)

	hik (g)	hik (e)	zuk	zuek
nei	ixkiak	ixkian	ixkiazu	ixkiazue
harei	ixki(y)ok	ixki(y)on	ixki(y)o(t)zu	ixki(y)ozue
guri	ixki(g)uk	ixki(g)un	ixki(g)uzu	ixki(g)uzue
haiei	ixki(y)ek	ixki(y)en	ixki(y)ezu	ixki(y)ezue

4.3.2.- ADITZ TRINKOAK

EGON (NOR)

	oraina	lehena	baldintza	ondorioa	agintera
ni	n(a)o natxiok / nitxiok naok / neok natxion / nitxion naon / neon	neon nitxion / natxion nitxonan / natxionan	baneo(ke)	neoke	
hi (g)	hao	heon	baheo(ke)	heoke	
hi (e)	hao(n)	heonan	baheon(ake)	heonake	
hua	dao / do zeok ziok zeon zion	zeon zitx(i)on zitx(i)onnan	baleo(ke)	leoke	d(a)ola
gu	gaude(z) / gabe(z) ga(txa)udek ga(txa)be(zte)k ¹⁴ ga(txa)uden ga(txa)be(zte)n	ge(u)nden / giñaben gitxau(d)en gitxabe(zte)n gitxau(d)enan gitxabe(zte)nan	bage(u)nde(ke)	ge(u)ndeke	
zu	zaude(z) / zabe(z)	ze(u)nden	baze(u)nde(ke)	ze(u)ndeke	
zuek	zaude(z)te / zabe(z)te	ze(u)ndeten	baze(u)ndete(ke)	ze(u)ndeteke	
haiek	daude(z) / dabe(z) z(itx)audek z(itx)abe(zte)k z(itx)auden z(itx)abe(zte)n	zeu(d)en / zaben zitxau(d)en zitxabe(zte)n zitxau(d)enan zitxabe(zte)nan	baleue(ke)	leudeke	dauela

¹⁴Taulan adierazi dugun -zte- pluralgilearekin batera, -zti- aldaera ere erabiltzen da: *gitxabeztin*, *zitxabeztik*, eta abar.

ETORRI

NOR

	oraina	lehena	baldintza	ondorioa	agintera
ni	nator	natorren / netorren	banetor(ke)		
	natorrek ¹⁵	nitxatorren			
	natxatorrek				
	natorren natxatorren	nitxatorrenan			
hi (g)	hator	hatorren / hetorren	bahetor(ke)		
hi (e)	hator	hatorrenan / hetorrenan	bahetom(ake)		
hua	dator	zatorren / zetorren	baletor(ke)	letorke	datorrela
	zatorrek	zitxatorren			
	zatorren	zitxatorrenan			
gu	gatoz	gentozen	bagentoz(ke)		
	gatoztek	gitxatoz(t)en			
	gatxatoztek				
	gatozten gatxatozten	gitxatoz(t)en gitxatoz(t)en			
zu	zatoz	zentozen	bazentoz(ke)		
zuek	zatozle	zentozten	bazentozte(ke)		
haiek	datoz	zetozen zetoztin	baletoz(ke)	letozke	datoztela datoztilla
	zatoztek	zitxatoz(t)en			
	zatxatoztek				
	zatozten zatxatozten	zitxatoz(t)en zitxatoz(t)en			

¹⁵Orainaldiko hitanoko adizkietan, -a- erroko aldaeren alboan, -e- errokoak ere erabiltzen dira: *netorrek*, *getozten*, *zetozte*, eta abar.

NOR - NORI (Indikatiboa Oraina)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
datorkit	datorkik	datorkin	datorkiyo	datorki(g)u	datorkizu	datorkizue	datorkiye
zatorkiyak ¹⁶			zatorkiyok	ze-atorki(g)uk			ze-atorkiye
zatorkitek							
zatorkiyan			zatorkiyon	ze-atorki(g)un			ze-atorkiye
zatorkiten							
Plurala							
datorkixkit	datorkixkik	datorkixkin	datorkixkiyo	datorkixki(g)u	datorkixkizu	datorkixkizue	datorkixkiye
datozkit	datozkik	datozkin	datozkiyo	datozki(g)u	datozkizu	datozkizue	datozkiye
zator(ki)xkiyak			zatorkixkiyok	zatorkixki(g)uk			zatorkixkiye
zator(ki)xkitek			zatozkiyok	zatozki(g)uk			zatozkiye
zator(ki)xkiyan			zatorkixkiyon	zatorkixki(g)un			zatorkixkiye
zator(ki)xkiten			zatozkiyon	zatozki(g)un			zatozkiye

¹⁶Orainaldiko hitanoko adizkietan, -a- erroko aldaeren alboan, -e- errokoak ere erabiltzen dira: *zetorkitek*, *zetorkiyok*, *zetorkiye*, eta abar.

NOR-NORI (Indikatiboa Lehena)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
zatorkiten ¹⁷	zatorkiyan zatorkiken	zatorkiyanan zatorkikenen	zatorkiyon	zatorki(g)un	zatorkizun	zatorkizuen	zatorkiyen
zitxatorkiten			zitxatorkiyon	zitxatorki(g)un			zitxatorkiyen
zitxatorkitenan			zitxatorkiyanon	zitxatorki(g)unan			zitxatorkiyanen
Plurala							
zatorkixkiten	zatorkixkiyan	zatorkixkiñan	zatorkixkiyon	zatorkixki(g)un	zatorkixkizun	zatorkixkizuen	zatorkixkiyen
zatozkiten	zatozkiyan	zatozkiñan	zatozkiyon	zatozki(g)un	zatozkizun	zatozkizuen	zatozkiyen
zitxatorkixkiten	zatorkixkiken	zatorkixkikenen	zitxatorkixkiyon	zitxatorkixki(g)un			zitxatorkixkiyen
zitxatozkiten	zatozkiken	zatozkikenen	zitxatozkiyon	zitxatozki(g)un			zitxatozkiyen
zitxatorkixkitenan			zitxatorkixkiyanon	zitxatorkixki(g)unan			zitxatorkixkiyanen
zitxatozkitenan			zitxatozkiyanon	zitxatozki(g)unan			zitxatozkiyanen

¹⁷Kasu honetan ere, -a- erroko aldaeren alboan, -e- errokoak ere erabiltzen dira: *zetorkizun*, *zetorkiyan*, *zetorkixkiyan*, eta abar.

NOR NORI (Baldintza)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
baletorkiake	baletorkik(e)	baletorkiñake	baletorkiyoke baletorkixkiyoke	baletorki(g)uke	baletorkizuke	baletorkizueke	baletorkiyeke
Plurala							
baletorkixkiake			baletorkiyoke	baletorkixki(g)uke	baletorkixkizuke	baletorkixkizueke	baletorkixkiyeke
baletozkiake				baletozki(g)uke	baletozkizuke	baletozkizueke	baletozkiyeke
letorkiake			letorkiyoke	letorki(g)uke	letorkizuke	letorkizueke	letorkiyeke

NOR NORI (Ondorioa)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
letozkiake			letozkiyoke	letozki(g)uke	letozkizuke	letozkizueke	letozkiyeke
Plurala							
letorkixkiake			letorkixkiyoke	letorkixki(g)uke	letorkixkizuke	letorkixkizueke	letorkixkiyeke

JOAN

NOR

	oraina	lehena	baldintza	ondorioa	agintera
ni	nijua nua	nijuan			
	niak natxiak / nitxiak	nian nitxian			
	nian natxian / nitxian	nian nitxianan			
hi (g)	hua	hijuan			
hi (e)	hua	hijuanan			
hua	dijua dua	zijuan	balijua(ke)	lijuake	dijuala
	ziak zitxiak	zitxian			
	zian zitxian	zitxianan			
gu	guaz	gijuazen			gu(a)zen
	guazak guaztek / guaztik gitxiaztek / gitxiaztik	gitxiazten			guzemak
	guazan guazten / guaztin gitxiazten / gitxiaztin	gitxiaztenan			guzeman
zu	zuaz	zijuazen			
zuek	zuazte	zijuazen	balijuez(ke)	lijuazke	
haiek	dijuaz	zijuazen			dijuazela dijuaztilla
	ziazak ziaztek / ziaztik zitxiaztek / zitxiaztik	zitxiazten			
	ziazan ziazten / ziaztin zitxiazten / zitxiaztin	zitxiaztenan			

NOR - NORI (Indikatiboa Oraina)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
dijuakit	dijuakik	dijuakin	dijuakiyo	dijuaki(g)u	dijuakizu	dijuakizue	dijuakiye
zijuakiyak			zijuakiyok	zijuaki(g)uk			zijuakiyek
zijuakitek			zijuakiyon	zijuaki(g)un			zijuakiyen
Plurala							
dijuakixkit	dijuakixkik	dijuakixkin	dijuakixkiyo	dijuakixki(g)u	dijuakixkizu	dijuakixkizue	dijuakixkiye
dijuazkit	dijuazkik	dijuazkin	dijuazkiyo	dijuazki(g)u	dijuazkizu	dijuazkizue	dijuazkiye
zijuakixkiyak			zijuakixkiyok	zijuakixki(g)uk			zijuakixkiyek
zijuakixkitek			zijuazkiyok	zijuazki(g)uk			zijuazkiyek
zijuazkiyak							
zijuazkitek							
zijuakixkiyan			zijuakixkiyon	zijuakixki(g)un			zijuakixkiyen
zijuakixkiten			zijuazkiyon	zijuazki(g)un			zijuazkiyen
zijuazkiyan							
zijuazkiten							

NOR - NORI (Indikatiboa Lehena)

nei	hiri (g)	hiri (e)	harei	guri	zuri	zuei	haiei
Singularra							
zijuakiten	zijuakixkiken	zijuakiñan	zijuakiyon	zijuaki(g)un	zijuakizun	zijuakizuen	zijuakiyen
Plurala							
zijuakixkiten	zijuazkiken	zijuakixkiñan	zijuakixkiyon	zijuakixki(g)un	zijuakixkizun	zijuakixkizuen	zijuakixkiyen
zijuazkiten		zijuazkiñan	zijuazkiyon	zijuazki(g)un	zijuazkizun	zijuazkizuen	zijuazkiyen

IBILI

	oraina	lehena	baldintza	agintera
ni	nabil	nabillen / nebillen		
	nabilek / nebillek natxabilek / nitxabilek	nitxabillen		
	nabillen / nebillen natxabillen / nitxabillen	nitxabillenan		
hi (g)	habil	habillen / hebillen		
hi (e)	habil	habillenan / hebillenan		
hua	dabil	zabillen / zebillen	bazabiltzake	dabilela
	zabilek / zebillek	zitxabillen		
	zabillen / zebillen	zitxabillenan		
gu	gabiltza	gebiltzan		
	gabiltzak / gebiltzak gatxabiltzak / gitxabiltzak	gitxabiltzan gitxabillen		
	gabiltzan / gebiltzan gatxabiltzan / gitxabiltzan	gitxabiltzanan gitxabillenan		
zu	zabiltza	zenbiltzan		
zuek	zabiltzate	zenbiltzaten		
haiek	dabiltza	zabiltzan / zebiltzan	bazabiltzazke	dabiltzala
	zabiltzak / zebiltzak	zitxabiltzan		
	zabiltzan / zebiltzan	zitxabiltzanan		

ERAMAN

Indikatiboa Oraina							
nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
damakit	damakik	damakin	damaki	damaki(g)u	damakizu	damakizue	damakiye
zamakiyat			zamakik	zamakiyau			zamakiye(k)
zamakiñat			zamakin	zamakiñau			zamakiyen
Plurala							
damakixkit	damakixkik	damakixkin	damakixki	damakixki(g)u	damakixkizu	damakixkizue	damakixkiye
damazkit	damazkik	damazkin	damazki	damazki(g)u	damazkizu	damazkizue	damazkiye
			zamakixkik	zamakixkiyau			zamakixkiye
			zamazkik	zamazkiyau			zamazkiye
			zamakixkin	zamakixkiñau-			zamakixkiñe
			zamazkin	zamazkiñau			zamazkiñe

Indikatiboa Lehena							
nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
n(e)amakin	h(e)amakin	h(e)amakiñan	z(e)amakin	ge(ne)amaki(g)un	z(e)amakizun	z(e)amakizuen	z(e)amakiyen
nitxamaki(ya)			zitxamakin	gitxamakin			zitxamakiyen
nitxamakiñan	h(e)amakixkin		zitxamakiñan	gitxamakiñan			zitxamakiyenan
Plurala							
n(e)amakixkin	h(e)amazkin	h(e)amakixkiñan	z(e)amakizkin	ge(ne)amakixki(g)un	z(e)amakixkizun	z(e)amakixkizuen	z(e)amakixkiyen
n(e)amazkin		h(e)amazkiñan	z(e)amazkin	ge(ne)amazki(g)un	z(e)amazkizun	z(e)amazkizuen	z(e)amazkiyen
nitxamakixki(ya)n			zitxamakixkin	gitxamakixkin			zitxamakixkiyen
nitxamazki(ya)n			zitxamazkin	gitxamazkin			zitxamazkiyen
nitxamakixkiñan			zitxamakixkiñan	gitxamakixkiñan			zitxamakixkiyenan
nitxamazkiñan			zitxamazkiñan	gitxamazkiñan			zitxamazkiyenan

Indikatiboa Oraina							
nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
dakit	dakik	dakin	daki	daki(g)u	dakizu	dakizue	dakiye
zaki(ya) ^{t18}			zakik	zakiyau			zekiye(k)
zakiñat			zakin	zakiñau			zekiñen
Plurala							
dakixkit	dakixkik	dakixkin	dakixki	dakixki(g)u	dakixkizu	dakixkizue	dakixkiye
dazkit	dazkik	dazkin	dazki	dazki(g)u	dazkizu	dazkizue	dazkiye
zakixki(ya)t			zakixkik	zakixkiyau			zekixkiye
zazki(ya)t			zazkik	zazkiyau			zezkiye
zakixkiñat			zakixkin	zakixkiñau			zekizkiñe
zazkiñat			zazkin	zazkiñau			zezkiñe

Indikatiboa Lehena							
nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
naki(ye)n	heki(ye)n	dhekiñan	zaki(ye)n	gen(e)ki(g)un	zakizun	zakizuen	zakiyen
nitxaki(ya)n		hekiyen	zitxaki(ya)n	gitxakin			zitxakiyen
nitxakiñan			zitxakiñan	gitxakiñan			zitxakiyen
Plurala							
nakixki(ye)n	hekixki(ye)n	hekixkiñan	zakixki(ye)n	ge(ne)kixki(g)un	zakixkizun	zakixkizuen	zekixkiyen
nazki(ye)n	hezki(ye)n	hezkiñan	zazki(ye)n	ge(ne)zki(g)un	zazkizun	zazkizuen	zezkiyen
nitxakixki(ya)n		hekixkiyen	zitxakixki(ya)n	gitxakixkin			zitxakixkiyen
nitxazki(ya)n		hezkiyen	zitxazki(ya)n	gitxazkin			zitxazkiyen
nitxakixkiñan			zitxakixkiñan	gitxakixkiñan			zitxakixkiyen
nitxazkiñan			zitxazkiñan	gitxazkiñan			zitxazkiyen

¹⁸ Jakin aditzean ere, adizki gehienetan ez dago garbi erroan -a- edo -e- erabiltzen den. Oro har, alternantzia dagoela esan daiteke: *zakiyat/zekiyat, zakizun/zekizun, zakiyen/zekiyen*, eta abar.

Baldintza

nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
banaki(ke)	baheki(ke)	bahekiñ(ake)	baleki(ke)	bage(ne)ki(g)u(ke)	bazenekizu(ke)	bazenekizue(ke)	balekiye(ke)
Plurala							
banakixki(ke)	bahekixki(ke)	bahekixkiña(ke)	belekixki(ke)	bage(ne)kixki(g)u(ke)	bazenekixkizu	bazenekixkizue	belekixkiye(ke)
banazki(ke)	bahezki(ke)	behezkiña(ke)	balezki(ke)	ba(ge)nezki(ke)	bezenezkizu	bazenezkizue	balezkiye(ke)

Indikatiboa Oraina							
nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
dakarkit	dakarkik	dakarkin	dakarki	dakarki(g)u	dakarkizu	dakarkizue	dakarkiye
zakarkit			zakarkik	zakarki(g)uk			zakarkiyek
zakarkiñat			zakarkin	zakarki(g)un			zakarkiyen
Plurala							
dakarkixkit	dakarkixkik	dakarkixkin	dakarkixki	dakarkixki(g)u	dakarkixkizu	dakarkixkizue	dakarkixkiye
dakarzkit	dakarzkik	dakarzkin	dakarzki	dakarzki(g)u	dakarzkizu	dakarzkizue	dakarzkiye
zakarkixkiyat			zakarkixkik	zakarkixkiyau			zakarkixkiye
zakarzukiya			zakarzkik	zakarzkiyau			zakarzkiye
zakarkixkiñat			zakarkixkin	zakarkixkiñau			zakarkixkiñe
zakarzukiñat			zakarzkin	zakarzkiñau			zakarzkiñe

Indikatiboa Lehena

nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
nakarki(ye)n	hekarki(ye)n	hekarkiñan	zakarki(ye)n	ge(ne)karki(g)un	zakarkizun	zakarkizuen	zakarkiyen
nitxakarki(ya)n ¹⁹			zitxakarkin	gitxakarkin			zitxakarkiyen
nitxakarkiñan			zitxakarkiñan	gitxakarkiñan			zitxakarkiyenan
Plurala							
nakarkixki(ye)n	hekarkixki(ye)n	hekarkixkiñan	zakarkixki(ye)n	ge(ne)karkixki(g)un	zakarkixkizun	zakarkixkizuen	zakarkixkiyen
nakarzki(ye)n	hekarzki(ye)n	hekarzkiñan	zakarzki(ye)n	ge(ne)karzki(g)un	zakarzkizun	zakarzkizuen	zakarzkiyen
nitxakarkixki(ya)n			zitxakarkixki(ya)n	gitxakarkixki(ya)n			zitxakarkixkiyen
nitxakarzki(ya)n			zitxakarzki(ya)n	gitxakarzki(ya)n			zitxakarzkiyen
nitxakarkixkiñan			zitxakarkixkiñan	gitxakarkixkiñan			zitxakarkixkiyen
nitxakarzkiñan			zitxakarzkiñan	gitxakarzkiñan			zitxakarzkiyen

¹⁹Hitanoko adizkietan, -a- erroko aldaeren alboan, -e- errokoak ere erabiltzen dira: *nitxakarkiñan/nitxekarkiñan*, *zitxakarkiyen/zitxekarkiyen*, eta abar.

Indikatiboa Oraina

nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
dakat	dakak	dakan	daka	dakau	dakazu	dakazue	dakae
zakat ²⁰			zakak	zakau			zakatek
zakanat			zakan	zakanau			zakaten
Plurala							
dazkat	dazkak	dazkan	dazka	dazkau	dazkazu	dazkazue	dazkae
zazkat			zazkak	zazkau			zazkatek
zazkanat			zazkan	zazkanau			zazkaten

²⁰ Euki aditzaren kasuan ere, adizki askotan ez dago garbi erroan -a- edo -e- agertzen den. Oro har, alternantzia dagoela esan daiteke: *zakat/zekat, zazkau/zezkau, nakan/ne-kan, zakaen/zekaen*, eta abar. Alternantzia hori orainaldiko hitanoan, eta lehenaldiko zukako 1. pertsona singularrean eta 3. pertsona singularrean eta pluralean gertatzen da.

Indikatiboa Lehena

nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
nakan	hekan	hekanan	zakan	genekan gendukan	zenekan zakazun	zenekaten zenekazuen	zakaen
nitxakan			zitxakan	gendakaun giñakaun gakaun			zitxakaen
nitxakanan			zitxakanan	gitxakan gitxakanan			zitxakaenan
Plurala							
nazkan	hezkan	hezkanan	zazkan	genezkan genduzkan zazkaun	zenezkan	zenezkaten	zazkaen zazken
nitxazkan			zitxazkan	gitxazkan			zitxazk(a)en
nitxazkanan			zitxazkanan	gitxazkanan			zitxazk(a)enan

Baldintza

nik	hik (g)	hik (e)	harek	guk	zuk	zuek	haiek
Singularra							
baneka(ke)	baheka(ke)	bahekan(ke)	baleka(ke)	bageneka(ke)	bazeneka(ke)	bazenekate(ke)	bazekae(ke)
Plurala							
banezka(ke)	bahezka(ke)	bahezkan(ke)	balezka(ke)	bagenezka(ke)	bazenezka(ke)	bazenezkate(ke)	bazezkae(ke)

5.1. Perpaus bakuna

5.1.1.- ADIERAZPEN PERPAUSAK

Baiezko perpausetan haxe izan ohi da ordenarik arruntena perpaus markatu gabeetan:

Subjektua + Osagarria + Aditza

Ezezko perpausa denean, aldiz, egitura ez-markatua horrelakoa litzateke:

Subjektua + Aditza + Osagarria

Hona hemen transkripzioetatik jasotako elementurik azpimarratzen ez duten perpausen adibideak.

Guk beti hoi iten gendun.

(Antonio Eizagirre)

Ni Ander izan naiz beti.

(Ander Alberdi)

Perpauseko elementuren bat markatu nahi denean, elementu hori aditzaren aurreko koka-gunean jartzen da, galdegaiaren lekuan.

*Hemen asko **ahari-jokua** jokutzen da*

(Joxe Etxabe)

*Aurrenengo lore-sorta plaza saltzea **honek** ekarri zun.*

(Maria Josefa Txurruka)

Aditzaren ekintza bera denean indartu nahi dena, *egin* aditza sartzen da indargarri gisa²¹:

*Bai, **eaman ingo** ziyoen.*

(Juana Lizarralde)

*Guk ya hamar urte, hamabi, hamalau, hamasei, gora guazen bezela, zeoze **in in behar**, ta gure kuadrilla zan dantzatan hasi zana, osea, fuboletikan hasitako zea bat, ekipo bat fubolekua, ya kostako partiduak laga giñunian dantzakin hasi giñan.*

(Ander Alberdi)

*Ta **hartu eiten** zun. Hartutzen zun ta: “llevamos seis meses sin cobrar ni chiquita”.*

(Juan Ezenarro)

²¹EGLAn (Euskal Gramatika laburra: perpaus bakuna, 27. orr.) aipatzen denaren arabera, mendebaleko zenbait hiztunek bakarrik erabiltzen dute egitura indargarri hau.

Adizkiak trinkoak direnean, *ba*-erabiltzen da baiezkotasuna indartzeko:

Badakizu zuk.

(Pakita Urija)

Gerra aurretikan **bazeon**, e, *partido nazionalistak bazeukan bere lokala eta karlistak'e bai.*

(Ander Alberdi)

5.1.2.- AGINTE-PERPAUSAK

a) Aditz jokatua duten aginterazko forma arruntak.

*Ta "hartu **zak**, gizona, gauza berua!". Ta hartu eiten zun.*

*Ama, ama, zazpi barkillerona ta kantatu **zazu**.*

(Juana Lizarralde)

*Gaixo dao osaba, ta, jun **zaitez** zeara, ikustea.*

(Antonio Serras)

*Kendu **iazue** nei hamendikan, erre iten dit eta!*

(Manoli Urija)

*Eta "etorri **hai** jatea!", ta, "ez dakat, ba, gogo haundikan", ta. "Etorri **hai** jatea!"*

(KarmeLe Elola)

b) Aditz jokatugabea duten aginterazko forma arruntak.

*Noizbaiteko aurrian jarri ta, aitai, "osaba!", ta, ba, "**segi** barroa!", ahari-jokok eta ikustea.*

(Antonio Serras)

*"Honbre! Don Ebaristo! Earki etorri zea. **Etorri** barroa! Semia hola dakat, ta..."*

(Antonio Serras)

c) Zeharkakoak diren aginduak, "esan", "agindu" edo antzeko aditzen bat + *-t(z)eko* forma dutenak:

*Ta iyotzen nitzan, ta zea, e, **jartzeko** esaten zian*

(KarmeLe Elola)

Hemezortzi urtekin hasi nitzan, hamazazpikin nahi zun, ta esan zien, gaztetxua nitzala, ta nahi bazun itxoiteko urte betian, ta urte betea etortzeko nahi baldin bazun, ta bestela beste batekin hasteko esan niyon.

(KarmeLe Elola)

Ta bueno, pleura, pleura o nekala o ez dakit ze. Hamabost egunian deskantsuan eukitzeko.

(KarmeLe Elola)

d) Subjuntiboa + -(e)la forma duten aginterazko formak:

*Aurrea jun **daiele** nahi baldin badu, ta nahi baldin badu ito **daiele**.*
(Inoxenxio Epelde)

5.1.3.- HARRIDURA-PERPAUSAK

Ematen zaion doinuaren arabera, edozein adierazpen-perpaus harridura-perpaus bihur daiteke. Hala ere, badira harridura-perpausak sortzeko egiturak edo markatzaile bereziak ere, harridura hori indartzeko balio dutenak: erakusleak, galdetzaileak, lokailuak (*baina, behintzat*) ordena aldatzeak, errepikapenak... Hona hemen zenbait adibide:

Ai ama! Earra da hau!
(Feli Arruti)

*Bai? Ez dakit, **ba**!*
(Pakita Uria)

*Iten baiazu ekarriko dizut, **ba**!*
(F. J. Aranburu)

*Eta haragi uzte hori oso parregarriya zan. Zergatik aberatsa zanak langostak eta angulak jaten zituen, **bai, ba**! Hua bai, ta bestiak?*
(Feli Arruti)

*Esan dizut, **ba**! Jaia etortzian goiz ta arratsalde han jartzen giñan boletan.*
(Bonifazio Mutiozabal)

*Jotzen due, **baiña**! [...] Egurrak biziya daka, ta biziyai etorri iten zaizkiyo, guri bezelaxe, gaitzak, **hor ba**!*
(Mariano Gereka)

*Bai, **ba**! Bai, **ba**! Aldatu zan. Eboluziyuan hasi zanian dana, mueble liso-liso-lisua, tallista **dan-dan-danak sobran, danak sobran**!*
(Mariano Gereka)

*Nik seme-alabai esaten diyot, e, **ze** garai zian haiek!*
(Mariano Gereka)

***Oso onak, e! Oso onak**! Gerra aurretik, e!*
(Mariano Gereka)

***Nolako** gauza ederra dan hori! Bai, **ba**!*
(Juan Agoues)

*Eta jendia, **zenbat** jende eoten zan haiei beira! Espetakulua.*
(Inaxio Lertxundi)

*Eta esan niyon, **Jesus Maria**!*
(Karmele Elola)

Koño! Ta ordun zeatikan iten ziñuen zertifikauko Andres?!

(Ander Alberdi)

Jesus, María ta Jose! Kukua **ikaragarri** zeon, **ikaragarri!**

(Inazio Makazaga)

Tximistak'e galdu zigun guri txekor bat. **Jata fast!**

(Inazio Makazaga)

5.1.4.- GALDE-PERPAUSAK

a) Galdetzailez osatutakoak.

Nola ingo deu?

(Joxe Ezenarro)

Zein jarriko deu?

(Joxe Ezenarro)

Zean, este, **zer** dao uaiñ han? Botika ez, botikatikan, botika [...], beste aldia.

(Xantos Leunda)

Zenbat kostauko da?

(F.J. Aranburu)

Hoi, **noiz** in due etxe hau?

(Joxe Ezenarro)

Hola **zertan** ibili zeate?

(Manoli Olaizola)

b) Aukera bat ematen dutenak. Kasu honetan galderak berak aukera bat agertzen du, eta erantzuten duenak horietako erantzun bat hautatu beharko du.

Banan-banan **o** danak batea?

Noa nahio dezue, molla **o** mendira?

Ta galdeu zien... "Ze, ba al zatoz **eo** hemen geatzen zea?"

c) *Bai* ala ez-ko galderak. Era honetako galderak adierazpen-perpauk arrunt bat galdera bihurtuz, *ba*- tankerako galderen bidez edo aukera bat ematen duten galderen bigarren zatia ezabatuz sor daitezke.

Galtzaik eta?

(Feli Arruti)

Zer zan'e bagenkiun, ba?

(Feli Arruti)

*Belauntza ba **al** dakizu zein dan?*

(Manoli Olaizola)

Zu ez ziñan, ez, ez, ez zea, ba, apaiz tartekua izango, ezta?

(Feli Arruti)

*Paatu in bihar **al** dizkizut?*

(Manoli Olaizola)

*Hori eman **al** diyoze, penizilina hori?". Ta, "Bai", esan niyon.*

(Manoli Uribe)

Ikusten den moduan, horrelako galderetan *al* partikula erabiltzen da erdialdeko euskalkian, eta Zarauzko hizkeran ere badira adibide ugari.

Aurretik aipatutakoez gain, bada egitura berezi bat Zarautzen, normalean lekuekin lotzen dena. Egitura honek *ba*- tankerako galderak ordezkatzeko dituela ematen du.

*Oain esplikatuko dizuet. Urdaiazpikuan denda **nola dao** hamen, taberna?*

(Jose Mutiozabal)

*Frailetak... zinia **nola dao**?*

(Jesus Mari Kaperotxipi)

***Nola daka** zeak, Garronekuak **nola daka** denda?*

(Xantos Leunda)

*Oain, e, **nola dao**, ba, zea, anbulatoia, ta?*

(Juan Ezenarro)

*Farmaziya pasata San Pelaio aldea guazela, **nola dao** uan pelukeia?*

(Jose Mutiozabal)

*Errustanekua, ez al da? Itxia **nola dao**? Arrandeia ta zea, hemen, ixkiña hontan.*

(Rosario Loiola)

*Bide txikiya **nola dao**?*

(Manoli Olaizola)

Badirudi "*nola dao*..." galdera horrek "*badago, ba*..." egitura ordezkatzeko duela, eta erantzunak *bai ala* ez-koa izan behar du beti.

Azkenik, badago beste partikula bat galderetan zalantza adierazteko erabiltzen dena: *ote*. Honako adibide hauek jaso ditugu:

*Ta funeraria jarri zuen, zenbat urte **ote** jarri zuela?*

(Rosario Loiola)

*Aittona haundiya zan [...] haundikua, harek zenbatekua ekarri **ote** zun?*

(Inazio Makazaga)

*Seguridade sozialetan bakarrik zenbat baliyo **ote** du honek?*

(Mariano Gereka)

5.2. Perpaus elkartuak

5.2.1.- PERPAUS JUNTATUAK

5.2.1.1. Emendiozko juntagailuak

Eta da elkartze eta gehitze zeregin honetarako erabili ohi dugun juntagailu nagusia, baina forma desberdinak izan ditzake, batez ere ahozko hizkeran. Zarauzko hizkeran *eta*, *ta* eta *da* formak erabiltzen dira. *Da*, kontsonante albokari, dardarkari eta sudurkarien atzean erabiltzen da bereziki. Gainerako kasuetan, berriz, *ta* edo *eta* erabiltzen da.

5.2.1.2. Juntagailu hautakariak

Edo da juntagailu hautakari erabiliena Zarautzen, ia ez baitugu bestelako adibiderik aurkitu. Kokaleku desberdinak izan ditzake juntagailu honek, eta sarritan juntaduraren bigarren zatia ezabatu egiten da. Zarautzen *eo* eta *o* aldaerak erabiltzen dira:

*Eta segitzeko haiek hartzen zortzi egunian ta alde iten ez baziyon, pentsatuko gendukela igual tifus zala **eo** holako zeoze.*

(Manoli Uria)

*Iriyak eta, iri paria ta geo beste hamabi bat behi **eo** hola eoten zian, bai, ezer gutxi.*

(Maria Larrañaga)

*Ta geo behi batek ume iñen zeatutzen zala, fallua izan zula, **eo**... Geo, ume iñen txahal bat akaatu, **o**.*

(Inazio Makazaga)

*Kobardia nitzan. **O** batek burla ein ziala ta, “ai, burla in die aita, ta ez det nahi jutia” ta erdi nearretan ta abar ta, ba.*

(Pepita Goikoetxea)

Nola izaten da? **O** zaata, **o**. **O** batek harrapatu zulako, bestiak ez zulako, batei hori gertatu zakolako.

(Juan Agoues)

Ez dakit garaia hartzen gendun, **o** eguna hartzen gendun, **o** zer, ba, askok izango zun ohitura igual astelehenian bertan dana iteko, ta.

(Karme Elela)

5.2.1.3. Aurkaritzako juntagailuak

Baiña eta *baiño* aldaera erabiltzen dira aurkaritza adierazteko. Hauek ere kokaleku desberdinak izan ditzakete eta zenbaitetan lokailuaren ondorengo elementua ezkutatu ere egiten da:

*Uain ez due iten, **baiño** orduan izaten zan, Ama Birjiñetan ta festetan, kukaña zea hori, palo hori igurtzitzen zuen zeakin...*

(Juan Jose Markaide)

***Baiño** nik uste det ezetz, programa berdiña izango zan, **baiño** haiei gizonezkuak ematen zizkiyoen, ta guri emakumiak.*

(Feli Arruti)

*Ta ez zan konturatzen klub bat zala, e, ta kluba ondo zio, eaman zak nahi deken guztiya, **baiño**.*

(Inaxio Lertxundi)

*Guk, ez dakit nola esaten dan **baiña** guk britxis esaten gendun. Izena inglesa eukiko zun, ta auskalo nola esaten dan, **baiño** guk britxis.*

(Feli Arruti)

*Ta beste batzutan haragi pixkat, **baiña** jeneralian jayian bakarrik salda, orduan fideo iten zan.*

***Baiña** gaiñuntzian baatxui zopa, zeozen zopa in, o berdura... ta egunero babarruna.*

(Manoli Olaizola)

5.2.2.- MENDEKO PERPAUSAK

5.2.2.1. Perpaus osagarriak

Adierazpen-perpaus osagarriak

Perpaus osagarrietan (-e)/a menderagailua da erabiliena:

Esan dizut, ba, aurrenengua beak ekarri zula aurrenengo sorta, ta danak parre in ziyoen [...].

(Maria Josefa Txurruka)

Nei esan zian Flores Kaperotxipi pintoriak beai okurritu zitzaioa. Zeatikan, beraneantiak etortzen ziala, ta behin setienbrea ezkeo alde in, alde iñ iten zuela, eta pixkat bertako zea iteko, "Fiesta Vasca" zeatu, montatu ta in behar zuela ta, beak atea hitza, ta zeatu in zula, produzitu in zula.

(Benita Eizagirre)

Ordura arte beti jun zian abertzaliak eskubitik, eta orduan berriz zentrotikan jun ber zuen, eta [...], zentrotikan, zentrotik, deretxismuai zea kentzia zala ta, ez ziyola botauko, konbersaziyo haiekin ai zan.

(Juan Iturria)

Nei igual hamabost urtekin esaten zian hemezortzi urte nezkala. Eta geo, hemezortzi ta hogei iten nitunian, hamazazpi igual esaten zien nekala.

(Karmele Elola)

Ezezko osagarrietan -(e)nik da forma arruntena, baina Zarautzen -(e)nikan aldaera ere erabiltzen da:

Baiño hemen ez det uste holako zeaik izango zanik [...]

(Ander Alberdi)

Eta, bueno, nik abertzale moura're esaten dizut, baiño, ez det uste bate zeatzen detenik, esajeratzen detenik.

(Juan Iturria)

Oso goxua zan, ta ona. Behiñ'e kastiguik izan nunikan ez naiz gooratzen eskolan, e!

(Pepita Goikoetxea)

Baiño guk mutillak, ni ez naiz akordatzen mutillak hamen erderaz sumatu nitunikan.

(Inaxio Lertxundi)

Badira, zehargalderen antzera, galdetzailez eta -(e)n atzizkiaren laguntzaz osatutako perpaus osagarriak ere, baina, zehargalderetan ez bezala, perpaus hauetako *nola* edo *zelan* hitzek lokailu zeregina betetzen dute hemen. Halakoak kontakizunen bat egiterakoan erabili ohi dira, batez ere, *esan* eta *kontatu* bezalako aditzekin:

Bai, bai, baten batzuek gogoratzen naiz "Eusko Gudariak gera" nola abesten zuen. Bai, bai, bai.

(Feli Arruti)

Ta akordatzen naiz batian nola esan zian nei Azken Portu aldian bestek, "zuek argi hobia dakazue Azken Portu aldian baiño" [...].

(Manoli Olaizola)

Hori bai, hori aittua dakat nik nola zeatzen zuen, ta nola kentzen ziyon orai hori, ta hori barrikan sartzen zula.

(Inazio Lazkano)

Galde-perpaus osagarriak edo zehargalderak

Zehargalderak osatzeko era arruntena aurretik galdetzailea jarri eta ondoren aditzari -(e)n atzizkia gehitzea da.

Mataeya hor omen zeon, eta igual hau, ez dakit, hau egitzat o jo laiken, baiño guk, txerriya eukitzen gendunian, geo guk mataeira eamaten gendun.

(Inaxio Lertxundi)

*Ta, karo, nik banakin **ze**, **ze** kasta zian, **ze** tituluak zezkaen, ta izenak **nola** zezkaen txaletak eta hoiak dana.*

(Jose Agustin Etxabe)

*Hori katxarro batian ura sartu ta, eztakit nik hori **nola** iten zuen. Ikusi nun iten, baiño **nola** iten zuen ez dakit.*

(Manoli Olaizola)

*Ta trenak izaten zitun ba, hoge bat bagoi o, ta igual milla o bi milla, ez dakit **zenbat** jente etortzen **zan**.*

(Pio Illarramendi)

Aurrekoekin batera, badago aukerakoa den beste partikula indargarri bat ere Zarautzen, gaztelaniazko **aber**, ea partikularen parekoa:

*Ta **aber nolakua** nahi zun, ta gutxi gorabehera beak dibujatu're iten bazekiyan, ta, bai. Hola.*

(F. J. Aranburu)

*Eta bestaldetikan, baiñeron bat o mutillen bat o pasako zan beiratzea **aber ze** ikusten zun, ta gu dana kontuatzen giñan. Eta jun zan hara mezeta, ta **aber nola** eskatuko ziyon, ba, porke laga omen zun aita, baiño hilda bezela, e.*

(Feli Arruti)

*Meikua ekarri gendun, ta, eundoko galderak in zizkiyon, ta **aber** ura **nundik** ean zun, ba, sol-dauskan zeon bitartian, ta, **aber** hau ta bestia ta bestia, ta.*

(Manoli Uria)

Zehargalderetan, zuzeneko galderetan moduan, aukerakoak diren beste bi partikula hauek ere azal daitezke: **ote** eta **al**. Bigarren hau zuzeneko galderetan Zarauzko euskaran asko erabiltzen den arren, zehargalderetan gutxi erabiltzen dela esan daiteke.

*Ze **ote** dabillen ta, hantxe, zean, arantza batzuek, eta arantza tartian, ta zea... subia!*

¡Anda carajo!"

(Feli Arruti)

*Uste diat, nik lau urte nitunen o hola iñ **ote** zan gola.*

(Xantos Leunda)

Aditz jokatugabedun perpaus osagarriak

Adierazpen-perpausak direnean, perpaus osagarria nominalizazioen bidez sortu ohi da, eta, gainera, nominalizazio edo aditz-izena hainbat formatan ager daiteke: *-t(z)ea*, *-t(z)eak*, *-t(z)erik...* (ahoskatzerakoan: *-t(z)ia*, *-t(z)iak...*). Ezezkoetan, *-t(z)eik(an)* aldaera ere erabiltzen da Zarautzen.

*Eta lortu giñun Joxe Mari **sartzia** berriro han.*

(Ander Alberdi)

*Zeak esaten, Basarrik esaten zun, euskera **martirizatzia** da hori, esaten zun.*

(Juana Lizarralde)

*Geo tartian berriz beste bat hobia tokatzen bazan'e, txarra izaten zan hua hurrengo jaitako hitz einda **jartzia** ta.*

(Antonio Eizagirre)

*Ta mahatsa heltzen danian ba, igual denboaldi txarra o zeatzen badu ustelegi o jotzen du ta, hor, hor saiatu in behar izaten da, ya azkenengo zea hori apurua izaten da, ze giro dan ta, egualdi ona **eukitzia** hobia da.*

(Inazio Lazkano)

*Bueno, illuna etorri den ta ez den **iteik** izango.*

(Manoli Olaizola)

*Osea, iten ziñun eozeiñen o zean sartu, ta azpitik sartu, zeatik bestela ez zakazun **iteik** eta.*

(Ander Alberdi)

*Geo, hori're, ba, prohibitu in ziun bikaiuak, bere terrotoiuu zala hori, ta haren berriik gabe, per-misoik gabe ez zeola hor **emateik** mezaik, eta.*

(Maria Josefa Txurruka)

*Taillarreako lanakin, ta taillarreako lanakin ez dao bireik **ikasteikan**, e! Ez dao bireik **ikasteikan**.*

(Mariano Gereka)

*Eta habek ez zaken **jotzeik**, federauta zaben, ta ez zakaen **jotzeikan**.*

(Inaxio Lertxundi)

5.2.2.2. Perpaus erlatiboak

Perpaus erlatiboak eratzeko atzizki ohikoena (-en) dugu:

Bai, Getaira ta ibiltzen zianak, zea, Errustanekua, Joxe Maitxo, ogiyakin da ta²² juten zan, eta Getai-ko Pelaioak eta're holako zea zuen, korrienteaua, han ya jendia ibiltzeko ta ya haundixeaua.

(Benita Eizagirre)

²² Egitura berezi hori nahiko arrunta da Zarautzen. Hitz bati eta gehitzean, aurreko hitza *n* bukatzen bada, da bihurtzen da. Hiztunak eta horren zentzua galdu eta bigarren aldiz aplikatzen du eta berria. Esate baterako: *Zumaian da ta* ibiltzen giñuzan amorratzen neskaren bat noiz aterako dantzara. Kideko esaldietan, ordea, *n* hori ez denean, ez da horrelakorik sortzen: *Zumaiaarak ta* ibiltzen hituan amorratzen neskaren bat noiz aterako dantzara.

Guk iten giñun berriyak, este, hemen kamiñeruak diputaziyoko enpleatuak zian hoiek, kamiyotan ibiltzen zianak, eta hoiek eskubidia zituen urtian bota pare bat, ta diputaziyuak geo paatzen ziguen.
(F.J. Aranburu)

Ni gehien harritzen naizena, nere edade bertako jendia, Azken Portun jaiotakuak igeian ez dakiye askoek, Zarautzen jaiota.
(Pio Illarramendi).

Ez, ez, zeatikan zingira behar izaten du, zeak, este, zelaia hor zean zianak, herribeheretan zian zelaia, ixkiñetan beti uran zeak izaten zuen, apartatzeko lekua, separaziyo moura ta hango zingira istingorra sartu iten da.
(Ander Alberdi)

Ikusten den moduan, ondorengo izena desagertzean determinatzailea eransten zaio sarri atzizki erlatiboari.

Bestalde, bada forma berezi bat, Zarauzko hizkeran sarri erabiltzen dena:

*Dalako behia jarri **zuneko hartan**, txerriyak eon zianeko zea **hartan**, hau itxi in zunen, tolaria jarri zun.* (Inazio Lazkano)

Egitura hori leku bat adierazteko erabiltzen da eta horrela osatzen da: aditza + (-en) (erlatiboa) + e (lotura) + ko (nongo) + (izena) + *hartan/hortan*. Tarteko izena ezkutatu egin daitekeela ematen du. Forma hau izenekin erabiltzen den egitura honen parekoa dela dirudi: *-ko hortan/hartan*:

*Paso nibe**leko hortan**.*
(Pako Olazabal)

*Caja Laborale**ko hortan**, lehen Xalegineko taberna zan.*
(Pako Olazabal)

*Gero, hor, kale Zigordian'e Pipasene**ko hortan**, hor'e ukuillua zan.*
(Manoli Uri)

Aditz jokatugabea duten perpausetan *-tako* (*-dako*) atzizkia erabiltzen da:

*Ta gure kuadrilla zan dantzatan hasi zana, osea, fuboletikan hasi**tako** zea bat, ekipo bat fubolekua, ya kostako partiduak laga giñunian dantzakin hasi giñan, txistuakin hasi giñan [...]*
(Ander Alberdi)

*[...] juten ziñan o Tolosa, o juten ziñan Errenteira, eta hor topatzen ziñun gerra aurretikan beak eskribitu**tako** jendia, osea, bere obrak zituen.*
(Ander Alberdi)

*Ta Rebuelta huan gordetzaillia, karabinero baten seme, bueno denboa haietan etorri**tako** larena, guekin ibiltzen zan hua're, ta.*
(Pako Olazabal)

*Sinisten al dezu handik urte batea aprendizan lanak geatu ziala haiek ind**dako** lanak?*
(Mariano Gereka)

5.2.2.3. Konparazio-perpausak

Berdintasunezko konparazioa

a) Maila: *bezain*, *besteko*.

Hua ez dek hi bezain astua!

Tipo hua besteko astapetroikan ez det nik iñoiz ezautu!

b) Zenbatasuna: *adina*, *lain*

Lehenbizikoa da gehien erabiltzen dena, *aiña*:

*Hola izan zan gure gorabehera, gero hementxe hezitu deu, ta, estuasuna etorritakon, zeozer zeatzeko **aiña** erdera bakiu zeozer, jana eskatzeko **aiña** behintzat.*

(Jose Maria Uria)

*Lokatzetan, ta euritan, ta zean, oaiñ **aiña** zea, zira ta, oaiñ **aiña** ezer ez! Holako gauzik ez zan! Abarkak jantzi, abarkak, abarketan gaiñen, eta geo haiek eantzi eskola juteako, ta halaxe.*

(Juana Lizarralde)

*Hortan suertia euki deu ta semiak eta nere mouko kijote antxequak gea, ta ez perru txiki bat irabazi ez, e, baarrunantzat **aiña** geatzen bada, nahio holako mueble zea, trastiak hala in baiño... Ta egurra maite izandu deten pertsona naiz.*

(Inaxio Lertxundi)

Horrekin batera badago mendebalean eta Gipuzkoako zenbait alderditan²³ konparazio-morfematzat erabiltzen den beste hitz bat: *lain*. Askotan konparazio elementuen antzera jokatzen duen arren, ez dirudi zehazki parekoa denik, besteak beste, destinatiboko atzizkia eskatzen duelako beti:

*Erderaz ere fazilidade gutxi xamar dakau, eta bueno, baiño defendit**zeko** lain bakigu, bai.*

(Pepita Goikoetxea)

*Hegaberak horrea sartzen zian, baiña, lurra beltz jart**zeko** lain.*

(Ander Alberdi)

Azkenik, aurreko bien pareko formula izan daitekeen perifrasia ere erabiltzen da: *-tzeko mouan*:

*Hemen bizikletak hola, kontat**zeko** mouan zazkan jendiak, e?*

(Jose Agustin Etxabe)

Azken adibide horretan *-tzeko moduan* egiturak zenbatasuna adierazten duela ematen du, nahiz eta normalean modua adierazi. Kasu honetan *-tzeko beste* egituraren parekotzat har daiteke.

²³ Deba ibar osoan erabiltzen da. Urola aldean eta Goierri inguruan ere ez da arrotza morfema hau (Zuazo, 2002).

c) Modua: *bezela*, *moduan*

*Beste batzuk amak izaten zian, batez, gu eon giñan **bezela** neskame, umiak ateatzen.*
(Karmele Elola)

*Ta honea Reina Victoria etorri zala Zarautza, porke azaleko gaitzen bat euki behar zun, ta aza-leko gaitz hori klaro, ordungo medizina ez zan oain **bezela**, ta komeni zitzaiola ‘baños de mar, en un sitio’, osea leku batian zozoik gehiena zeon leku batian.*
(Pio Illarramendi)

*Ez, ez, hola, ezer esango ez **balue bezela***
(Juanito Agoues)

*Ez dakit, behintzat eskeiñi zitun lurrak, e, “estramuros” orduan esaten zuten **bezela**, herritik kanpora.*
(Jesus Mari Olaizola)

*Ta geo, oain iten dan **bezela** iya, iten zan zeatu, bezperan juntatu, ta geo San Pelaio bigarren goizian oillasko bildu, baserriz baserri hasi, ta geo*
(Xantos Leunda)

*[...] ordun pasatzen zan hegaztiya behetik pasatzen zan, oso behetik, tiro **iteko mouan**.*
(Ander Alberdi)

*Eta hantxe, danak ibiltzen zian: ‘venir y llegar’... euskera batek baiño bestiak baldarrao eiñez, ba, ahal zan **mouan**.*
(Benita Eizagirre)

Desberdintasunezko konparazioa

a) Maila: *baino...-ago*, *-en/-ko aldean*

Baino... -ago da egitura erabiliena (Zarautzen hainbat forma izan ditzake hitz egitean). Sarritan *-ago* horrek *-(t)xe-* partikula darama aurretik, mailakatzaille gisa. Hau erdialdeko euskararen ezaugarria da. Dena dela, mendebalean erabiltzen den *-txo-* mailakatzaillearen adibiderik ere jaso dugu.

*Beak erabiltzen duten doiñu hori **baiño**, hurbillago iten zaigu Oriokoa, e.*
(Jesus Mari Olaizola)

*Tabernan ta pixkat txikito batzuk eanda eaman ta pixkat txispatutakon, ta, zeatu ziyon, ta, ba, “Hiriak **baiño** neriak **hobiak** dittuk”.*
(Joxe Etxabe)

*Eta hau zeantzako dek ederra zeak, han, kalian jarriya zio, oain in die, ez.... kalekua **baiño lehen**o konsegitu nun hori.*
(Xantos Leunda)

*Oain, arraia askoz garestiyo do, baiña ordun, arraia merkeo izaten zan, arrautzak **baiño**.*
(Juana Lizarralde)

*Ba, gure aita oaindikan ezkondu gabe. Ni baiño... ezkondu **baiño** pixkat lehentxio.*
(Joxe Ezenarro)

*Nahiyo holako mueble zea, gauza, trastiak hala in **baiño**...*
(Inaxio Lertxundi)

*Eibarren, Eibarren bai, hua baita Republika deklaratu're han lehen in zan beste lekutan **baiño**.*
(Ander Alberdi)

*Oain **baiño** goizuo. Oain berandura arte eoten da jendia. Ordun pixkat lehentxuo juten giñan etxea. Ordun jendia goizuo moitzen zan etxea juteko.*
(Maria Josefa Txurruka)

Bai, Getaira ta ibiltzen zianak, zea, Errustanekua, Joxe Maitxo, ogiyakin ta ta juten zan, eta Getaioko Pelaiok eta're holako zea zuen, korrientea, han ya jendia ibiltzeko ta ya haundixeaua.
(Benita Eizagirre)

*Hura bestiak **baiño** pixkat zahartxio zan, ta harrek harrapatzen zitun bandera gehienak.*
(Juan Jose Markaide)

Hauekin batera, *-en/-ko aldean* egiturarekin osatutako perpausak ere sarri erabiltzen dira Zarautzen, nahiz eta gehienetan aditza ez den agerian egoten; izan ere, berez, ez dira mendeko perpaustzat jotzen.

*Zeatikan lehenoko **aldian** oain oiñetako ona iten da.*
(F.J. Aranburu)

*Gaurko **aldian** asko paatzen zan.*
(Pio Illarramendi)

*... Industri haundiya zeon Zarautzen oaingo **aldian**, industria fuertia zan mueblia.*
(Pio Illarramendi)

*Oaingo **aldian** asko zeon orduan, e! Uain ez dao ezer'e, orduan asko zeon bai.*
(Feli Arruti)

*Lehen tabernan uango **aldian** dana beteta eoten zan, ba.*
(Jose Mutiozabal)

*Ta boletan'e hamar, hamabi laun, hamalau igual juntatzen giñan, hantxen [...] bi gizon, zea zaharrrak zian orduan gue **aldian**, zaharrrak.*
(Bonifazio Mutiozabal)

b) Zenbatasuna: *gehiago, gutxiago*

*Ta hemen ahari, ahari zalia oain **gehi**o dao ordun **baiño**. Ordun'e bai baserrin ta eoten zian ahariyak eta, ta ardiyak'e danian ta. Oain **gehi**o prepaatzen dittue, ta **gehi**o dabe uain ahari-zaliak, hemen bertan'e, hola.*
(Joxe Etxabe)

Ni uaindikan gooratzen naiz, ta oan, pasia juten naizenian beira eoten naiz, ta, jo, orduan trafikua'-re **gutxiyo** zan, ta tuneletikan ta, abiadura hartzen zuen, eta hasten zian ezkerretikan, da!, da!
(Inaxio Lertxundi)

Hua, oillagorra **gehio** da, mendiyan juten zea zu ta leku itxiyan ta zeagua, ta **gutxiyo** nola iza-ten dan kosta iten da.

(Ander Alberdi)

Garai hartan oso, askoz **gutxiyo** jazten zan oain **baiño**.

(Juan Iturria)

Ta Zarautzen orduan iten zan askoz **gehio** mutillen artian euskeraz, ta neskan artian harroke-riz ez gendun iten euskeraz. [...] Ta, mutillen artian, uain **baiño**, uain **baiño gehio** iten zan euskeraz. Uain adibidez Zarautzen behintzat neskak **gehio** iten due euskeraz mutillak **baiño**.

(Feli Arruti)

Zenbat (eta)... -ago, (orduan eta)...-ago eta Gero(ago) eta... -ago erakoak

Zenbat eta helduo, nik nahio mahatsa.

(Inazio Lazkano)

Eskuz, ta geo hankak garbi-garbi in ta hanka azpiyan: **zenbat eta** gehio zapaldu, **ordun ta earrro** ateatzen zan.

(Maria Larrañaga)

5.2.2.4. Ondorio-perpausak

Sarritan ondorio-perpausetan bigarren zatia, hau da, ondorioa ezkutuan egoten da:

*Hori han, **hain** airosua zan...*
(Pako Olazabal)

5.2.2.5. Denbora-perpausak

“NOIZ” galdetzaileari erantzuten dioten menderagailuak

a) Ekintzak aldi berean gertatzen direnean:

Cachibachi sortu zan, nik hamabi urte, hamaika urte nitula, o sea, hogeita hamabitikan, e, berrogeita bi, berrogeita bi, berrogeita hiruan o hola. ...[...] Bai, ta berrogeita biyan o hiruan o hola izango zan, guk hamaika bat urte genitunian.

(Inaxio Lertxundi)

*Geo, sebua kentzen zan **bitartian**, zeara, kendu **ahala**, berriz'e gehio ematen ziyoen, berriz'e, ayuntamientoko zeakuak, enpleauak eoten zian...*

(Juan Jose Markaide)

*Ta eguna argitu zai eon, atxurrian jardun, ta zortzirak laurden gutxiko kanpaiak jotzen **zunen**, korrika itxea.*

(Manoli Olaizola)

*Hoiek, esajeratu gabe, sei-zortzi bat behintzat bai, sei-zortzi bat hoiek jartzen zian tunelian barruan, eta karo, maria goian **zeonian**, e![...] Eta moillan'e han jendia eoten **zanian**, eozein posturetan eiten zituen saltuak eta zean.*

(Inaxio Lertxundi)

*Bandeja bete **ahala** ematen zaio bonbai ta, bonbai eman ta, bandeja juten da.*

(Inazio Lazkano)

*Ta geo, ibili **ahala**, ibili **ahala**, hankakin ta sebu hori kentzen juten zan, baiño karo, biyan bitartian hartzen zitun jendiak zartaa batzuek, kriston zartaak, e!*

(Juan Jose Markaide)

*Geo zeak iten dituk soruan gariyak ite**akon**, lotu, eta geo, garai haitan euri asko iten zun.*

(Maria Larrañaga)

b) Ekintzak bata bestea baino lehen gertatzen direnean:

*Etzetik erten **baiño lehen** gaiñea, ordulaia hartu, ta ordu laurden bat o ordu erdi bat atzeatu, bestela betzitako itxea etorri behar zan, ta, zea onenian ta, zea, gure pasiatxua Getai birian in gabe nola jungo giñan, ba?*

(Feli Arruti)

*Fronton zineman ibiltzen giñan eskuz soldauska jun **baño lehen**, eskuz.*
(Bonifacio Mutiozabal)

*Nik kalian juntako eon nitzan, hango zaharrantzako zea ite**ako**, in **baño lehen**, hango junta-
kuakin.*
(Xantos Leunda)

*Soldauska jute**ako** zazpirehun pezta o ahorratu nittun nik han irabazita, soldauska jute**ako**.*
(Bonifacio Mutiozabal)

*Batzuek euna zabaldu **baña** bi ordu **lehenuo** igual. Baiña eguna zabaltze**ako**, han.*
(Juan Agoues)

*Geo itten giñun, eguardiyan bazkaita **juteko aurrian** [...] durukua, ya ordun batzuk alde iten
zuen itxea, ta beste batzuek geatzen zian sei o zortzi, o hamar igual geauko zian.*
(Bonifazio Mutiozabal)

c) Ekintzak bata bestearen ondoren gertatzen direnean:

*Ez, abiatuta**kon**, kalabaza ordun ematen zan.*
(Antonio Eizagirre)

*Eta geo, gariya inda**kon** zea iten gendun...*
(Maria Larrañaga)

*Eta hor eoten zan beti, hor eoten zian, ta etxeakoandria beti hor eoten zan, ta piezak inda**kuan**
bukatzen zan.*
(Karme Elola)

*Gure aska hortan han eoten zan inda**kuan**, labeko lana inda**kuan**, masa inda**kuan**, beti
pusketa bat gordetzen zan hurrengo ogiya in behar zaneako.*
(Maria Larrañaga)

*Jaia etort**zian** goiz ta arratsalde han jartzen giñan boletan.*
(Bonifacio Mutiozabal)

*Ta gaiñea askotan, ba, bi eukitzen gendun ta bat ekart**zian** ta bestia, tak!, kanbiyua iteko.*
(Jesus Mari Kaperotxipi)



Kasu honetan ere badira gisa honetako denbora-perpausak sortzen dituzten beste egitura batzuk: *ondoren(en), ta gero, bez(a)in pronto, -z gero...*

*Mahatsa konparaziyoa, behin bildu **ezkeo** nik esaten det etxea, itzalea, itzalian prexkuran mahatsa, ez zea, bildu ta euzkitan, zea kajetan.*

(Inazio Lazkano)

*Illundu **beziñ pronto** jun behar izaten gendun itxea.*

*Batzutan proba **ondorenen** ta bestetan arratsalden ta jokutzen zian.*

(Joxe Etxabe)

“Noizko”, “noiztik” eta “noiz arte” galdetzaileei erantzuten dieten menderagailuak

a) Noizko

Gure aska hortan han eoten zan indakuan, labeko lana indakuan, masa indakuan, beti pusketat bat gordetzen zan hurrengo ogiya in behar zaneako.

(Maria Larrañaga)

Inda zeon erreka, gu jun giñaneako erreka bazan.

(Manoli Olaizola)

Getaian laga eta oiñez juten zian maiñelak, hankahutsik, polaiñak ta, ra, zean hartu, taka-trakata, ta hurrengo goizian, euna argitzeako zeara jun behar, atzea.

(Xantos Leunda)

b) Noiztik

Autobusa jun danetikan zaude hemen itxoiten?

Ni hona bizitzera etorri nitzanetikan dator ixtori hori.

c) Noiz arte

Ta jubilatu nitzanian erosi nun berriya haundi-haundiya ta listo, harekin bukatu arte.

(Ander Alberdi)

Asko ibiltzen giñan hola, iñoiz afaittan ta elkarrekin ta're bai, geo haik eta boseon hasi zan arte.

(Joxe Etxabe)

Pantolingoko zeak iten zun mahastizale batena ta bestiena ta bestiena ta bestiena, jata bukoia bete arte, danakin eitten zun.

(Inazio Lazkano)

Garai hartan, ta gaiñea, urratu arte izaten zan, e, puskatu arte. Erropa bat erosten baldin bazan, ba, puskatu arte.

(Juan Iturria)

5.2.2.6. Modu-perpausak

-ta/-da eta -a

Goizetan hegabera ta illuntzetan ahatia, hegabera're asko, bertan takatuta, kosten takauta, golfian takauta.

(Ander Alberdi)

Ipini in bihar danak, moldatuta, ipini in behar pronto. Ta igual zeoze, astuan pasta puska^{ta} ta haura're konpondu in behar ta, milla gauza! Konponketa're in bihar da ta! Harek ere... erropa zaharrak ere igual etenak eukitzen ditue ta, barrenak zeatuta, urratuta igual ta, haiek ere zuzendu in behar, ba al dakizu.

(Maria Josefa Txurruka)

Oaintxe, zean jartzen gendun, tolarian ya estututa jartzen gendun, estutualdi bat ematen giñun, ta berriz beste estutualdiya prepaatzen gendun, ta berriz estutzeko prepaatzen zan garaian, pixkat estutu ta afaia.

(Inazio Lazkano)

Nei amorraziyua ematen die, "lanian dao". Eonda, ez du lanik ingo! [...] "Euskeraz ba al dakizute! [...] eonda, ez dezue ikasiko, jardunda"

(Juana Lizarralde)

Aurreko hori da formarik arruntena Zarautzen, baina aditzaren atalean aipatu dugun moduan *partizipioa* + *a* formak ere nahiko erabiliak dira:

Ez zan jan behar, ez zan dantzik in behar, zineik ez zeon, dana gaixki ikusiya zeon.

(Feli Arruti)

Eta hau zeantzako dek ederra zeak, han, kalia jarriya zio, oain in die, ez.... kalekua baiño lehenon konsegitu nun hori.

(Xantos Leunda)

Hori bai, hori aittua dakat nik nola zeatzen zuen, ta nola kentzen zion orai hori, ta hori barrikan sartzen zula.

(Inazio Lazkano)

Hori zan seiñalia dana hartua zakala burua, dana, e!

(Manoli Uribe)

Gabe

*Behin batian Txomin, penalti, ta hamaika pauso in, ta, joe, atzea jun dek eta jun dek baloia jo-tzea, ta hi, hankak zea in zion, hi, baloia moitu **gabe**, hanka...*
(Pako Olazabal)

*Etzetik erten baiño lehen gaiñea, ordulaia hartu, ta ordu laurden bat o ordu erdi bat atzeatu, bestela betzitako itxea etorri behar zan, ta, zea onenian ta, zea, gure pasiatxua Getai birian in **gabe** nola jungo giñan, ba?*
(Feli Arruti)

*Pasako zitzaizkiyon, baiño hua akordatu **gabe** ez.*
(Manoli Olaizola)

*Ta alkandorak eta zeak iten gu han, perro txiki bat irabazi **gabe** hainbeste denboan.*
(Jesus Mari Kaperotxipi)

Ezinik (eziñik eta eziñikan aldaerak)

*Aurreatzen gendun, “bueno, ostegun santoako lixto eukiko dek”, eta ezin, ta ostiral santuan, ta hala're, ailleatu **eziñik**.*
(Jesus Mari Kaperotxipi)

*Geo etortzen zan hotzak, bihatzak muiitu **eziñikan**.*
(Juan Agoues)

*Nik askotan ikusi ditut erropa garbitzen ibiltzen dianak, ibiltzen zianak, illuntzia etorri ta bukatu **eziñik** igual, ta bukatuta zakaenak, “bueno, illuna etorri den ta ez den iteik izango”, ta laguntzen.*
(Manoli Olaizola)

*Lo que pasa que, zuk esan, seituan hausten baldin bazuen, bano, han hausi **eziñikan** ta, zea ta, oso polita izaten zan hori, bai.*
(Jose Mutiozabal)

-(e)nez

Eta ebanistei onena, onena, bat han zeon, esaten zuenez, eta harek hamahiru, ta bestiak hamabi, hamaika, horrea.
(Mariano Gereka)

Ba hori, oaindikan Zarautza etortzen da nei esaten dienez.
(Jose Agustin Etxabe)

Ta geo esan ziguen, este, esnia ta gauza gozua gustatzen zaiola, eta gu potia kondensadana txokolatia iteko, ‘leche condensada’ eaman gendun ba, ta hua bota gendun han tarte, ta haren zeara ikusten denez, subia ta hola [...] beltz-beltz-beltz bat.
(Feli Arruti)

Partizipioa + -(e)z/-(a)z

Aditz-partizipioa kontsonantez bukatzen denean lotura egiten duen bokala -e- da normalean; bokalez bukatutako partizipioei -z menderagailua zuzenean lotu beharrean -a- tartekatzen zaiela dirudi. Hala ere, salbuespenak ere badaude.

Geo mutill-ardoko zea kuartuak izaten zun San Sebastian biarrenen, aparte baldin bazan behintzat, eguardin pexta han, zea baten, e, momentu baten eo hola jun pixkat eta danak, ardua eanez, ta han dantza saio bat in.

(Pakita Uria)

Txarrenak Guardia Zibillak ez zian, txarrenak zian telefonotik deitzen ziyoenak Guardia Zibillai, han ziala tiroka iñez.

(Ander Alberdi)

Ta guk dantzaia karlistak eakusten jardun gea, gu txistua juaz, karo! (...) Zean bertan, testuan bertan jarrita lagatzen ziñula ta, zeata guztiya, ahal zun zea guztiyak kenduaz, oztopo guztiyak kenduaz.

(Ander Alberdi)

Bai, geo, ezautuaz ezautuaz antzeman iten da, joño, gizonak habek ez dituk lehen esandako gauzak eta, propaganda mou batea bazan, hitz ein bai, baiño... bai.

(Juan Iturria)

Eta hantxe, danak ibiltzen zian: 'venir y llegar'... euskera batek baiño bestiak baldarrao eiñez, ba, ahal zan mouan.

(Benita Eizagirre)

Ta geo kanbiatuz, kanbiatuz, kanbiatuz, ba, orduan ohitura zeon, ta behin hemezortzi hemeretzi urtekin o, hogeit urtekin, launak iten zian, ta saardoteitik saardoteira.

(Joxe Ezenarro)

-(e)la

Bestela zailla zan, dantzan zean, danok bueltan saltoka gabiltzala... Oain, hurrengo jaitako, gaur juten bazian, ta hurrengo jaitako igual zeatu hitz einda eon, ta.

(Antonio Eizagirre)

Zean, Pioneko etxian aurrian kastillanua dao, gallegua o, ta haendikan, haendikan Parrokialdea, harei peatzen zaiola Parrokialdea zan beste etxia, hua Otamendiñeko...

(Benita Eizagirre)

Azken eunetan, klaro, normala da gaiñea, e, ze in ez zekiyela, ta, ebakuaziyua, ta historiya, ta abar, ta.

(Juan Iturria)

Hoiei Zarautza aitatu ta lerdia daiyola geatzen zian hoiek.

(Jose Agustin Etxabe)

5.2.2.7. Helburuzko perpausak

-t(z)eko

Hauxe dugu perpaus-mota hau burutzeko morfemarik erabiliena:

*Eta, orduan ba, tabakua ereiten zuen hor kanpo fubol alde hortan, tabakua ereiten zuen eta oain txiringitua daon hortan ba, zea zan, sekadora [...] deitzen ziyoen pabelloi haundi bat, ba, tabakuak sekat**z**eko ta, bai, tabako asko eiten zan.*

(Pepita Goikoetxea)

*Bota fondua hor geldit**z**eko.*

(Juan Agoues)

-t(z)ea(ga)tik(an)

*Eta haiei iten hasi ta nik handik urte betea, geo laga in zuen haiek dirua irabaz**te**atik, hortik fuera, nahiko lana zeon orduan, ta benga, ta ni hau iten hasi nitzanian orduan han'e bai.*

(Mariano Gereka)

*Hemen nola udako jendia, aristokratiko asko ibili dan, hor haurrak haz**te**agatik**an** hasten zian, haurrak izan zituenak, haurrak.*

(Karmele Elola)

Subjuntiboa

Subjuntiboak indarra galdu du Zarautzen azken belaunaldietan, eta nagusi-nagusien ahotan besterik ez da geratzen:

*Toalla mouko haundi bat, eta harekin ya **hoztu ezte**in kaxeta sartu arte.*

(Inoxenxio Epelde)

Gaur egun, normalean aditz jokatugabearekin egiten dira helburuzko perpausak. Esatera-ko: *Ura ekarri diot edan dezan > Ura ekarri diyot beak eateko.*

5.2.2.8. Kausa-perpausak

-(e)lako

Beste hainbat eskualdetan bezala, Zarautzen ere asko erabiltzen da:

*Eta, “askoz guapao zabezela danak esaten due”. “[...], beak esango due, ni nahio det hori ga-be ibili, baiño ibili beharra dakat**elako** ibiltzen naiz”.*

(Karmele Elola)

*Ba, Zarautzen ere beti, gauza bat beti esan digutena, “bina-bina”, bustidura ez degul**ako** egiten.*

(Jesus Mari Kaperotxipi)

*Erderaz eakusteagatikan jartzen ziun kastigua, belauniko, besuak zabaldua, euskeraz iten gendul**ako**, ni baiño zaharraua...*

(Benita Eizagirre)

*Eta hark pena haundiya hartu zun bialdu in ziel**ako**.*

(Juan Iturria)

*Uain okerro, gripe pasa det**elako**, baiño beti izan det eta.*

(Feli Arruti)

-(e)la (e)ta

*Ordura arte beti jun zian abertzaliak eskubitik, eta orduan berriz zentrotikan jun ber zuen, eta [...], zentrotikan, zentrotik, deretxismuai zea kentzia zala **ta**, ez ziyola botauko, konbersaziyo haiekin ai zan.*

(Juan Iturria)

*Kobardia nitzan. O batek burla ein ziala **ta**, “ai, burla in die aita, ta ez det nahi jutia” ta erdi ne-arretan ta abar ta, ba.*

(Pepita Goikoetxea)

*Ta iñok nahi ez zun, garesti zala **ta**.*

(Joxe Ezenarro)

-(t(z)ea(ga)tik(an)

Lehenok korbata txoixo moura iten zuen ta geo ikasi in zan ‘el tipo americano’ o zana ikasi nun, ta baserritar danai iteatik, batek bi errial, bestiak errial bat, bestiak...

(Pio Illarramendi)

Hua, ta “ze ai zeate?” esan niyon, ta, “bai, hogei milla duro prestatu dizkiye zeak”, eman zizkiyon ikastolak handik pasa jartzeatikan.

(Xantos Leunda)

Eta

Perpausaren bukaeran jarrita, *eta* juntagailuak ere kausa zentzua har dezake. Aditza, normalean hari lotuta edo oso hurrean agertzen da.

*Hala deitzen ziyen, ez zun izenik **eta**.*

(Manoli Olaizola)

*Bai, izaten zian homenajiak, omenaldiyak, baiño ez dakit ze izen, hola, esateko zeñei, ta. Nik buru txarra dakat **eta**.*

(Jesus Mari Kaperotxipi)

*Asporosa ta, Arruti ta, ba, “bai, hori bai [...] bankuak irikita ta badao diru hori, sortuko genduke”, fabrikantiak zian danak **eta**.*

(Juan Ezenarro)

*Horrea jende asko juten zan, **porke** hoteletakuak'e jun iten zian **ta**.*

(Manoli Olaizola)

*Osea, iten ziñun eozeiñen o zean sartu, ta azpitik sartu, **zeatik** bestela ez zakazun iteik **eta**.*

(Ander Alberdi)

Azken bi adibideetan ikus daitekeenez, perpausaren bukaeran jarrita kausa adierazten duen *eta* partikula kausa adierazten duten beste menderagailu batzuekin batera ere ager daiteke (adibideetan, *porke* eta *zeatik*).

Zeatik(an) eta porke

*Oain ez ziyon iñork kasoik iten **zeatikan** zailla zan orduan.*

(Juan Iturria)

*...basarritako mandiyuan iten zan pexta, **zeatikan**, San Sebastianetan gehienian egualdi txarra izaten zan ba, ta egualdi ona o ateri baldin bazan eo, plazan ibiltzen zian, ta geo illuntzian zeara, basarrita.*

(Benita Eizagirre)

*Norbeak lumatu, **zeatik** bestela amak ez zitun nahi izaten, ta.*

(Ander Alberdi)

*Zarautzen, ba, baserritar guztiyak etortzen zian konpra itea, aldatu're hamen iten zian, **zeatikan** ordun ez zeon ez bideikan ta ez ezer, ta...*

(Antonio Serras)

*Eta hori, esto, Rusira ta dana esportatzen zuen, **zeatik** armaio bat zan, esto nik, ba, kataloguak eta bazkat eta, nik handikan, harrezkeo ibili izandu naiz Valentziyan ta feri guztitan, baiño halako armaioik ez ditut ezautu.*

(Inaxio Lertxundi)

Horrekin batera, gaztelaniatik mailegatutako *porke* ere erabiltzen da, zentzu eta egitura berbera eratuz.

*Goatzen naiz, nik gutxi larrutu, gutxi in izan det, **porke** esan dizut, lana iten nun, baiño, zea zan, behi gazte bat oso gaixtua, bueno, ba, ordun, bastante basuan ibilitakua ta.*
(Jose Agustin Etxabe)

*Eta, pentsa zazu, jo, behiak eta ibiltzen zian kalia hemen... Etortzen zian basarritarrak eta behiak in eta ibiltzen zian hemen kalia, normal, gauzak eta eramatea. Ta, **porke**, kale-basarriyak'e bazeben hamen. Zeanekua, Makatzanekua ta hamen, zean'e bai hamen, e, Zigordi kalia nola dao hor, kaameluak eta nola dabe?*
(Juan Jose Markaide)

*Ta geo gaiñian o tomatia, urte guztiyan eukitzen gendun tomatia. Bai, **porke** tomatia iten zan saltzeko, ta geo plaza eaman, ta bestia enbotellatu ta itxian.*
(Manoli Olaizola)

*Ni gauza askona Zarauzkuak akordatzen naiz, **porke** zan Zarauzko... Guk giñun ixkiñan taberna, hor ixkiñan taberna, hemen jatetxia, goian ostatua, albuaren arrandeia izeko batek eta ardo almazena, ta ordun dana herriko dana hemen ibiltzen zan*
(Pio Illarramendi)

Nola... -n

Hizkuntza erromanikoen ereduari jarraituz erabiltzen da *nola... -n* egitura.

*Ta geo, bosealaiake oso onak zian, zeatikan **nola**, e, gehiegi **nola** ez dan praktikatzen, ba, hemendik atea zian, ba, dozena erdi bat bosealai nahiko onak, probintzi maillan ta ondo ibiltzen zianak, eta geo kuadrillan haiekin entrenatzen zianak eta're boseuan zekiyeenak zian.*
(Inaxio Lertxundi)

*Eta **nola** hortikan diruik ez zuen ateatzen, eta bean ilusiyo guztiya itia zan, juten baldin baziñan erreztasun danak ematen zizkizun: kopiya ateatzen zizkizun, bialtzen zizun, autorizaziya ematen zizun.*
(Ander Alberdi)

*Eta ordun, ba, guk ere ba, umiak in ta **nola** giñaben, erreztasuna gendukan pixkat ohian gehio eoteko, eta holaxe, [...] giñan.*
(Maria Josefa Txurruka)

*Hua, oillagorra gehio da, mendiyan juten zea zu ta leku itxiyan ta zeagua, ta gutxiyo **nola** izaten dan, kosta iten da.*
(Ander Alberdi)

5.2.2.9. Perpaus kontzesiboak

Nahiz (eta)

Zarauzko euskaran *nahiz* menderagailua bera bakarrik erabiltzen da normalean perpaus kontzesiboak sortzeko. Aditz jokatugabeekin osatzen da batez ere.

*Ta arratsaldetan, udaan, udaan San Pelaioa, **nahiz** zean ez, zea **izan** ez, San Pelaioa juten giñan.*
(Joxe Ezenarro)

***Nahiz euki** Donostiyan palaziyuak eta, bere alabakin ta horrea etortzen zan.*
(Jose Agustin Etxabe)

*Ta **nahiz** horrea **jun** gu're, Santa Marinatarrak bezela jotzen genun.*
(Manoli Olaizola)

*Hori da, hori zan hemen itsasondokuak ta hura, **nahiz** oain herri barru-barru-barrua **izan**, pixkat aparte iten zan.*
(Pio Illarramendi)

Arren

Badirudi oso gutxi erabiltzen dela Zarautzen. Hala ere, lekukoei galdetuz gero, ez zaie ezezaguna egiten, eta adibide bakanen bat ere jaso dugu:

*Uda etortzen zanian, Alde Zaharreko hamen hondartza ingurukuak ibiltzen giñan batzuk repar-tuan Kale Nagusitik txaleteta gauzak, tolduak tiratzen launtzen, pezta, pezeta ematen zuen, e!, garai hartan, que era diru asko, porke bi errial baliyo zun Antonianon ziniak eta. Ta hori ta bes-tela batzuk arrantzan, o zea, osea, eskolan **ibili arren**, nahiz zazpi o zortzi o betzi urtekin hori dedikatzen zian.*
(Pio Illarramendi)

Partizipioa + -ta/-da (e)re

Ta barriyo, zian hamen [...] danak'e, hogeita hamar itxe ez zian izango, hoiek kontatuta're.
(Xantos Leunda)

Bai, agorren'e bai ta urriñ'e bai. Ta urriya pasata're, azarun aurrenian'e bai, noiz o noiz.
(Inazio Lazkano)

5.2.2.10. Baldintzazko perpausak

Baldintza erreala da gehien erabiltzen dena. Adibideetan ikus daitekeenez, baldintzak egite-rakoan sarri ez da egitura guztia osorik erabiltzen, eta lehenengo zatia edo bigarrena ezku-tatu egiten dira normalean.

-t(z)en (baldin) ba-, ... -ko

Baldintza errealak burutzeko erabiltzen da.

Ta aber, esnia nun eamango zitun amonak asto hua kentzen baziyoen, ta zapaian gordeta.
(Juana Lizarralde)

Hoiek automatikuak dia, ikusiko dittugu geo nahi baldin baezue, ezta holako...
(Inazio Lazkano)

*Ta geo, hartaka du honek izena. "Ordun, hiria baldin bada, ordun Patxikun kalia (izango da)".
Ta, "bai, hola dek ba kale hau, hau dek Patxiku kalia!". Ta ordutik uaindik izena daka.*
(Ignacia Loiola)

*Hori denboakin, zea balin bazu, hori, santa eskeko kontua, ni bano hobeto esplikatuko dizu
Eugeniok, amistadia baldin bakazu.*
(Jose Mutiozabal)

*Erromin ta Elizamendi ta hoietan eiten zan festa ta Gurmendikuak ite zuen, ba, "bueno, hartu
nahi baldin baezue, guk horrenbeste paatuko deu", ta batzui gustatu iten zitzayoan, perra ba-
tzuk irabazi iten zituen haiek plazan inguruko baserri haietan.*
(Benita Eizagirre)



-ko ba-, ... -ko... -ke

Baldintza hipotetikoak burutzeko erabiltzen da.

*Oriokin askoz ez errexago da... Bueno, ez dakit zenbateaiño dan hori ere egia, e. Askotan hartzen diran elementuak izaten dira oso txikiak, eta ez dakit benetan hori egia dan, eta azterketa bat egingo **bagendu** hor, zenbateaiño dan oso desberdiña **ikusiko genduke**.*

(Jesus Mari Olaizola)

Oaingo bikinik erakutsiko nizkiyoke nik haiei ze esaten duen, oaingo bikini ez, oaingo monokini, o zer dia uainguak... Ai ama! Earra da hau!

(Feli Arruti)

Gure ama [...], ta gure aitak beti esaten zun, "eske emakumiak galtzak jantzi in beharko lituzke, askoz'e epelo ibiliko litzateke ta".

(Feli Arruti)

(Izan) ba-, ... -ko

Burututako ekintzen kasuan erabiltzen da.

*Hua gaztetan ta zeatu **izan balitz**, ta, baiña. Beti dao zeoze, ta.*

(Joxe Etxabe)

Partizipioa + -(e)z gero (ezkeo)

*Geo baltsen ta **iñ ezkeo** mutillakin ta, hoi bikaiuak kongreaziyotikan fuera.*

(Pakita Uria)

*Neskak maritxiko hara **jun ezkeo**, maritxiko.*

(Feli Arruti)

*Eta, Don Fernandoi esan giñun, "bezpereta etorriko gea, baiño fubolea jun behar deu, e!", ta ondo **iñ ezkeo** nahiko denboa zeon, baiño..*

(Juan Ezenarro)

*Osea, **jun ezkeo** goizian beti parejan bat harrapatzen ziñun, bai.*

(Ander Alberdi)

-t(z)ekotan

Menderagailu honek helburu zentzuaz gain baldintza zentzua ere izan dezake:

*Ba, lehorretik izate**kotan**, ba, zea're bai, esaten giñuna, karabiñero arrantza, eo donzellas, karraspiyo, ta zea...*

(Inazio Makazaga)

Ezean

Ezezko baldintzetarako erabiltzen da morfema hau. Egitura honekin erabiltzen da: **-(r)ik (partitiboa) + partizipioa + ezian**.

*Berroeita zortzi ordu kajan batzeko ez dao kuido**oikan**, fermentatu **ezian**. Ta mahatsa tratuan baldin badabil, puskatu gabe ta, ondo baldin badabil, ba, mahatsak aguantatzen du.*

(Inazio Lazkano)

Forma hori gero eta gutxiago erabiltzen dela dirudi. Gazteek ezagutzen dute, baina ez dute erabiltzen. Nagusien artean, berriz, arruntagoak dira era horretako esaldiak: “*lanik in ezian diruik etziok*”, “*eurriik in ezian urik etziok*”, eta abar.



5.3. LOKAILUAK

Lokailuak perpausaren mailatik gorako elementuak dira. Testu-mailako lotura semantikoa bideratzen dute. Bost talde nagusitan sailkatzen dira: emendiozkoak, hautakariak, aurkari-tzakoak, ondoriozkoak eta kausazkoak.

5.3.1.- EMENDIOZKO LOKAILUAK

5.3.1.1. Ere

Lokailu hau izen sintagma, aditz edo adizlagunen baten laguntzan erabiltzen dugu, beti zerbaiten ondoan eta ondoren. Beraz, ezin da perpaus hasieran agertu. *E* eta *re* dira Zarauzko euskararen erabiltzen diren forma arruntenak.

Bestia Zapatero deitzen ziyoena're, gerra denboan alde in zun harek'e.

(Joxe Ezenarro)

Horeukitzen zituen neguan'e, eta geo, San Pelaiokuak, han, moillan, jatsi baforetikan zeara, triñeroa, eta itxea.

(Xantos Leunda)

Lehen San Juanetan bakizu, han'e ohitura haundiya, ta hemen'e Serrasenian ta arbolak os-truak berdiak, haiekin jarri zea karruai, soiñua jarri han, eta bi hiru etortzen zian panelo gorriya-kin. Zuk akaso ezautu're ingo zenun, Etxaniz aguazilla ezautu al zenun?

(Jose Mutiozabal)

Perpaus koordinatuetan ere erabiltzen da lokailu hau: 'eta X ere (bai/ez)'.

Euskeraz ta erderaz ere bai.

(Pepita Goikoetxea)

San Pelaio ingurutan [...] gizagaixua, zea iten zuna, ta lanpernetan'e jata hatzaparrak eta han-kak, eta kopeta're bai, danak urratuta etortzen zan hura.

(Juan Agoues)

Sarri, 'bai+eta' eta 'ez+eta' elementu autonomotzat jotzen ditu hiztunak, 'baita' edo 'ezta' ahoskatuz, eta 'ezta X ere', 'baita X ere':

Bai, zea! Ezta ezer'e!

(Jesus Mari Kaperotxipi)

Eibarren, Eibarren bai, hua baita Republika deklaratu're han lehen in zan beste lekutan baiño.

(Ander Alberdi)



*Bai, burrukan esan nahi det, **baïta** sentido onian'e bai.*

(Ander Alberdi)

*Oan, beno, hori asko izanda **ezta** akordatu're ez dia ingo!*

(Jose Mutiozabal)

Azken adibideetan ikus daitekeenez, *ezta* eta *baïta* elementu autonomotzat jotzen direnez, batzuetan jatorrizko zentzua galtzen dute eta ondoren beste *bai* edo ez bat sartzen du hiztunak.

5.3.1.2. *Gainera (gaiñea)*

*Korpus Kristi, hori're bai. **Gaiñea**, San Antoniona oso dotoria izaten zan.[...] Festa haundiya izaten zan, prozesioya jutia, ta hua ikustia ta. **Gaiñea**, erramu egunetan, mutill iya danak o gionezko danak trajia estreñiatzen zuen.*

(Feli Arruti)

*Bazan gizon haundi bikain bat, este, hemen Salbide o deitzen ziyoena, Teresa, zean, hemen taberna bat badao, zea, este... hemen ixkiñan, udaletxeko onduan daona, jatetxia're bada, **gaiñea**.*

(Juan Iturria)

*Gure itxian beti eoten zian bi eo hiru bai; bat karrerakua, **gaiñea**.*

(Jose Agustin Etxabe)

5.3.1.3. *Eta gero*

Berez hala ez izan arren, lokailutzat jo daiteke unitate hau.

*Ezerez, jostatzen ta, ganauakin soruan itulan ein ta. **Eta geo** eskola, ta behiñ hamalau urte ezkeo...*
(Pepita Goikoetxea)

*Dotriña eakusten ziun ta, errezuak eakusten zixkigun ta, eskribitzen'e eakusten ziun, baiña kuentetan ez zekiyen beak, eta... hola zeatu giñan. **Eta geo**, nik zenbat urte nitun?...*
(Benita Eizagirre)

*Eta holako jokuak izaten zian. **Ta geo**, ez zekit, batelan estropa batzuek noiz eo noiz igual izango hituan?*
(Juan Jose Markaide)

5.3.1.4. *Behintzat*

*Deitzen ziyoen Ana "Gexurti", ez dakit, gezurak esango zitun o, ta Ana "Gexurti" deitzen ziyo-en, **behintzat**.*
(Manoli Uria)

*Iriña, gariya ehotzen zuenak ez dakit hemen zeon. Aia **behintzat** juten giñan, bi astoe kin. Ba-ten artua ta bestian gariya.*
(Maria Larrañaga)

*Uain adibidez Zarautzen **behintzat** neskak gehio iten due euskeraz mutillak baiño.*
(Feli Arruti)

5.3.1.5. *Behinik behin (behiñipeiñ/biñipiñ)*

*Baiña hemen ez det uste holako zeak izango zanik, zeatikan sozialistak hamen indarra ez due izan. Gerra aurretik **behiñipein** ez, ta geo're neurriyan.*
(Ander Alberdi)

*Haundi xamarrek gustatzen zaiola sillak eta zean ta bestia, eta bueno, in zun **behiñipein**.*
(Mariano Gereka)

*Eta **behiñipein**, handik ekartzen due hori, ta da egurra goorra, ta zuri-zuri-zuriya, garbi-garbiya.*
(Mariano Gereka)

*Sagardoteiya? Lau edo bost bat bai, bai, gehio: Erreustanekua, Anttoninekua, Royaltiko behi-yan, Mirandanekua Estaziyoko onduan, Etxiarrenekua... Hoiek **biñipin** akordatzen naiz.*
(Josefa Lizaso)

5.3.1.6. *Gutxienez (gutxiñez)*

Gu **gutxiñez** bagiñan zortzi o beatzi ta, “toca ronda”, zenek gutxiña jotzen zitun, paatu in behar.
(Joxe Ezenarro)

Gutxiñez badia lau hillabete jun zala.

5.3.2.- HAUTAKARIAK

5.3.2.1. *Bestela*

Hola, afiziyo pixkat eta dunak eta bai, bazian, baiña **bestela** hola zeaik ez. Harri jasotzen ta aixkolairik eta... Afizionau maillan ta pixkat zeatzen zian, ta ibiltzen zian ta, baiña ez, **bestela** ez.

(Joxe Etxabe)

Ez dakit nik, ya hitz eiteko gogo batekin, **bestela** beldurrez eoten giñan.

(Feli Arruti)

Baiño zea beiratu behar izaten gendun, ze koloretako pelikula zan, o roxa, o urdiña, o horiya.

Bestela ezin zan jun.

(Feli Arruti)

5.3.2.2. *Gainontzean (gaiñuntzian, gaiñontzian, gaiñontzen...)*

Gaiñuntzian, gaiñontzian, gaiñontzen eta gaiñuntzen dira Zarautzen erabiltzen diren aldaerak, besteak beste.

Geo hurrengo, telefonikatik honea bat, zeakua, Agirrekuak in zuen etxia, eta **gaiñuntzian**, Arrutineko taillerra ta zian, baiño hoiek'e, hoiek danak soruak zian.

(Xantos Leunda)

Ta, hor **gaiñuntzen** Elizamendiñ ta Erromiñen. Urteta beheko zea honek, e!

(Antonio Eizagirre)

Nexka-pxeta izaten zan. Ta **gaiñontzen**, mutillak, mutill-ardok...

(Pakita Uria)

Ta igual esateko postura, “Zertzu?”. Hola esaten due. **Gaiñontzian**, ba, ez, ez, ez, ez dek zeaikan.

(Juan Agoues)

Arbola puntan iyo, gexiyak jan, eta gero itxea etortzen nitunan, holako gauzak iten nizkiñan.

Beste **gaiñuntzian**, ba, eskolako nola gogo gutxi nekan, gutxi estudiatu nian.

(Joxepa Antoni Aristi)

Laurgaiña ta hola jutun giñan. Huaxe, Laurgaiña ta. **Gaiñuntzen**, Urtetan bertan. Izaten zan ba, San Sebastian euna ta bigarrena.

(Benita Eizagirre)

5.3.3.- AURKARITZAKOAK

5.3.3.1. *Berriz*

*Eta haren euskera iten zun pixkat. Aitak, **berriz**, beste mouro iten zun, ta guk biyana entzun, ta ez dakit ze ateako zan, aizu!*

(Inaxio Lertxundi)

*Ta bestiak juten zian hurrengo goizian, karro haundiya, saria hamen, oain [...], Argiñano daon hortan zabaltzen zian sariak haiek. Zeakuak, Kintanak **berriz**, moillan, eo Munuan.*
(Xantos Leunda)

*Eta, hoixe, postreik eta ordun ez zan izaten. Eta zean, **berriz**, astegunian, **berriz**, babarrunak... Plater haundi bat babarrunak.*

(Juana Lizarralde)

*Eta hor'e, **berriz**, danetakuak zian, frailetan'e karlista aldekuak, abertzale aldekuak, hoiek jakiten zian bai baita konfesiyoatik'e bai, ta mou askotatik enteratzen zan bat. Ta Parrokiyan'e bai. Parrokiyan, **berriz**, este, zea bat ekarri zala, este, ikurriña berri bat ekarri zala, ta bedeinkatzea.*
(Juan Iturria)

5.3.3.2. *Halare, hala(z) ta guztiz (ere)*

*Paretak'e ezkerrez o eramateko're oso ondo zeatzen due. Gu askotan juten giñan, **halare**, geo're.*
(Maria Josefa Txurruka)

*Ta arrantza iten bazu geo gora're bai. Ba, **halare**, neke gutxi iten da arraia daonen'e!*
(Juan Iturria)

*...este, espartuzkuak eta gomazkuak'e bai; baiño danak puskatzen giñuzten, ta... Eta zulu a abar eta, **halare**, segi iten gendun, e, honbre, bai, bai, bai, bai.*

(Juan Iturria)

*Baiña, **halaz ta guztiz'e**, kanpotik ekartzen zan berriya hobeto, zeauak etortzen zian, konserbatuauak, edo indartsuauak.*

(Inazio Makazaga)

*Sugurra luzia zun, ta jata, gorri-gorri inda hotzak. Hola etortzen zan. Ta, **hala ta guztiz** ez, ba.*
(Juan Agoues)

5.3.3.3. *En kanbio*

Gaztelaniazko lokailu hau ere sarritan erabiltzen da.

‘Esnezalia’, basarrikuak ‘esnezalia’ behekuai, ta behekuak ‘esnezalia’, basarriko ‘esnezalia’.

En kanbio, Tolosan ez, Tolosan ‘esneduna eta ‘esnezalia’.

(Benita Eizagirre)

*Hemen bazan esaera, igual [...] enkargatu gibela, eta **en kanbio**, Iñurritzako ganauak eta, gibela txarra ateatzen zitzaioen danai. Nunbait hoiek jaten zuen belarra, zea, gatz-urakin ibilitako belarra zan, ta nunbait kalte iten ziyoen.*

(Jose Agustin Etxabe)

*Ordun erribera guztiya neretzat. Ni, o beste bi eo hiru, baiña libre. **En kanbio**, jai goizian, ordun ya jendia pillu.*

(Ander Alberdi)

5.3.3.4. *Ordea (ordia)*

*Errota kantidadia zan, **ordia**, orduan. Zazpi o zortzi bat zian hementxe bertan.*

(Maria Larrañaga)

*Zarautza zea, txipiroia harrapatzeko Zarautza aberatsa izan huan orduan. (...) Oain, **ordia**, etortzen dituk aurki garnata itea atunetako ta zimarroitako ta, atuna itea. Ta hoiek hondartza dana garbitzen due.*

(Juan Agoues)

*Ez, ba, paga zenbat zeon, **ordia**? Zenbat paga **ordia**? Durua o, zazpi pezta o...*

(Feli Arruti)

5.3.3.5. *Edozein modutara ere (eozein mouta're)*

*A, bai? **Eozein mouta're** ez nakan juteko asmoik.*

*Alperrik da. **Eozein mouta're**, elkarrekin bukauko due bi hoiek.*

5.3.4.- ONDORIOZKOAK

5.3.4.1. *Bada (ba)*

Ahozko hizkeran sarritan erabiltzen da.

*Nola esplikatuko dizut... **Ba**, aingeru guardakuan seillua jartzen giñun agarren.*
(Ignacio Makazaga)

5.3.4.2. *Orduan, ordun*

*Osea, hori dana iten ziñun ahal bazan beste bat aurea botata, zeatik zu hauntza juten baziñan ezezkoa ziñun. **Orduan** topatu behar ziñun baten bat karlistan usaia zuna o giro hortakua zana o... firmatzeko eskaera.*
(Ander Alberdi)

*Ezizen kontuan etxeak ematen du, edo, e, nortasuna, ez e, ez personak. **Orduan**, ba, hor mordoska bat gea zarautzarrak Txiliku izena daukatenak, daukagunok.*
(Jesus Mari Olaizola)



5.3.4.3. *Hartaka*

Baliteke, hedadura zabalagoa duen *hartara* edo *horretara* formaren aldaeraren bat izatea (oinarriz, *hartaraka*).

*Prepaatu afaia uain. **Hartaka** geo lehenuo erretiatuko gea.*

*Azkenian bakoitza bere itxea jun zan. **Hartaka** ez zeon diskusiyoik.*

5.3.4.4. *Oseake (o sea que) / Asike (así es que)*

*Ni're earki dantzatzen nitzan! Gogotsua nitzan eta alegría, eta, geo, baiña oso zea, e, ez [...] b-
tere neure, zea, kontserbatu zun nik nere garbitasuna, **asike**...*

(Maria Josefa Txurruka)

*Eta, este..., "ordena zekau afiliatuan semia bakarrikan zeatzia, **asike** erten in berko dek". Beno,
ni kalea.*

(Juan Iturria)

*Taillatik bizitzen? Ba, hamahiru urte ta erdi o, izango nitun, eta ni hogeta betzikua naiz, **oseake**...*

(Mariano Gereka)

*Nei ez zien hartu, e, zeon, e, Hijas de Mariasetan. **Oseake**, kongregaziyan ez zien sartu nahi.*

(Karmele Elola)

5.3.5.- KAUSAZKOAK

5.3.5.1. *Zergatik (zeatikan)*

*Baiña sekulan esan gabe ze talde zan azpikua, hori... **Zeatikan** Zarautzen, txarrena Zarautzen
bertan zeon, hamengo informaziyo ematen bazizuen, ep!, "se acabó"!*

(Ander Alberdi)

*Bai, gerra garaian. **Zeatikan** hura gaiñea aldein in zun geo, gerrakin batian jun in zan, ta, geo
gaixki xamar ibili zan etorri zanian o zeatu zanian'e.*

(Juan Iturria)

*A, bai, bai, bai, iten giñun, iten giñun. **Zeatikan** lehenoko aldian oain oiñetako ona iten da.*

(F.J. Aranburu)

5.3.5.2. Eske

Eske, kanpoko... horrei ez, baiño beste askoek'e miña hartu diye hor. Kanpoko jende hori etortzen da, zea ikusten due, e, e, ze izaten da hori? Tranpoliña.

(Pako Olazabal)

Tirantiakin eta gona txiki motx batekin, e, dexente. Baiño **eske** hoiek nahi zuen gona belauneaiño!

(Feli Arruti)

Debekatu iten ziguen, hori egiya da, baiño debekatzen ez ziyoenai're, jo, **eske** euskeraz ite hori, "eso era de kaxeras, eso era ridículo", ulertzen al diazu?

(Feli Arruti)

Eske... erreminta ebaki... egurra ebakitzen ta ikasten dezunian, orduan aurrian jartzen dizunak ze jartzen dezun, ikasten, ikasten, ikasten, derrepentian iten dezu hor.

(Mariano Gereka)

5.3.5.3. Izan ere

Lokailu hau oso hedatua dago Euskal Herrian eta Zarauzko euskararen ere erabiltzen da. Ez gehiegi, hala ere.

Makiña bat kontu kontauko nizuke. **Izan'e**, bihurriyak giñan gu txikitán.

Orduan, **izan'e**, arrantzaliak'e, arratsaldian Getaitikan nola etortzen zian? Jesus! (...) goizian etortzen zan baldeka zeakin, baldekakiñ o, batzutan otarrakin, eta...

(Benita Eizagirre)

6 Lexikoa

Hiztegia eta aldaerak

Herri bateko azterketa dialektologikoa egiteko orduan, alderdirik zailenetakoa lexikoa izaten da. Nola jaso herri batean erabiltzen diren hitz guztiak? Nola zehaztu zeintzuk diren herrikoak eta kanpokoak? Lexikoak ez du mugarik eta hitzek erraz egiten dute hegan herri batetik bestera.

Zarauzko hiztegia batzea urteetako lana izan daiteke, baina bide horretan lehen urratsa jarri nahi dugu, behintzat, eta Zarauzko hitzen zerrenda hau osatu dugu. Zerrenda honetara zein hitz ekarri behar genituen erabakitzeke, zenbait irizpide jarraitu ditugu. Hasteko, hitz arrunt-arruntak direnak, Euskal Herri osoan edo gehienez erabiltzen direnak (*ama, etxe, etorri, egun, ogi...*), ez ditugu zerrenda honetan sartu. Alderdi dialektologikotik edo etnografikotik interesa izan dezaketen gainerakoak, ordea, bai. Bestalde, aldaera lexikalak ere bildu ditugu (*ahate* ala *ahata*? / *txerri* ala *zerri*? / *bidali* ala *bialdu*?), datozen urteotan egingo diren beste azterketa dialektologiko batzuetan lagungarri gerta daitezkeelakoan. Kontuan izan, hitz askoren kasuan, adiera batzuk bakarrik sartu ditugula, berezienak, eta ez orokor eta arruntak.

Hortaz, batez ere, hiru hitz mota interesatu zaizkigu: 1.- Gaur egun ezezagun samarrak direnak (beraien hedadura geografikoa zabala izan arren); 2.- Zarauzko berezko-berezkoak direnak (*txaparruak, arkamurka...*); 3.- Aurreko multzoetakoak izan ez arren, interes dialektologikoa dutenak Zarauzko euskara ingurukoekin alderatu ahal izateko.

Sarrerak adierazteko orduan, lehenengo Zarautzen jasotako forma jarri dugu, beltzez. Kontuan izan, guk jasotako formak sartu ditugula; horrek ez du esan nahi Zarautzen beste forma batzuk ere erabiltzen ez direnik. Ondoren, euskara batuko forma ezberdina denean, parentesi artean adierazi dugu. Gero, beharrezkoa izan zenean, azalpenak idatzi ditugu. Eta bukatzeko, kasu batzuetan, adibideak gehitu ditugu; hiltunen transkripzioetatik jasotako adibideen kasuan, kaketx bidez markatu ditugu eta hiltunen izena ipini dugu.

Zarauzko lexikoa aztertzeke orduan, pentsatzekoa den moduan, Euskal Herri osokoak diren hitzak alde batera utzita, Gipuzkoako bereizgarri direnak nagusitzen dira, adibidez: *aitona, amona, apar, bukatu, faborez, garo, hitz egin, ilbeltz, mingain, triku, urruti, zilbor...* Eta aldaeren artean, *apaiz, bezela, bixki, burni, elbi, eskubi, txindurri, udara...* Gainera, bakarrik Urola Kostakoak eta ingurukoak direnak ere baditugu: *jela, laga, txaparro, txomin* ('logurea')...

Hala ere, askotan hitz-bikotea agertuko zaigu Zarautzen, bata ekialdekoagoa eta bestea mendebalekoagoa: *haragi/okela, eltxetxo/itxulapiko, eskumin/gorantzia, atera/irten, eska-le/eskeko...* eta aipagarria da askotan mendebaleko forma nagusitzen dela, adibidez: *izeko*

(vs. *izeba*), *buztan* (vs. *isats*), *zatar* (vs. *itsusi*), *zapatu* (vs. *larunbat*), eta abar. Horrekin batera, gainera, mendebalekotzat hartzen diren hainbat hitz eta aldaera ere ezagunak eta erabiliak dira Zarautzen, horietako zenbait, hiztegieta "Bizkaiera" markarekin agertzen direnak, esaterako, *dandarrez*, *hurre*, *sastar*, *taket*, *txikot*, eta abar.

a(ra)zi ('arazi')

abanta, abantada ('abantada') • abantada, bultzada, abiadura.

abantan, abantadan ('abantadan') • lasterrian, abidan, azkar.

abaraska

abarketa, aparketa • espartinak.

aberas, aberats ('abersats')

abildade ('abilidade') • abilezia.

abiya, abailla ('abiada')

adats • ilea, ilajea.

afaitan ('afaritan')

agar, adar ('adar')

aidanez ('agidanez')

aidanian ('agidanean')

agindu, aindu ('agindu')

agiri ('ageri')

agorril, agor, aor ('agorril') • iraila

"Aorren bildu [...], urriñ'e askotan. Bai, agorren'e bai ta urriñ'e bai. Ta urriya pasata're, azarun aurrenien'e bai, noiz o noiz" (Inazio Lazkano)

agure

ahate, ahata ('ahate')

ahate txiki • hegaztia, *Anas crecca*.

ahaztu

ahitu, ahittu ('ahitu')

ahizpa

ahusapai ('ahosabai')

ahuspez

aillatu, aillatu ('ailegatu') • *iritsi* ere erabiltzen da.

aillubre, aillurbe ('ailorbe') • belarra, *Trigonella foenum-graecum*, ganaduak jaten duenean, nabarmena da esnearen zaporean.

aingura

aiotz ('aihotz') • baserriko tresna.

aireplano • hegazkina.

aitagiyar ('aitaginarreba')

aitajaun • aitabitxi, aita besoetako.

aitatu ('aipatu')

aitita, attitta ('aitita') • oso gutxi erabiltzen da; arruntena *aitona/aittona*.

aitona, a(i)ttona • kalean *aitona* bakarrik; baserri inguruan *aittona* ere bai.

"Barrika haundiya ta betetzen giñun guk! Aittona, ni, ni... haundiyena. Neonek ekarri ditut galantak. Aittak'e zanak'e bai, baiño. Aittona haundiya zan, [...] haundikua, harek zenbatekua ekarri ote zun? Ta eskumotxa" (Inazio Makazaga, *Beaxai*)

aitu, aittu ('aditu') • 1.- entzun; 2.- ulertu; 3.- usaina hartu.

"Udaberriyan ta, bedan kantatzen aittu ta, jarri ta aitten eon, askotan. Bat baiño gehio, hamengo arbolak haundiya dia, zuhaitz luzia, goi-goian jarri, puntan-puntan ta kantari, goiza, egunsentiya, jarri aitzea" (Ander Alberdi)

aixkire ('adiskide') • *Bi hoyek aixkiriak dia aspalditik*.

aixkiretu ('adiskidetu')

ajol, ajola ('axola') • *Nei bat'e ajolik ez, ordia!*

akatu ('akabatu')

akordatu • 1.- gogoratu *Akordatzen al haiz ze parriak ein genitun Joxantoniokin?*; 2.- konturatu. *Akordatu gabe joan zaiguk ordubeteko lana.*

alajainkua ('alajainkoa')

alajaiña ('alajaina')

alasa ('arasa')

albuan ('alboan')

aldamenian ('aldamenean')

aldata

aldein ('alde egin') • joan, ihes egin

aldi

aldiz

aletu • urkuldu, aleak burutik askatu, adibidez, artaleak.

alka(ba)n gorri • hegaztia, *Burhinus oedicnemus*, atalarra, *alcaraván*.

alka(ba)n zuri • hegaztia, *Tetrax tetrax*, basoiloa, *sisón*.

alkandora

alki ('aulki')

almitz, albitz ('albitz') • belar txarra, *Brachypodium pinnatum*.

alpapa • belarra, ganaduaren jana, *Medicago sativa*.

alper, alper-harri • harri zilindriko handia, soroetako lurrak goldatu ondoren zapaltzeko erabiltzen zena.

alu • 1.- babua, inozoa; 2.- maltzurra, intensio txarrekoa.

amagiyar ('amaginarreba')

amama • hiltun gutxi batzuen erregistroan badago, baina oso-oso gutxi erabiltzen da.

amandre • ama bitxia, ama pontekoa; oso gutxi erabiltzen da.

amarra • karra-marroa.

amarrabeltz • arroketako amarra edo karra-marroa, hondartzakoa baino ilunagoa eta handiagoa.

amarratxuri • hondartzan izaten den karra-marro zuria; arroketakoa baino txikiagoa.

amase • ore mahaia.

amauma, amoma ('amaraun') • armiarmasarea.

amo ('amu')

amona

amona mantagorri, mantalgorri, mantan-gorri • intsektua, gorputz gorria eta tanto beltzak dituen kakalardo txiki ezaguna, *Coccinella septempunctata*.

amona-saltoka • umeen jolasa, elkarri gainetik salto eginez jostatzen dena.

amorrai ('amuarrairain')

amorrizi ('amorrarazi') • haserretu: *Kontuz ibili ai, amorrizten ari nauk eta.*

amorrui • 1.- errabia; 2.- zerbaiteko gogo handia: *Ehizaa juteko amorratzen nabillek*. 3.- ironikoki, batere gogorik ez izan, *Horrek zeukak lanerako amorrui*.

ana(a)erdiko ('anerdiki') • anega erdiko neurria, gariaren kasuan 24 kg inguru.

anaa ('anega') • 48 kg inguruko pisu-unitatea.

anai, anaya ('anaia')

andre • hiltun batzuek batik bat *emazte* esateko erabiltzen dute; bestela, *emakume* orokorra ere erabiltzen da.

angira, aingira ('aingira') • arraina, *Anguilla anguilla*.

anikote • golfeko makila.

*“**Anikotetan** deitzen giñon guk. **Anikotia** ta hori hamen inguruan bakarrik dao. (...) Zarautzen bakarrik dao izen hori, **anikotia**. Hori da, ba, zea, makilla bola jotzekua. Hamen “palo de golf” ta hor Lasarten’e bazan beste zelai bat, eta hemen bakarrik esaten da zea hori. Ta nei esaten die **anikotia** makilla, ta geo eantsi zea bat, koskor bat, egur tako bat o nola esaten da? Ta harrei zulatu ta harei eantsi. (...) Harekin bakarrik’e gustoa, baiña bestela egurrakin ibiltzen omen zuen gu baiño lehenokuak hamen. Ba, **anikotia**. Ta hitz hori ez dakit nun daon, o frantsesa dan o nundik datorren, ez dakigu. Baiño hamen beti guk **anikotia** ta **anikotetan**. Osea que, lehenguak hola jokatzan zianak, ma-kill horrekin, **anikotetan** zeatzan ziyoen”. (Santos Azpeitia)*

antamoilla, automoilla (‘automobila’) • autoa, kotxea

antxeta • hegaztia, gehienbat kaio txikiak, *Larus ridibundus*; hiztun batzuentzat, baita ere *Sterna sp.*

antxiña (‘antzina’)

antxua (‘antxoa’) • arraina, *Engraulis encrasicolus*.

antxume

antzar (‘antzara’) • hegaztia, *Anser anser*.

antzeman

antziar (‘antzigar’) • giro hotzak zuhaitzetan sortzen duen izotz handia.

apaiz

apajo, apaejo (‘aparejo’) • arrantzarako amudun tresna: tretzak, eskuzko aparejoak, eta abar. Hedaduraz, adjektibo bezala ere erabiltzen da, alproja, bihurri... adierazteko: *Ez dek apajo earra!*

apal • 1.- harrotasunik gabea; 2.- arasa.

apar

apasta • antxoen (edo beste arrainen baten) hondarrekin egindako pasta, arrain handiagoak erakartzeko eta harrapatze-ko erabiltzen dena; lehen egin egiten zen, orain erosi ere bai.

apopillo (‘apopilo’)

apreta

aran • 1.- *Prunus domestica* eta bere fruitua 2.- *Prunus spinosa*, patxarana egiteko erabiltzen den fruitua eta zuhaixka.

arbi • landarea, ganaduaren jana, *Brassica napus*.

arbitxori • hegaztia, *Serinus serinus*.

ardandei (‘ardandegi’) • *ardoteia*, bodega, ardoa saltzen den lekua.

ardatz • 1.- ejea, bi gurpilen artekoa; 2.- baserriko tresna, haria egiteko erabiltzen dena.

ardi-borda • ardiak gordetzeko erabiltzen den mendiko eraikina; baserri inguruko-ari *arteiya* (‘arditegia’) esaten zaio.

ardi-guazi (‘ardi guraize’) • ardiak mozteko guraize handiak.

ardora • arrainek (batez ere, antxoak) gauez batzuetan ematen duten fosforeszentzia; aparejoek ere, batzuetan, argitasuna ematen dute.

ardoran ibili • sonarrik eta antzekorik ez zegoenean, antxoa arrantzatze-ko erabiltzen zen modua; gauez, harri berezi bat (*danba-harriya*) itsasora bota, eta antxoak bildurtuta egiten zuen ardora (fosforeszentzia) jarraitu.

ardotei (‘ardotegi’) • *ardandegia*, bodega, taberna; txakolindegia- eta sagardotegia-ren ondoan, ardoa besterik saltzen ez zuen taberna.

argioillar (‘argioilar’) • hegaztia, *Upupa epops*.

argizai (‘argizari’)

argizaitu ('argizaritu') • lurrian argizaria eman, egurra zaintzeko.

aritu • nagusien artean *jardun* erabiltzen da gehiago; gazteen artean alderantziz.

arkakoso ('arkakuso')

arkamurka • zuhaitza, artelatza, kortxoia ematen du, *Quercus suber*.

arkea, arkaa ('arkara') • ardiak eta ahuntzak arreske egon, ernalketarako prest izan.

arlote

armayo-xixku ('armairu-xixku') • armario baten zulo bakoitza.

arnasian ('arnasean') • itsaso azpian oxigenorik gabe aritu, *a pulmón libre*.

arotz

arpan, arfan ('arpan') • enborretatik oholak ateratzeko zerra mota.

arpegi ('aurpegi')

arraba • arrainen eta itsasoko beste animalia batzuen arrautzak.

arrabiya • amorrua; gaur egun ia ez da entzuten, baina orain urte batzuk arte asko erabiltzen omen zen.

arraí ('arrain')

arraigorri ('arraingorri') • triglidoen familiako arrainak.

arraí-saltzaille ('arrain-saltzaille')

arranpala ('arrapala') • hondartzara eta kaira jaisteko aldapa.

arranpillote • bataioetan dirua botatzen zen *arranpilote*; gozokiak ere *arranpilote* botatzen dira.

arrantxo • otordutik kanpoko jan-edana, normalean goiz partean, hamaiketako; lagun artean, 'poteoa'.

arrantzale

arrastaka

arratsalde, aatsalde ('arratsalde')

arratsian ('arratsaldean')

arrobiyo, arrubio ('arrabio') • animalia, *Salamandra salamandra*.

arroka • itsasaldeko haitzak.

artaburu

artagailur • arto landarearen zatia, artaburuaren eta artalorearen artekoa.

artalore • artoaren lorea.

artazorten • artoaren lastoa, kirtena.

artei ('arditegi') • ardien txabola edo ukui-lua; batzuetan, itxitura besterik ez.

arto • landarea, *Zea mays*, orain gutxira arte, baserriko produkturik oinarritzakoa. Artoaren zati nagusiak dira: *artalorea*, *artagailurra*, *artaburu*, *artazortena*, eta *maizorriak*. Artoa nahikoa hazi orduko, aurrena, *artalorea* kentzen ziztzaion, landareak ez zitezen gehiegi hazi. Zenbaitetan, *gailurra* ere kentzen ziztzaion (*artaburuaren* eta *artalorearen* arteko zatia), baina lan handia zen eta etekin gutxikoa. Azkenean, *artazortena* biluztu egiten zen, *maixorriak* kenduz, *maixorria eginez*. Ganaduari ematen ziztzaion.

artxaa ('artxara') • ardiei jana emateko egurrezko ganbela edo askak.

artxoxo • hegaztia, arabazozoa, *Sturnus vulgaris*; Urtetan *napar-artxoxo* ere esaten diote.

aska • 1.- harriz egindako putzua, animaliek ura edateko tokia; 2.- egurrezko ontzia, tresabian jartzen dena ganaduari jaten emateko.

askotan • *maiz* eta *sarri* ez dira gehiegi erabiltzen Zarautzen.

aspo ('hauspo')

astaperrejill ('astaperrexil') • landarea, perrexilaren antza du, baina usainik ez; berrez hazten da mendian.

astearte

asteazken

astebukaera

astegun

astegun buruzui ('astegun buruzuri') • asteguna izanik, zerbait berezia egin dela adierazteko modua: *Asteun buuzuiya, eta hi festan?*

astelehen

asti

asto-otar ('asto-otarre') • astoari basta gainean jartzen zaizkion otarreak, jeneroa garraia dezan.

astun

asun

atai ('atari')

atal • laiak jasotako zohi zati bakoitza.

atarramendu ('atarramentu') • emaitza, ondorioa. *Mutil honekin ez degu atarramendu onik ateako.*

atea ('atera') • 1.- sacar; 2.- salir. Bigarren adiera horrekin, *erten* ere erabiltzen da.

atealdi ('ateraldi')

ateri

atximurka ein ('atximurka egin')

atxituta egon • leher-leher eginda egon.

atxur ('aitzur') • lurra lantzeko tresna. *Atxur zabala*, betetzeko erabiltzen da; *erdikua*, lurra jorratzeko; *atxur txikiya* landareak aldatzeko; *hozpikoa* bi hortz dituen da; *jorraiya* soroak jorratzeko erabiltzen den txiki-txiki bat da.

atzapar • Zarautzen arruntagoa da *bihatx*. Esanahi aldetik, *atzaparrak* behatz handiak dira gehienetan, eta beti eskukoak; beharbada hurrago daude *erpe* ('zarpa') adieratik. Esaterako, haur batek eskuak pastelaren gainean jartzen baditu, amak

esango dio: *kendu atzapar hoiek oaintxe bertan*. Neurri batean, *atzaparrek* zentzu kolektibo bat dute, ez *bihatx* bakarra, denak batera baizik: *atzaparretan ibili, atzaparrekin lepotik heldu...*

atzaparka ein, atzamarka ein ('atzaparkatu') • harramazkatu.

atzea ('berriz')

"Handik erten nitunan ta atzea nere koñatanean bizi nitunan" (Joxepa Antoni Aristi); *"Gero, gau-eskolan, jarri zala atzea Urte-tan maistra; eta hara urte baten zeezer hasi giñan"* (Joxe Mari Uria)

atzekoz aurrera • alderantziz, atzekoa aurrean eta aurrekoa atzean. Batez ere arropari dagokionez, *atzekoz aurrea dakazu nikiya!*

auka • gariaren eskola, ahotza.

aurki ('laster')

aurrea-pasan ('aurrera pasan') • garia makinan jotzeko modua, garikoa hartu eta makina barrura sartu. Garia jotzeko hiru modu zeuden: *sartu-atean*, *aurrea pasan* eta *txanketan joz* (eskuz).

aurren • 1.- lehen, lehenbiziko; 2.- hasiera, *urte aurrenien*.

aurrenengo, aurreneko ('aurreneko') • lehenengoa, lehenbizikoa.

aurreskua atera • horrela esaten diote zaharrenek *aurreskua* edo *soka-dantza* izeneko koreografia multzoa egiteari: desafioa, azeri-dantza, agurra, zortzikoa eta bukaerako arin-arina eta fandangoa, hori guztia, dantzariak elkarri eskua helduta eta soka bat osatuz. Zarautzen, gaur egun, bi egunetan ateratzen da aurreskua: San Juan bezperan, Musika Plazan, eta San Pelaio egunean, Iñurritzako zelaian.

auzoko

axai, axari ('azeri') • animalia, *Vulpes vulpes*.

azal

azaldu

azaro

azelga

azenayo ('azenario')

azkazal, atzazkal, atzazal, azazkal ('azazkal')

azkonar • animalia, *Meles meles*.

azpikoz gaiñea ('azpikoz gainera') • hantaz gora, azpikoz gora: *Hantxe zeon ka-tua, lurrian azpikoz gaiñea*. Arropari dagokionez, alderantziz janzte, barruko aldea kanpoan dela.

aztarren • aztarna.

aztarrika

baatzui, baatzui ('baratxuri')

baatza, batza ('baratze')

baba • janaria, gaztelaniazko *haba*.

babarrun • indaba, *Phaseolus vulgaris*.

"*Bai. Ta **babarruna** ta hoiek'e ekartzen zituen plaza saltzea, **babarruna**, esnezaliak eta're eskatzen zuen batzutan ta bestetan ba, plazan saldu, **babarruna** ta, mendak eta...*" (Benita Eizagirre)

babu ('babo') • inozoa, lerdoa.

babuolki, babolki ('babo-odolki') • erremediorik gabeko babua, *babuarrayua*. Nagusien artean oso erabilia izan da.

bafore • arrantzontzia, batez ere garai batekoak, lurrun bidez zebiltzanak.

baga • hondoko itsasoa.

bahe, bahi, baya ('bahe')

bai ba • noski, jakina.

baillara ('bailara')

baina • leka.

baiño ('baina')

bakaillau, bakailleu ('bakailao') • arraina,

Gadus morhua.

bakandu • soildu, mehaztu, soroan landare asko daudenean, batzuk kendu.

bakasta • zomorro odolzalea, akaina.

baldar

baldarretxe • baldar hutsa, egundoko baldarra.

baldinbaite(z) ('baldinbaitere') • gaztelaniazko 'espero' izan daiteke. Hau da, norbaitek badio "*Lasai, eingo dik!*", besteak erantzungo du "*baldinbaite*".

bale ('balea')

balts • dantza, baile

bañero ('baineru') • hondartzako zaindaria, batez ere garai batekoak, aberats jendeari hondartzan bainua hartzen laguntzen zietenak.

barbantzo ('barbantzu')

barbarin • arraina, *Mullus barbatus*, salmone.

bare • 1.- barraskiloaren antzeko animalia; 2.- erraia; 3.- itsasoaren egoera lasaia, zakarra ez denean.

bargasta • neska mari-mutila; bihurria, ere bai. Oraindik txikia denean, gehiago *matraka*.

barrabas-belar • belar txarra, *Oxalis latifolia*, sustrai sakon-sakonak ditu eta azpian patatatxo ugari; ongi kendu ezean erraz ugaltzen da berriro; uztauarekin batera, baratzean ager daitekeen belarrik kaltegarrienetakoa.

barrika

barru • denbora adierazteko ere bai, *egun batzuk barru...*

basahuntz • basoan bizi den ahuntz tanke-rako edozein animalia: orkatzak, oreinak, eta abar.

basakatu • katu itxurako mendiko animalia guztiak oro har izendatzeko erabiltzen den izena: *basakatu ipurtatx* (*Putorius putorius*), *basakatu lepatxuri* (*Martes foina*).

basarri ('baserri') • gazteen artean, *baserri* ere bai.

basarritar ('baserritar')

basaurde, basurde ('basurde')

basoillo ('basoilo') • hegazia, *Tetrax tetrax*; izen hau ezaguna da, baina Zarautzen gehienbat *alkan zuri* erabiltzen da.

basur • ihintz handia, landare eta belardietan sortutako hezetasun handia.

bazkaitan ('bazkaritan')

bazkalondo

baztar ('bazter')

beetzi, beatzi ('bederatzi')

be(a)tzurrienak ('bederatzurrienak') • *novenario*.

beela, bela, berla, beehala, behala ('berehala') • laster. Kontrako zentzua ere izan dezake sarri, ironiaz: *beela etorriko dek*, kostako zaio etortzea, ez dek gehiago etorriko.

begi-ataatzaille ('begi-ateratzaile') • zomorro hegalaria, burrunzia.

begi-zulo

behazun

behe-laiño ('behe-laino')

behiñipein, biñipin ('behinik behin')

beiratu ('begiratu')

beitu

belardi • zelaia, belazea.

belar ondo, belar ondu, balar ondo ('belar ondu') • belar ondua, ganadu-jatekorako lehortua.

belar-zelai • belarretarako lur saila.

belatxinga • hegazia, *Pyrrhocorax graculus*.

belauniko

bele • hegazia, *Corvus corax*.

behiñe(z) ('behin ere ez') • inoiz ere ez.

*"Eta geo, umiak e izate zitun, baiña ro-sak ez zitun **behiñe** izaten, **behiñez**."*
(Benita Eizagirre)

beraniente ('beraneante') • turista, udazalea.

berbena-belar • sendabelarra, adibidez, eztularentzat enplastoak egiteko, arrautza zuringoa eta linaziarekin nahastuz.

berdel • arraina, *Scomber scombrus*.

berdoi ('berdeloi') • hegazia, *Carduelis chloris*.

berga-belar, belga-belar • ganadu-jatekorako ereiten zen belar mota, *Trifolium* generokoa.

berorrika ('berorika') • abade eta sendagileei, errespetuz, berori tratamendua emanez hitz egitea.

berriketan ein ('berriketan egin')

berritsu

besape

bestela

beta • denbora, astia.

betazal, petazal, begiazal ('betazal')

betille, begiko ille ('betile')

betire ('betiere')

bezela ('bezala')

bezin ('bezain')

bi-bitan • jokoetan binaka aritzea, bi biren aurka: musean, pilotan, eta abar.

bialdu ('bidali')

bidetxior, bidezior ('bidezidor')

bihatz, behatz ('behatz') • eskuetakoak zein hanketakoak.

"Bazan gurian ardo-mahatsa, baiña bihatzak'e beltz-beltz-beltz eitten zitu-na, e! Mahats alekua lehertzen bazan, bihatzak'e tinta bezala zeatzen zun, belzten zizun, bez-more, bez-more, ta ardua ona eitten zan." (Inazio Lazkano)

bihurritu • okertu.

bikain • nabarmena; hedaduraz, sendoa, gizona.

bildu • 1.- jaso, batu; baserri inguruan *bittu* esaten da gehiago; 2.- esnea jetzi; 3.- gauzak paperarekin batu, esate baterako, opariak.

bildur ('beldur')

billatu ('bilatu')

billera ('bilera') • gutxi erabilia (normalean *reuniyua*), baina hiztun nagusien artean ere ezaguna da eta erabiltzen da.

birabirki, birabirkin, biribirjin, birijin ('birabarki') • egurra zulatzeko tresna, eskuzko daratulua.

biribil, borobil ('biribil')

birigarro, biriarro, bidigarro ('birigarro') • hegaztia, *Turdus philomelos*.

birika

birraitona

birramona

biten, bitenean jokatu • pilota jokoan, bi egitera jokatu; askoren artean jokatzen da, eta azken gelditzen denak bi tanto egiten ditu.

bittu, bitu ('bildu') • bildu, batu.

"Ta mahatsa heltzen danian ba, igual denboaldi txarra o zeatzen badu ustelegi o jotzen du ta, hor... apurua izaten da, ze giro dan ta, egualdi ona eukitzia hobia da. Ta bitu, bitu, bat bitu, ta bestia ma-

hatsa tratatu. Mahatsa konparaziyoa, behin bildu ezkeo nik esaten det etxea, itzalea, itzalian prexkuran mahatsa, ez zea, bildu ta euzkitan, zea kajetan" (Inazio Lazkano)

bixigu ('bisigu') • arraina, *Pagellus bogaraveo*.

bixki ('biki')

"Duque de la Vega zea hoiek, bixki hoiek eoten zian zean, gabonak arte iya. Automobilla're beayena zan hamen lehenbiziko... Ni zaldiya ta karruak (geo zaldiya ta kotxiakin) Zarauztik Donostira ezautu nun" (Xantos Leunda)

bixkor, bizkor ('bizkor')

biyar ('bihar')

biyotz ('bihotz')

bizilaun ('bizilagun') • auzokoa, alboko etxekoa.

bizkar

bizkarrezur

bolara, bolada ('bolada')

borondin • arrain mota.

borroka, burruka ('burruka')

bosteko • bost hortz dituen baserriko tresna, *bostortza*; lurra lantzeko erabiltzen zen.

bostortz • baserriko tresna, *bostekoa*, artalea sartzeko ildo egiteko eta atzera bueltan hazia estaltzeko; zenbaitetan patata ateratzeko.

botalarri

branka • itsasontziaren aurreko aldea.

brankolin, frankolin ('frankolin') • hegaztia, errioetan eta paduretan agertzen diren hegazti hankaluzeen taldea izendatzeko erabiltzen da *txilipotak* baino handiagoak eta *kulixka haundiyak* baino txikiagoak diren hegazti limikolen taldea.

*"Ixtingorrak, oilagorrak, itsasoko zea, ahatiak, kulixkak, **frankoliñak**, holakuak bai. Danian, erribera dana. Uain dana itxiya dao, zeak, itxiak iñak dabe, ha-men, San Pelaioko hortatikan, ta. Baiño lehen hori dana zea zan, zelaia"* (Ander Alberdi)

breka • arraina, *Pagellus erythrinus*.

buerda batian eon • minez egon, oinaze batean.

bukatu, bukau ('bukatu')

bukoi • upel handia.

bular • gutxi erabilia; batez ere emakumeen kasuan, egoera jasoetan, *titi* arruntagoaren orde; gizonezkoen kasuan, eskuarki, *petxua* esaten da.

burni ('burdina')

burni-ziri ('burdin-ziri') • egurrak pitzatzeko erabiltzen den ziria; hesolak egiteko, adibidez.

burruntzali-sare • sukaldeko tresna, *espu-madera*.

burutik behera kaka in ('burutik behera kaka egin') • burla egin, trufatu, iseka egin, modu nabarmenean.

burutik beherako • hotzeria, marranta.

buruz gain • neurritz kanpo, ahal dena baino gehiago. Batez ere lanarekin erabiltzen da, oso-oso lanpetuta zaudela esateko: *azkenaldiyan lan mordua dakat, buruz gain*.

buruzganka ein, buruzkin ein ('buruzganka egin') • txiribueletak eman.

buztaina hori ('buztanikara hori') • hegaztia, *Motacilla cinerea*.

buztaina txuri ('buztanikara zuri') • hegaztia, *Motacilla alba*.

buztan • badirudi *isats* eta *buztan* ez direla erabat baliokideak zarauztar batzuen-

tzat, baina ez dago garbi zein egoeratan bereizten diren; dena dela, *buztan* askoz gehiago erabiltzen da, oro har.

buztin

daldarra, daldara ('dardara')

dana ('dena')

danbarrazka • norbait haserretzean eta alde egitean ateari emandako danbateko bortitza.

danbolin • 1.- musika-tresna, danbor txikia; 2.- txistua; *txistu* eta *txistulari* hitzak erabiltzen badira ere, oraindik herriko zaharrek *danbolin* eta *danbolintero* erabiltzen dituzte horien orde; baita *ttunttun* ere.

danda • auzolanean egindako lana, baina herri-ondasunen inguruan egiten dena. Zarautzen, bereziki: erribera inguruko erretenak garbitzea, herri-bideak konpontzea (adibidez, kanposantura doana), eta moilako lanak. Auzkoen artean arautua dago eta derrigorrezkoa da. *"Kanposantuko bidia **dandan** iten zan, eta igual esaten zan: etzi **danda** zeok, eta **Salbide aldera jun beharra zeukeau**."* (Sebastián Eizagirre).

dandarrazka • zerbait tarrasean eraman. *Soiñeko luzia dandarrazka eamaten du beti*.

dandero • auzolanean danda-lanak egiten aritzen direnak.

dantzatu, dantzan ein

debalde • doan, musu truk.

deitu • *hots egin* eta *kasu egin* ere asko erabiltzen dira.

dema-plaza • probalekua, idi-demak egiten diren tokia.

denboa, denba, denbo ('denbora')

denborale • eguraldi txarra, ekaitza, erauntsia.

derrepentian ('derrepentean') • bat-batean.

derrigorrian ('derrigorrean')

desberdin

destea, destearri ('geztera') • erremintak zorrozteko harri zilindrikoa, ardatz baten inguruan birak ematen dituen.

dontzella ('dontzeila') • arraina, *Coris julis*.

dunba • txintzarri zabala.

durdu, durdo ('durdo') • arraina, *Labrus bergylta*.

eakutsi ('erakutsi')

eaman ('eraman')

ear ('eder')

earki ('ederki')

eatsita ('eratsita') • oso nekatuta, leher eginda.

eaulki, ealki ('eralki') • bahetu, irina bahean iragazi, zahia bereizteko.

ebaki

ebi ('euri') • *euri* ere esaten da, baina *ebi* aldaera da nagusi.

"Ebiya iten zunen lokatzetan ta, zean, bide txar askuakin ta etorrita... astuan, bai, astuakiñ" (Benita Eizagirre)

edadeko • adineko, nagusi.

egotzi, eotzi ('egotzi') • 1.- pegatu, itsatsi; 2.- kulpak norbaiti bota: *Nei eotzi nahi dixkit beak indakuak!*

egualdi ('eguraldi')

eguardi, egoaldi ('eguerdi')

egutera

ehizakur, ehiza-txakur ('ehiza-txakur')

ehiztari

eiñ, in ('egin') • gehienetan *in* ahoskatzen da. Hainbat adiera ditu; batzuetan 'esan' adiera ere har dezake: *Han etorri zan kulpa nik nekala iñez*.

elbi, euli ('euli') • klase asko daude, *etxeko elbiya, elbi berdia, elbi haundiya, mandaelbiya, iteulia, elbi beltza...*

eleiza, eliza ('eliza') • Zarautzen bietara entzuten da, auzoaren eta adinaren arabera.

eleizakuak eman ('elizakoak eman') • hil aurreko sakramentua eman.

elkor

elorrियो eduki ('elorrío eduki, izan') • ederra eduki, ederra jasan behar: *Elorriyo daukak itxea juten haizenian*.

eltxetxo ('eltzeitsu') • *itxulapiko* ere esaten da.

eltxo

eltze • sukaldeko ontzi handia.

eltzekondo • eguerdian sobratu eta gaue-rako uzten den jatordua (antzina, gehienetan, babarruna).

elur

emakume

emen, men, omen ('omen') •

*"Erromeia, bere eunian bakarrik iten zan. Toki txikiya ta, jende asko ez zan izaten. Agarraua Azpeitiyan debekatuta **emen** zeon, agarrauan iten zana pekatua **emen** zan. Eta geo dana mojak juten zian! Guk? Ba! Ez! Librian, ta gero helduta, ta gero librian ta. Tarteka, aldaketan ibiltzen giñan. Batian ein dantzaldiya zean, eta geo agarrauan" (Maria Josefa Txurruka)*

enbata • galerna, itsasoko ekaitza.

endreatu ('endredatu')

entiarro, intiarro ('entierro')

entroka ibili • umeen jolasa,

"lau izkiñetara" jolastea.

eoki ('egoki')

eokitu ('egokitu') • 1.- tokatu; 2.- bururatu; 3.- elkar ikusi, tope egin: ...*ta egun batian kalian egokitu giñan, ta esan zidan...*

eoskor ('egoskor')

eozein mouz ('edozein moduz')

epai • zerbait ebaki ondoren geratzen dena. Zuhaitz bat bota ondoren ebaki den uneari *epaia* deitzen zaio; berdin, ogia ebakitzen denean. *Epaia berdindu* ere esaten da, gaizki moztutako zerbaiti itxura egokia ematea.

eraiñ, eaiñ ('eragin')

eran, ean ('edan')

erauntsa, erauntsi ('erauntsi') • eurite handia, ekaitza.

erbi

erbiñure, erbiñore ('erbinude') • animalia mustelidoa, *Mustela nivalis*.

erbi-txakur • erbi-ehizan erabiltzen diren zakurrak.

erdera ('erdara')

eri • elbarria, ezintasun fisikoren bat daukana, gauza ez dena.

erla • arraina, *Lythognathus mormyrus*.

erlakizten ('erlakaizten') • larru azalean sortzen den infekzio minbera.

erle

erlemando, erlamando ('erlamando') • erle arra; oro har, erle handia.

ermiarma ('armiarma')

ermiarma-sare ('armiarma-sarea') • sare itxura duena; bestela, *amauma*.

ero

erori

erostun • eroslea.

erraiñ, erreñ ('errain') • semearen emaztea.

erralde, arralde ('erralde') • pisu-neurria, 5 kilo inguru, bereziki okela pisatzean erabiltzen da.

erratz

erre • itsasoaren edo eguzkiaren eraginez zahartu eta apurtu, *ajatu*.

erregen (egun) • Errege eguna, urtarilaren 6a. Gaur egun, gehiago erabiltzen da *Errege-egun*.

erregeak • gaur egun *Errege magoak* hedatzen ari den arren, tradizioan *Erregeak* izan dira beti Zarautz inguruan.

erreka

erreminta

errenkan, erreskan ('errenkadan') • ilaran, segidan, elkarren jarraian.

erreten • ubidea, zanga baino txikiagoa. Hedapenez, baita *ipurdiko erretena* ere, *Ipurdiko erretena bistan zeukak*; edo *titi arteko erretena*.

erretiratu, erretirua hartu • jubilatu.

erreus, erreux ('erreus') • akastuna, kalte-tua, mailaturen bat duen jakia, hala nola fruta, arraina...; *jenero erreusa* saltseko balio ez duena; *erreuxak jan*, aurreko egunetako sobrak jan.

errez ('erraz')

erribera • errekaaren alde biak; Zarautzen, gainera, erreka alboko lur-saila, Zarautzko familia askok erreka ondoan zutena; etxearen neurriaren arabera, bat, bi edo hiru izaten ziren.

errita ('errieta')

erriyo, erriyu ('errio') • errekaaren edo ibaia-
ren azken zatia, itsasoratu aurrekoa.

erromako zubi

erronda • txikiteoa, poteoa.

erronka

erropa ('arropa')

erruz • ugari, franko.

erten ('irten') • 1.- aditza. Adiera berarekin, *atera* ere erabiltzen da; 2.- adjektiboa, ausarta.

esate bateako ('esate baterako')

eskalaproi ('eskalapoi') • arrantzaleek eta anguleroek erabiltzen zituzten oinetakoak, egurrezko zola zuten, eta zangoak babesteko goma edo zira.

eskale • *eskeko* ere erabiltzen da.

eskarola

eskeko

eskeiñi ('eskaini')

eskerrik asko, eskarrik asko ('eskerrik asko')

eskubare, eskobare ('eskuare')

eskubi ('eskuin')

eskumin ('eskumuin') • *gorantzi* ere erabiltzen da.

eskumutur

esnatu

esnezale • esneduna, esne-saltzailea; esne industria daukana ere bai.

esparloi • itsasoko ugaztuna, *orka*. *Orcinus orca*.

estalpe

estamu ('estomago') • *Estamuko miña gailanta*.

estrata

estreiñeko, estraiñako ('estreinako') • aurrenekoa, lehenengoa.

estropalai ('estropalari') • arraunlaria, estropadetan parte hartzen duena.

etxe, itxe ('etxe')

"Hor aurrian zan, mataaya hor zan. Mataayan'e ni gerra denboran, karo, anaiak

itxian iten zuen lana, bi anaiak haratei-yan, itxian, baiño ni kanpuan. Baiño, ganaua hil behar zanian ta, o ganaua hiltzea ez, baiño bakaziyuak baldin banitun, laundu in behar itxian. Esaten dizut ba, udaan haragi-partitzen. Ta desiatzen baiñatzea juteko, ta..."
(Joxe Agustin Etxabe)

eten

etzan

etzi

etzidamu

euki ('eduki')

eundo ('egundo')

eundoko ('egundoko') • sekulakoa, izugarria

exei, exeri, ixei ('eseri')

ezizen • izengoitia

ezka(a)tz ('ezkaratz') • atari, behebarru, etxearen sarrera.

"Hortxe frentian, kale hori dana zan adokiña, adokiñakin. Ta behiak eta kaka ta iten zuen, ta hau juten zan, ta zepua jartzen zun txolarriantzako zepua jarri, artaliakin, eta bere itxeko ezkatzetikan beira eoten zan hau. Ta, ba, txolarria juten zanian, ta!, harrapatzen zunian, korrika jun, ta. Pentsa zazu, jendeik eta ez zan ibiltzen. Kale erdiyan zepua jarrita txolarriak harrapatzen garai haitan." (Juan Joxe Markaide)

ezkaillu, ezkalu, ezkalu ('ezkailu') • arraina, *Phoxinus phoxinus*.

ezpaa ('ezpara') • euli mota zapala, *Tabanidae* familiakoa.

ezpaiñ ('ezpain')

ezpata • gurdiaren zatia, gurdiaren atzean eta aurrean jartzen diren taket luzeak.

ezpel • zuhaitza, *Buxus sempervirens*.

eztarri • 1.- garganta: 2.- faringe.

ezten

eztei

faborez • mesedez.

farre, parre ('barre')

festa armatu

flakatu • mehetu, argaldu.

fregaketan ein, fregaketak ein ('fregaketak egin') • harrikoa egin, ontziak garbitu.

gaba, gau ('gau')

gabarrantza ('gau-arrantza') • gauez, argia erabiliz, harraldean egiten den arrantza.

gabarroso, kabarroso • hegaztia, ubarroia, *Phalacrocorax carbo*.

Gabonak

gaexti ('garesti')

gaiñez ('gainera')

gaiñuntzian, gaiñontzian, gaiñuntzen, gaiñontzen, gaiñutzian ('gainontzean')

gajo, gaju ('gajo') • emakumeekin erabiltzen da; gizonezkoekin *gizaajua*.

galanki • asko, ugari.

galazi ('galarazi')

"Guk, eskopetakin ibiltzen giñanian, eskopeta txikiya, hamabiko txikiya izaten zan, tiro txikikua. Eta ibiltzen ziñan jardiñetan, txaletetan, ta galaziya zeon. Ordun Guardia Zibillak eta ibiltzen zian, harrapatzen bazizuen, saltaka in behar." (Ander Alberdi)

galbahi, galbahe ('galbahe')

galdetu

galeper • hegaztia, *Coturnix coturnix*.

galera

galerna

galga • maila, neurria; esate baterako, oholen *galga* (lodiera) edo ura zein *galgatan* dagoen (hozberoa).

galtzaa, galtzaa-bide ('galtzada') • 1.- harritzko gurdibidea; 2.- probalekua, idi-probak egiteko esparrua.

galtzak • prakak.

galtzerdi • batez ere emakumezkoen luzeak; gizonezkoenak *galtzetiñak* ere bai.

ganajateko ('ganadu-jateko')

ganau ('ganadu')

ganauzale ('ganaduzale') • behi asko dituen, ganadu sal erosketaz bizi dena.

ganbaill • baserriaren goi-goian, teilatupean, jatekoak gordetzeko tokia: artoa, babarruna, intxaurrak, tipulak, baratxuriak, sagarrak, gaztainak...

ganbara

ganbiatu, ganbittu, kanbiatu • aldatu, kanbiatu.

gañeko ('gaineiko') • gurdiazen zatia, belarra eusteko gainean jartzen den makila.

garagarri • ekaina.

garai

"Ba, garaian garaikua. Garai bat izaten zan igual xakaponetan ibiltzekua. Kanike-tan ibiltzekua, hori gehio mutillak. Txinguak, txingua deitzen giñon, in horrela marra batzuek plazan o lurrian, eta harri koskor batekin. O bestela tximilikuarteka, e, geure taldia, geure lagunak: mutillak, neskak... Ta sokasaltua. Negu-negua sokasaltua izaten zan. Ta xakaponak eta udaberriyan izaten zian, ulertzen al dezu? O sea, garaian garaiko jolasak zian. Ta geo hondartza, ze esanik ez. Behin garaia, behin udabarriya aurreatu ezkeo, hondartzan, gu beti hondartzan. Kixkille-tan ta hor ibiltzen giñan beti, danak busti-busti inda etxea!" (Feli Arruti)

garatu • zenbait landareren kasuan (arbia, letxuga...), kimu berriak sortzea; *tontortu* eta *likutu* ere esaten da.

gari lastomotx • 1950 ostean azaldu zen gari mota, bertakoa baino motzagoa, baina emankorragoa.

gariko • gari-azaoa, lasto-sorta, garia ebaki eta jo aurretik egiten den sorta.

garitxo, garitxu ('garatxo')

garlopa • arozgintzako tresna.

garo

gazi-kutxa • jakiak gatzetan ontzeko kutxa.

gatzalehor • artaburua, baboa.

gazte-hazi • txikitatik handi datorrena, esate baterako, sei urte izanik, hamabi ematen dituen, itxuraz zein izaeraz. *Sei urte izango dixkik, baiña oso gazte-haziya dek; nere 12 urteko semia adiña haundi izango dek.*

ge(e)xi, ke(e)xi, keixa ('gerezi') batez ere lehenbiziko forma (geexi); kostaldetik urrunen dauden baserrietan, *keixa* ere bai.

geatu ('geratu')

gehiegi

gehiena, gehien ('gehien')

gelditu

gerra altxa • gerra hasi.

gerri

gertatu • jazo, suertatu.

gertu

gibel

gibelerrai • animalien barrukoak. Beti pluran erabiltzen da, *gibelerraiak*.

gibelurdiñ ('gibelurdiñ') • perretxikoa, *Russula virescens*.

gillame • arotzen tresna, eskuzko egurrezko erreminta. Tupiari bezala kutxillak jartzzen zaizkio, eta makinan pasa ezin diren moldurak ateratzen ditu.

gilloi, giddoi ('gilo') • hegaztia, *Crex crex*.

giltzurdiñ, giltxurdiñ ('giltzurrun')

gingill ('gingil') • ganglio.

*"Ateatzen omen zian hamen bulto batzuek bezela... ta ezerrekin ez... **gingillak** deitzen zitzaioen. **Gingillak**. Eta ateatzen zian, ta orduan zeik, botikik ez haiek zeatzeko, eta Txapartegi ezautzen dezu zuk? Txapartegi. Haren aitona, aitona, bizitzen zian, Parrokiko onduan, eta andria zun arrantzalia. Harrek zazkan gatza, gatza, ez dakit ze klase izango zan. Ta harrek kontatzen zakiyen. Ta hola hasten zan, ta "**gingillak** dira betzi, betzi, zortzi, zortzi, zazpi, zazpi, sei, sei, bost, bost, lau, lau, hiru, hiru, bi, bat, **gingillak** dira zart!". Ta gatza botatzen zun, zea, ba, surta, ta hola in behar gendun beatzi egunian, ta 'desaparecido'. Gatz haiek bazuen zeoze, o kontatzeko moua, eo, ez dakit. Sorginkeia!" (Manoli Uria)*

giyar ('gihar')

gizaldi

gizaseme

giza(a)jo ('gizajo')

gizen • 1.- lodi; 2.- egurraren bigarren geruza, azalaren azpikoa.

glope • hegaztia, *Morus bassana*. Getarian ere *glope* esaten da, Orion *zanga*, eta Zarautzen bietara, hiltunaren arabera.

gogatsu

gogoatu, gooatu, goatu, guatu ('gogortu') • nagusien artean gehiago erabiltzen da *gogoan eduki* edo *gogoan hartu* eta batez ere *akordatu*.

gol, golf ('golf')

*"Basarriyaz aparte, ba, arrantzan tenporada bat eta gero **golian**... Ba, **golian** gu hiru anaiak'e bai. Akordartzen naiz tenisaren lehenbizikoz hasi nitzanian pilota bil-*

tzen, bakizu nola ibiltzen giñan pelotak botatzen, ta. Sei errial euneko, e, ta goizian dana markatu, letxerakin markak, ta...” (Xantos Leunda)

golde • lurra jiratzeko tresna.

golde txiki • goldearen antzeko tresna, baina neurri txikiagokoa.

gomitolarri, gonbitolarri ('gonbitalarri') • botalarria, botagura.

gorabehera

gorantzi ('goraintzi')

gorni ('gorrin') • landareen gaixotasuna.

gorri-hotsian ibili, gorrian jardun ('gorriak esan') • juramentuka aritu, iseka jardun: *hori beti gorri-hotsian!*

granbill • plantillarik izan ezean, formadun egurrak markatzeko erabiltzen den egurrezko eskuko erreminta.

griya • itsasoko animalien arrautzak eta kumeak, bereziki, baina baita arrautze-multzotik jaiotako beste edozein animalia txiki ere (armiarma-kume multzoa, esaterako).

guaize, guazi ('guraize')

gubi ('gubia') • arotzen tresna.

gurdi

gurdi-bolante • harriak eta ikatza karriatzeko gurdi itxiak.

gurpitx ('gurbitz')

gutxi

guzti, guzi ('guzti')

ha(g)iñ ('hagin')

habi, kabi ('habia')

habitaziyo • etxe, pisu, apartamentu.

haga • egur zati luze eta sendo samarra.

haitz • batez ere mendikoak; itsasokoak arroka dira.

haitz-erratz • landarea, sorgin-erratz, *Ruscus aculeatus*, berde-berdea da, arantzaduna eta fruitu gorri-gorria ematen du.

haizar • ur gazitako zizarea, arrantzan beitarako erabiltzen da; hondartzako arroketan eta kanalean aurki daiteke.

Haitz+har. Horrekin batera, erreka lohietan agertzen den harra, *lohiorra* da (*lohi+har*).

“Hemen, guk, “noa hua?”, ta, “haizarreta, haizarreta”. Ta juten giñan orduan ba, o, han moillan sarreran daben arroka txiki hoien azpiyan, udaran ez [...] Haizarra hori da. Gu juten giñan, ba, gehio-atan, ba, zeatikan, ba, lñurritzako zea, erriyuan sarreran daon lokatz zikiñ horta. Han gehio eoten zan (...) lohiorra.” (Juan Agoues)

haize, haixe ('haize') • pertsona txolina

haizeleku

haize-olatu • haizearen eraginez sortzen diren olatuak.

haizeu, haizau ('haizatu') • ganaduaren gaitza; janariaren ondorioz, urdailak edo hesteak haizez betetzea.

halamouzko ('halamoduzko')

halare ('hala ere')

hamabosteko • hamabost eguneko lanaren ordainsaria.

hamalauzango • zomorroa, ehunzangoa, hanka asko duten zomorroen multzoa.

hamen, hemen ('hemen') • gazteen artean *hemen* forma nagusitzen ari da; edade-tuenen artean *hamen* da arruntagoa.

“Mendikuak gehio zian Azken Portu al-dian bizi zianak. Hori da, hori zan ha-men itsasondokuak ta hura, nahiz oain herri barru-barru-barrua izan, pixkat aparte iten zan. Hura mendi, osea, oso desberdina... Ni gehien harritzen naize-

*na, nere edade bertako jendia, Azken Portun jaiotakuak igeian ez dakiye asko-ek, Zarautzen jaiota. Herriya desberdina zan ta! Hiru parte! **Hamen**, Santa Maiña-tik barroakuak, Txerri kaletikan Azken Portua, ta geo lñurritzakuak". (Pio Illarramendi)*

hanka • 1.- oina; 2.- zangoa, berna.

hanka ein ('hanka egin') • ihes egin.

hankaluze • zomorroa, hanka luzeak dituzten eltxo tankerako intsektu hegalaria.

hanka-miñ ('hanketako min') • ganaduaren gaitza.

hankutsik(an), hanka hutsik ('hanka hutsik') • *oiñutsik* ere bai.

haragi

harakin

harraitz • sega zorrozteko harria.

harralde • arroka lekua itsasoan.

harramazka egin, harramazkatu • atzarparkatu.

harrapatu

harrapazka ein • lapurtu, ostu, ahal den gehiena harrapatuz; *gozokiak mahai gainean jarri eta harrapazka hartu*.

harraska • sukaldeko putzua, ontziak garbitzeko lekua.

harrezkeo ('harrezkero')

hartu-eman

hasarretu, hasarratu ('haserretu')

haundi ('handi') • pertsonen kasuan, gorpuzkera zabalekoa, bizkar handikoa, baina ez derrigorrez luzea.

haundi-aurki ('handi-aurki') • gehientsue-na, zatirik handiena.

haundiki ('handiki')

haur

hausi ('hautsi')

*"Ama Birjiña eunian'e, zean'e jarri lapi-kuakin ta, begiya itxi, ta oso polita izaten zan. Ta jende asko eoten zan, e! Ta zuk makil bat hartzen zenun, ta **hausi** in behar izaten zenun. Ta askoek **hausi** ezin, ta hura izaten zan polita ikusteko, jendiak parre iteko ta. Lo que pasa que, seituan **hausten** baldin bazuen, bano, han **hausi** ezinikan ta, zea ta, oso polita izaten zan hori, bai." (Joxe Mutiozabal, Txabillo)*

hazitoki, hazitegi • mintegia, haziak ereiten diren tokia, ondoren sorora aldatzeko.

hazka ein ('hazka egin')

hegabera • hegazia, *Vanellus vanellus*; la-gun artean, pertsona txolina.

heia • txerritokia, txerritegia; gutxi erabiltzen da.

heldu • oratu, harrapatu.

hemezortzi

herdoi, hordoi ('herdoil')

hereñeun, hereñeun ('herenegun')

heriyo ('herio') • larritasun egoera, *Heriyo batian aillatu zan alaba etxea*.

hesola • hesiak egiteko erabiltzen diren makilak edo taketak.

heste

heste lodi

heste mehe ('heste mehar')

hezur

hezurbeltz • kanpotarra, kastellanoa.

hil, hille ('hil') • hilabetea.

hil-kanpai

hillabete, hillebete ('hilabete')

hirugihar

hirusta • ganadu-jatekorako ereiten zen belar mota, *Trifolium sp.*

hitzeiñ ('hitz egin')

hizketan ein ('hizketan egin')

hobeto

hoinbeste ('horrenbeste')

hondar • kostaldekoa, hondartzan dagoe-na; soberakina, berriz (esaterako plate-rean jan gabe gelditzen dena) *kondar* esaten da.

hondar-lur • hondar asko duen lurra; Zarautzen horrelakoa da herri azpiko lur gehiena.

hondarribi • mahats klasea, txakolina egi-teko erabiltzen dena, *hondarribi zuriya* eta *hondarribi beltza*.

hontz • hegaztia, *Strix aluco* batez ere, bai-na baita gainontzeko gautxori gehienak ere.

hortz

hortza(g)ñ ('hortzagin') • letagina.

hortzaka in ('hozka egin')

hostro, hosto ('hosto') • azarena edo letxu-garena, esaterako, baina beste batzue-tan *orri* ere esaten da.

hotseiñ ('hots egin')

hozka in, koxka in ('hozka egin') • bereziki animaliekin erabiltzen da; gizakien ka-suan, *hortzaka in* ere erabiltzen da. Hiz-tun batzuen arabera, *koxka* egitea, *hoz-ka* egitea baino 'bigunagoa' da, min gu-txiago eragiten duena.

hozki • kirrikirria, hozkamina. "*Tizakin arbelian idazten dezunian, hozkiya ematen du*".

hozpiko ('horzbiko') • bi hortz dituen aitzurra.

huntz • landare igokaria.

hurre ('hur')

hurreen ('hurreen')

hurrego, hurongo ('hurrego')

huskei ('huskeria')

ibazi, ibaazi, iabazi ('irabazi')

iaio

ibili, ibildu, ibilli ('ibili') • 1.- ibili; 2.- erabili.

ibilkai ('ibilkari')

"*Nere gizona **ibilkaia** izan zan.*"

(*Maria Josefa Txurruka*)

iel • txerria ugalketarako prest izan.

ieltserotza ('igeltserotza')

ieuts-arbi, irus-arbi, iraun-arbi, irauntz-arbi • zingira inguruetan hazten den lan-darea (*Tanus communis?*); patata itxura-ko tuberkulua du, azala igurtziz legena osatzeko erabiltzen dena.

igali • fruitua, eta baita fruta-arbola ere; ne-ologismoa, baina edadetuen artean nahiko hedatuta dago.

igande • nagusien artean, *igandea* baino, *jaia* esaten da gehiago.

igaro

igel • Zarautzen batez ere *xakela* esaten da, baina *igel* ere ezaguna da; hiltun batzuek lehorrekoei esaten diete *igel*, eta uretako-ei *xakel*.

igeldo-harri • hareharria. "*Santarba ingu-rua mahastitarako egokiya dek, egutera eta **igeldo-harriya***" (Hilario Epelde)

igerri, i(g)arri ('igarri')

igitai, itai • bi motatakoak daude, arrunte-nak zerrarik gabeak (arbia, erremolatxa eta abar ebakitzeko), eta zerradun fina-goak, garitarakoak.

igo ('eho')

ihar • landare eta zuhaitzen kasuan, leho-rra, hila; pertsonen kasuan, argala, oso argala (baita *plakua* ere).

ihi • landarea, ur-ertzetan bizi den belar lu-zexka.

ihintz • landare eta belardietan sortzen den

hezetasuna, ura; ihintz handia denean, *basura* esaten da.

ikaragarri, ikaarri, ikeaarri, ikiaarri ('ikara-garri')

ikaatu ('ikaratu')

ilbeltz • urtarila

ilbera ('ilbehera')

ilgora

illaa ('ilara') • esate baterako, *illaa bakarre-ko soñua*.

illar ('ilar')

illargi ('ilargi')

ille ('ile')

illunar, illunabar, iñular ('ilunabar')

illuntze, illontze ('iluntze') • ilunabarra.

iltze

imiya ('imina') • aleen bolumena (gariarena eta babarrunarena, gehienbat) neurtze-ko neurria. Anegaren laurdena. Gariaren kasuan, 12 kilo inguru.

imiyerdi ('iminerdi') • *imiyaren* erdia.

inaa, iña, enaa, enara, txena ('enara') • hegazia, *Hirundo rustica* eta *Delichon urbica*; nagusien artean *iña* entzuten da gehiago, gazteen artean *enaa*, eta base-ri auzoetan *txena* ere bai.

ingurumari

intsusa • zuhaitza, *Sambucus nigra*; senda-belar gisa erabiltzen da, bere lorearen infusioa urduritasuna baretzeko hartzen da.

iñaurkiñ ('inaurkin') • ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen den garoa edo horbela.

inude ('inude')

ipini, ipiñi ('ipini')

ipurdi

ipurtargi • zomorroa, gauez argia ematen duen intsektua.

ipurtatx, basakatu ipurtatx ('ipurtats') • animalia mustelidoa, *Putorius putorius*.

ipurtxuntxur • bizkar hezuraren bukaera, sakroa.

iraun

iriki ('ireki')

irikita ('irekita')

irin

iritsi

iruitu ('iruditu')

isats • Zarautzen oso gutxi erabilia; gazte-en artean, beharbada, gehiago. Gehienetan *buztan* erabiltzen da.

iskiaso ('eskinoso') • hegazia, *Garrulus glandarius*.

istingor • hegazia, *Gallinago gallinago*.

istura ('itxitura')

istutu ('estutu')

isuri • likidoa bota.

itokiñ ('itogin')

itute ('itoite', 'itogin')

itsas ahate • itsasaldetik sartzen diren aha-te migratzaileak, hemen bizi ez direnak.

itsas kabra • arraina, *Scorpaena porcus*.

itsasoko izar

itsuketan • ezkutaketan jolastu.

itsulapiko • *eltxetxua* ere erabiltzen da.

itsusi • Zarautzen gutxi erabiltzen da; gehienetan *zatar* esaten da.

itulan, ittulan, itzulan ('itulan')

itur-belar, iturri-belar ('iturri-belar') • belarra, sendabelarra; perrexilaren antza dauka, iturri inguruetan hazten da eta infusioan hartzen da, baraurik, odola garbitzeko.

itxafero ('etxafuego') • suziria, jaietako ko-heteak.

itxi

itxurazko • ganorazko, baleko.

“Itxurazko ezer atearako al dezue hemen-dik?” (Joxe Mari Eizagirre)

itzal

itzali

ixeki, ixiki (‘eseki’) • gaur egun oso gutxi erabilia; *zintzilikatu* edo *zabaldu* esaten da gehiago, kasuan kasuan.

ixkiña (‘izkina’)

ixkira

ixtillu (‘istilu’)

izandu (‘izan’)

izeba

izeko • *izeba* baino gehiago erabiltzen da.

izokiñ (‘izokin’) • arraina, *Salmo salmo*.

izorratu

izotz • ihintz izoztua, landare eta belardietan. Bestela, Zarautzen *jela* erabiltzen da.

izter-lehengusu • lehengusu txikia.

izu • beldurra.

izugarri

izurde

*“Lehen **izurdia** ikusten huan hamen... Arrantza klasia majuta deitzen zitxoan orduan, e. **izurdia** billatu ta orduan saria bota. Uain ez. Uain radarrakin ta zeakin ta arraia ikusiarazi iten diye, baiño lehen **izurdia** topatu behar izaten huan, arraia ikusi, antxua ikusiko baldin bazan. **izurdiai** segika jun, ta **izurdia** gelditzen zanian, arraia, zea, antxuai saria botatzen zitzakon, direkto. Hoiek danak pasa hituan.”* (Juan Agoues)

jabe

jai • 1.- festa-eguna; 2.- igandea.

jangartsu • gutxi jaten duena, jan-txarra.

jan-txar • gutxi jaten duena.

jan-zakur, jan-txakur (‘jan-txakur’) • ezer-tarako balio ez duen txakurra; hedaduraz, baita pertsona ganoragabea ere.

jantzia eman • ekitaldi edo jarduera bati distira eman, indartu, dotoretu
• *“Honek’e **jantzi haundiya eman** ziyon Zaauzko udarai”.*

jardun • belaunaldi zahar-zaharrenetan
• *“jardun du”* esaten dute; ondorengoek, gehiago *“jardun da”*. Gazteen artean *aritu* nagusitu da.

jariyo (‘jario’)

*“Hoiei Zarautza aitatu, ta lerdia **daiyola** geatzen zian hoiek.”* (Jose Agustin Etxabe)

jarri

jatordu

jatxi (‘jaitsi’) • *jetxi* ere bai, baina gutxiago.

jaulki • aletu, leka barruko alea atera, esate baterako, baba, babarruna.... Era berean, gari-alea beroagatik berez erortzea.

jauregi

jazkera (‘janzkera’)

jela • izotza. Landareen gainean sortzen denari, aldiz, *izotza* ere esaten zaio.

jela beltz • izotz beltza, ikusten ez den izoztea.

jelate • izoztea.

jornal

jostatu • jolastu

*“Ta, orduan, ba sei urtekin hasten zan garai haitan eskolan eta sei urte arte ze ingo giñun, ba? Ezer ez, **jostatzen** ta, ganauakin soruan ittulan ein ta. Eta geo eskola, ta behiñ hamalau urte ezkeo...”* (Pepita Goikoetxea)

jotama • zur eta lur, *Lagunak hoi esandakuan jotama laga natxiok!*

jotausi ('jo eta hautsi') • jo eta su aritu, indarrez ekin.

jun ('joan')

kabilla ('kabila') • *kurtera* eta pertika lotzeko ziria.

kabidore, kabiore, kabiroi ('gabirai') • hegaztia, *Accipiter nissus*.

kabidore txiki, kabiore txiki, kabiroi txiki ('gabirai txiki') • hegaztia, belatz gorria, *Falco tinnunculus*.

kabitu ezin ('kabitu ezin') • egon ezina.

kakalardo

kakalarri

kako

kalabazero • eskolan, gutxi zekiena, ezer ikasten ez zuena, beti *kalabazak* jasotzen zituen.

kale ein ('kale egin') • huts egin. *Hoi dek kalia ein duna aurrelaiyak*.

kamamilla ('kamomila') • lore txikia, *Chamomilla recutita*; sendabelarra, bere lorea infusioan hartzen da.

kanpantorra, kanpantorre ('kanpandorre')

karakol • lehorreko barraskiloak; itsasokoak *murliyuak* dira.

karbuero • argia egiteko antzinako sistema, harri bati ura bota, eta askatzen duen gasa aprobetxatuz.

karda • haria egin aurretik artilea orrazteko eta leuntzeko tresna.

kardantxulo, kardintxulo ('kardantxilo, karnaba') • hegaztia, *Carduelis carduelis*.

kare-haitz

karel • itsasontziaren zatia, albo bakoitzaren goialdea edo goiko ertza.

karga-jasotzaille ('karga-jasotzaile') • harri-jasotzailea.

karga-karga inda ('karga eginda') • moz-kortuta.

karka(ba)ra • kale txikia, karrika; batez ere Orioko hitza, Zarautzen erdi-galdua.

karkax, karkaxa ('karkaxa')

karnata, garnata ('karnata') • beita, arrainak harrapatzeko erabiltzen den jaki zatia.

"Zarautza zea, txipiroia harrapatzeko Zarautza aberatsa izan huan orduan. Oain, ordia, etortzen dituk aurki, zea, garnata itea, zea, atunetako ta zimarroitako ta hoiek hondartza dana garbitzen due. Hoiek ez due ezer lagatzen." (Juan Agoues)

karrama • burdinarea, 12 hortz inguruko tresna; lurra gorritzeko lanabesa, batez ere artotarako.

karramarro: 1.- cangrejo; 2.- baserriko tresna, lurra arrotzeko erabiltzen zena, *are haundi* edo *gramana* izenez ere ezaguna. *"Dizienbrian gariya eitten zan. Aurrena lurra goldatu ta alperra pasa. Geo, haziya bota, eta geo, berriro nahasteko, karramarrua o aria pasa, lurren arabera"* (Joxe Mari Eizagirre)

karraskilla ('karraskila') • zuhaitza, *Rhamnus alaternus*; azala edo adar zati bat izpituz infusioak egiten dira odola mehetzeko.

karraspiyo ('karraspio') • arraina, *Symphodus melops*

karriatu, karriau ('garraiatu') • zerbait alde batetik bestera eraman.

karriyo ('garraio')

kartola • 1.- gurdia zati; 2.- zaldi eta as-toen gainean jartzen diren egurrezko egiturak, gauzak edo pertsonak han eramateko.

kaskamotz

kaskartu

kaskateko

kaso ein ('kasu egin') • deitu, hots egin

kasta • familia edo jatorria.

kastakua izan • Zarauzko sendi jakin batekoa izan. *Joxeinazio ere Txilikutarren kastakua dek, bai motel!*

kastillo • egurra antolatzeke eta gordetzeke era.

katagorri, kattagorri ('katagorri') • animalia, urtxintxa, *Sciurus sp.*

katamotz • animalia, katu basatia, mendian bizi dena, etxekoa baino handiagoa eta buztan sendoduna. Gaur egun *Felis sylvestris*. Beharbada, garai batean, *Lynx pardina*.

katamuxar, muxar • animalia, *Glis glis*.

katapardo • animalia, *Genetta genetta*, kajatjineta.

katapaz ('kapataz')

katramilla ('katramila') • nahaste handia, anabasa, ezer garbi ez dagoenean esaten da, *hau da katramila*.

katuarrai ('katuarrain') • marrazoen taldeko arraina, *Scyliorhinus canicula*.

katxopa • haizeak jasotzen dituen olatuak, 'ardiak'.

kaxeta • hondartzan arropa aldatzeko tokiak.

kaxkabeltz, kaxkabeltx ('kaskabeltz') • hegazia, *Parus sp.*

kayo ('kaio') • hegazia, *Larus sp.*

kazan • pesca a la cacea.

kazkabar • txingorra.

kaztarro ('garraztarro') • hegazia, *Turdus viscivorus*.

kerten, kirten ('kirten')

kirats, kiats ('kirats') • usain txarra.

kika • zotina.

kilimak, kilipak ('kilimak')

kimu

kirkil ('kilker')

kitaborro • borragoma.

koaña ('kodaina') • amu asko dituen arrantzatza-tresna, txipiroiak harrapatzeke erabiltzen da.

koartza • hegazia, *Ardea cinerea*.

kokota • garondoa, lepoaren atzeko partea.

kokote

kondar ('hondar') • hondakina, soberakina; hondartzakoari *hondar* deritzo.

konejutei ('konejutegi') • konejuak edo untziak izaten diren lekua, untxitogia.

koniflor • azalorea.

konpa(a)zio batea ('konparazio batera') • adibidez, esate baterako.

konta ahalak • gutxi, banaka batzuk: *kontalak izango dia, bi o hiru besteik ez!*

konturatu

kopeta • bekokia.

kopetako • uztarriaren zatia, behiari kopeta gainean jartzen zaiona.

kopotar ('kopa-otarre') • otar txikia, adibidez, janariak-eta eramateke erabiltzen dena; *lepotarra* baino txikiagoa.

korda • janari sortak elkartzeko modua, txirikorda eran, elkar lotuz: *odolki-korda, baatxui-korda, arto-korda, tipula-korda...*

korkox • oker dabilen pertsona, edo *joroba* duena.

korrika • *lasterka* eta *saltaka* ere esaten da Zarautzen, baina *korrika* da arruntena.

korrikai ('korrikalari')

kortabanaka • harrapaketan jolastu.

kosta • hondartza.

*"Ta gu irten giñan Mandaskakuak ekipua. Mandaska bai giñan. Eta **kostan'e** asko jokatzten gendun fubolian'e, baiña nei bizikleta gustatzen zitzaiten, ta ni bizikleta."* (Juan Ezenarro)

koxka • 1.- gakoa. *Hor zio, ba, koxka!*; 2.- irtengunea, handigunea.

koxketan • Ume jolasa. Kunplitzen duenak gainontzeko jokalarietako bat harrapatu behar du (bere ordezu kunpli dezan) baina ihesi doanak badiu babeslekuak, "etxeak": inguruan dauden "koxka" guztiak. Nahikoa da horietako batera igo eta "koxka!" esan, eta kunplitzen ari denak ezin dezake ezer egin, zain geratu baizik.

*"Bai, eta geo, soroa jun giñan, soroa, ta geo illuntzian, euna luzia zanian, este, bukatzen zanian aita ikuilluko lanak eta eiten zitu-nian, eta amak afaya prepaatu bitartian ba, kanpuan **koxketan** in ta, entroka in ta, bai, holako zeak izaten giñuzen, xakaponetan ta, bai, kaniketan ta".* (Pepita Goikoetxea)

kribi natxiok • jokoetan, ezer gabe gertatzea (kromoetan, txapetan...); kaniketan jokatzean, adibidez, kanika guztiak galtzean esaten den esapidea.

krixpi ('krispi') • eskudra itxurako burdin-zeko tresna, beheko suaren alboetan jartzen ziren supilak eusteko; jakiak bertan uzten ziren, jan bitartean ez hozteko.

krixpiyan ('krispian') • haragia sutan egin, brasan.

kuartakerre • tximili-kuarteka jolastean, kunplitzen ari denak norbait oker izendatzen duenean esaten da. Holakoetan kunplitzen duenak berriz kunplitu behar izaten du, jolasa atzera hasiz.

kuku • hegaztia, *Cuculus canorus*.

kuku-mikutan jostatu • ezkutaketan egin.

kuleto • perretxikoa, *Amanita caesarea*, perretxiko guztien artean erregea, gozoena.

kulixka • hegaztia, *Limosa sp.*

kulixka txiki • hegaztia, *Actitis hypoleucos*.

kupel ('upel')

kurioxo • ondo, egoki, kontu handiz.

kurpill ('gurpil')

kurrillo ('kurrito') • hegaztia, *Grus grus*.

kurtera ('gurtera') • pertika sartzeko eta uz-tarrira katigatzeko narruzko pieza.

kurtesi ('gurdi-hesi') • 1.- gurdiek gupil gainetan izaten duten babesa, belarra ez dadin gupiletan endredatu; 2.- *kurtola* mota, hurritz adarrak elkartuz egiten den hesi itxurako egitura.

kurtetxe ('gurdi-etxe') • gurdia-aren egitura nagusia.

kurtola ('gurdi-ohola') • gurdia-ri alboetan jartzen zaizkion hormak, gehienbat simaurra karriatzeko.

kurtzaldi • habeak karriatzeko gurdia motza.

kuxidade, kuixidade ('kuxidade') • txukuntasun (eza).

la(a)tz ('laratz') • tximinia- behera, etxeko su edo beheko su gainean gauzak zintzilikatzeko erabiltzen den katea luzea.

labaindu

labe

labezamorro, labexamorro ('labezomorro')

labore • zerealak: garia, artoa eta oloa, bereziki.

laga, lega, laa ('laga') • utzi.

lagun

laia • baserriko tresna, lurra iraultzeko erabiltzen zen, lurralde txikietan, goldea iristen ez zen txokoetan.

laiñ ('lain')

laiño ('laino') • hodeia.

laiñotu ('lainotu') • zerua estali.

laister, laixter, laiste, laixte ('laster') •
"Oaiñ'e laixte bado bat, bai, hill honen, ez dakit, azkenaldea o, ba" (Joxe Etxabe)

laka • baserritarrak errotariari uzten zion irina, ordainketa gisa.

lakai ('lakari') • aleentzako neurria, egurrezko ontzia. *Imiyaren* laurdena, gutxi gora-behera. Babarrunez edo gariz beteta 3 kilo pasatxo hartzen ditu. Horien kasuan, ontziaren alboetara berdinduta neurtzen da; intxaur eta gaztainen kasuan, aldiz, tontorra eginez.

lakayerdi ('lakari erdi') • aleentzako neurria, lakariaren erdia, babarrunaren eta gariaren kasuan kilo eta erdi inguru.

lanbro • bruma, batez ere itsasokoa.

lanperna • kostaldeko krustazeoa.

lapatx • edozein jokotan ona denari esaten zaio.

lapazorri • 1.- arroketan bizi den animalia; 2.- alperra.

lapetako egun • ostegun eta ostiral santuko egunei esaten zitzaien. Garizuma izanik (haragirik ezin jan), eta ilargi betea (marea biziak), lapak biltzeko eta jateko garai aproposa.

lapitza, lapitz ('lapitz')

lapurtu

lar ('lahar') • landare arantzaduna, sasia, *Rubus sp.*

lardastu ('lardaskatu')

"Nekazabal hortan, han bazian bi anai, zeeze lardasten zien eskuko soñuakin. Eta... beno bat dextente... Eta hantxe juntatzen giñan auzuak eta iten gendun erromeia." (Maria Larrañaga)

larre

larretxori • hegaztia, *Anthus pratensis*.

larrugorrik, larrugorritan, larruburrik, larrrubixik, narrubixik, narrugorri, narrugorritan ('larrugorri')

lastaera, lastaira ('lastaira') • lastoz edo arto malutaz egindako jergoia (gainean artilez egindako koltxoia jartzen zen).

lastaiko • lasto-sorta aletu ondoren gertzen dena, lasto hutsezko sorta.

lasto-sorta • garikoa, garia ebaki ondoren egiten ziren sortak.

lastazuzi • sua eman zaion lastaiko; linterarik ez zenean bidea argitzeko erabiltzen zen.

lauhortzeko • baserriko tresna, *ukullu-atxurra*, lau hortz dituen sarde mota; hortzak okerrak ditu eta batez ere ukuiluan erabiltzen da, simaurrarekin, eta abar.

lauko, lauortz ('lauhortz') • baserriko tresna, lau hortz dituen golde edo karramarro itxurako tresna. Arto-ilaren erdian arbia egiteko edo jorra azkarra egiteko erabiltzen zen, besteak beste.

laurden

leatz ('legatz') • arraina, *Merlucius merluccius*.

leen ('legen') • azaleko gaitza.

lega, lera ('lera') • gurpilik gabeko gurdi antzekoa, bide txarretan gurdiaren ordeztzen zena.

lehenbiziko • *lelengo* eta *aurreneko* ere erabiltzen dira Zarautzen.

lehenengo, lelengo ('lehenengo')

lehengusu • neska zein mutil, denei esaten zaie *lehengusu*.

lehengusu propiyo • benetako lehengusua, zuzena.

lehengusu txiki • bigarren mailako lehen-gusua; *izter-lehengusu* ere bai.

lehen • *lehen* esanahiarekin ere erabiltzen da.

lehenokuan ('lehenagokoan') • lehengo egunean.

lehertu

lehor

lehorreko • itsasokoaren aurkakoa.

lehortu

leku

lepaa ('lepada') • mozkor handia.

lepatxuri, basakatu lepatxuri ('lepazuri') • animalia mustelidoa, *Martes foina*.

lepo

lepoaiño eon ('leporaino egon') • gainezka egon.

lepondo • lepo ingurua, lepabuelta.

lepotar • otarre handia, lepoan eramaten dena.

lerde

letu ('leitu') • irakurri

letxu ('letxuga')

lezka • ur ertzean bizi den landare luzexka.

libru ('liburu')

lijatu

linternero • iturgina.

lipu-belar • belar bat, sendabelarra.

lixibaontzi • arropa garbitzeko (lixiba egiteko) erabiltzen zen ontzia; behea estua-goa, goia zabalagoa. Arropa zuritzeko, sutako hautsa gehitzen zitzaion (zapi batean iragazita).

lixtor ('liztor')

liztabera, liztorbe • zomorroa, liztor txikia.

lizundu

lohi

lohior, loddor ('lohiar') • karnatarako erabiltzen den harra, lohi artean bizi dena (*hazarra*, berriz, haitzetan eta hondarretan).
"**Loihorra, loihorra** bakizu zer dan?
Beste hitz batian, txitxaria, txitxaria, lo-katzetan eoten dan txitxare zea, mehe, mehe gorrixka hori." (Juan Agoues)

loka egon, lokatuta • 1.- pieza bat bere lekutik irtenda egon, solte egon, kili-kolo; 2.- oiloa arrautzak jartzeko prest egon.

lokatx

lokotx • alerik gabeko artaburua.

lorren eaman ('lorrean eraman') • lurrean arrastaka eraman.

lotsabe ('lotsagabe')

luarri ('luberrí')

luhartz • zomorroa, *Gryllotalpa gryllotalpa*, lur azpian bizi da eta soroetan kalte handia eragiten du.

lupi ('lupina') • arraina, *Dicentrarchus labrax*.

lurjausi

lurmen • elurtearen ondoren, elurrik gabeko gunea, edo elurra urtzen hasitako tokoa.

lurmendu

lurrun

lurruntza • belar txarra, *Convulvulus arvensis*, aihen itxurakoa da eta lurrazpian zuria, *ezkerte*a.

luze • pertsonen kasuan, garaia, altua. Nagusiek *gizon luxia* esaten dute, eta ez *gizon altua*.

maatilla ('maratila')

magal • altzoa.

mahasti

mauka • aukera ederra.

maietz ('maiatz')

maietz kulixka ('maiatz kuliska') • hegazia, kurlinta, *Numenius arquata*.

maillatu ('mailatu') • 1.- kolpatu, kaltetu; batez ere, frutarekin erabilia; 2.- arrainak sarean trabatuta geratu.

maillu ('mailu') • hainbat motatakoak daude, beste hainbat erabileratarako: arozgintzan, sega pikatzeo, eta abar.

maindire • mendebaleko *izara* ere ezaguna da, baina ez da erabiltzen.

maistra, maixtra ('maistra')

maixorri ('maiz-orri') • artoaren orria.

"Aurrena, artuan loria bitu juniyuan, ganauantzako. Geo, setienbrian aurrenien maixorriya kendu babarruna hobeto sekatzeo, eta orriyak ganauai eman"

maixu

maizter

makal • 1.- zuhaitza *Populus sp.*; 2.- pertsona geldoa, mantsoa; 3.- handia, ederra, *Makaleko itxia zeukak horrek*.

makar • begi inguruetan sortzen den zikin-keria.

makatz • basoan berez hasten diren fruta-arbolak (gerezi makatzak, udare makatzak, sagar makatzak...)

makutsik, maka-hutsik ('mahuka-hutsik') • alkandora hutsean.

malkar

maluta • elur puska.

mami • 1.- esnekia, gatzatua; 2.- azalaren azpiko geruza (ogiarena, enborrena, eta abar).

mandaelbi ('mandeuli') • euli mota handia, zaldi, behor eta antzekoen inguruan dabilena gehienetan.

mandaska • ganaduak edateko tokia.

mandiyo, bandiyo ('mandio')

mantal

mantazuiyak ('mantal zuriak') • neskameak, aberatsen neskameak bereziki, garai batean mantal zuria jantzita ateratzen baitziren kalera.

mardul

maria ('marea') • itsasoaren gorabehera.

marmita

marru • oihua, bereziki ganaduarena; hedaduraz, baita gizakiarena ere: *Ixilduko al haiz behingoz! Goiz guztiya marruka pasha den eta!*

martin arrantzale • hegazia, *Alcedo atthis*.

martxo

matei, matai ('mataderia') • ganadu hiltzea.

matraill ('matrail')

matrailleko ('matraileko') • zaplastekoa, masailekoa.

matraillezur ('matrailezur')

matraka, marimatraka • neska txiki bihurria; *bargastaren zentzu bertsua dauka, baina neska txikia denean*.

matxaka • sagarra jotzeko makina; garia jotzekoari ere esan izan zaio.

matxinsalto, matxisalto, maxisalto ('matxinsalto') 1.-saltamatxina, intsektu saltakaria; 2.- hondar artean agertzen diren krustazeo saltakari txiki zurixkak, *pulga de agua*.

maxkal • goibel, ahul, gaixo. *"Begi maxkal-maxkalakin dago gaixua"*.

maxkuri ('maskuri')

mela-mela • zeharo bustita, blai-blai egin da: *Lehengo jayan mela-mela einda jarri giñun fuboleko partiduan*.

melaxkatu • kolpatu, hondatu, alferrik gal-

du; batez ere, arrainekin erabiltzen da (eta *maillatu*, berriz, frutarekin).

mendabeltx ('mendabeltz') • landarea, *Mentha spicata*, mendaren familiako landarea, mendak baino usain gogorragoa dauka, eta orri sendoagoa.

meta

metatxo, meta(t)xorro • belar edo gari meta txikia, batez ere euria egitean azkar-azkar egindakoa, galburua busti ez dadin.

mielka, mialka ('miliika') • jatun txarra, mizkina, jangartsua. *Mizkin* eta *mika* ere bai.

mihi • kanpaiaren Erdiko zatia, alde batera eta bestera mugitzen dena zarata ateraz.

mihura • landare parasittoa, sendabelarra ere bada; mihuraren infusioa tentsioa jaisteko erabiltzen da.

mika • 1.- hegazia, *Pica pica*; 2.- jatun txarra, *mielka*.

mikatz

min sor, min sorro ('min sor') • min txikia.

mingaiñ ('mingain')

miru • hegazia, *Milvus milvus*.

mixkiñ ('mizkin') • jatun txarra, bere gustukoa bakarrik jaten duena.

miztu, mizto ('mizto') • jatorriz sugearen mihia, baina gaur egun, baserri giroan, intsektuen eztenari esaten zaio. Kanean *eztena* erabiltzen da gehiago.

moilla ('moila')

moitu ('mugitu')

moitu • hegazia, txioa, *Phylloscopus* sp.

mokor • gutxi erabilia; gehiago erabiltzen da *kadera* mailegua (eta zenbaitzuetan, baita *gerriya* orokorra ere).

moldatu

momar • arraina, *Scyliorhinus stellaris*

morkots • gaztainaren azal arantzauna.

morroe, morroi ('morroi')

morrontza

motel • gizonezkoei deitzeko hitza.

motots • 1.- ile-mataza, koleta; 2.- moñoa.

moxolo ('mozolo') • hegazia, *Athene noctua*.

moztaka • lagun txiki eta lodi antzekoa, txaparrotea.

moztu • ardiei ilea ebaki.

mugau ('mugatu')

muitta, muita ('mugita') • belar txarra, *Arrhenaterum elatius*.

murkil ein ('murgil egin') • uretara salto egin.

murliyo, mauliyo ('magurio') • itsasoko karakola, magurioa.

muskar, muxkar ('musker')

muskulu ('muskulu') • moluskua, *Mytilus edulis*.

musto • arraina, kabuxa; zenbait klase ezberdin daude: *mustobeltza*, *mustolegatz*, *mustomonja*...

musu • 1.- aurpegia; 2.- laztana.

mutikoskor ('mutil koskor')

mutil-ardo • mutilez osatutako elkarreak ziren, herriko nahiz auzoko festak antolatzekeo ardura zutenak. Jaietarako ardoz betetzen zuten kupel handi bat, eta handik edaten zuten guztiek festa bukatu bitartean. Sozializazio funtzioa ere bazuten, gazteenak nagusiagoekin elkartzeko, ardurak ezartzeko eta jokabide okerrak zuzentzeko. 1960tik hona, neskak ere hasi dira mutil-ardoetan sartzen, eta festak antolatzekeo monopolioa ere galdu dute, baina oraindik ere ezkongabeen elkarreak dira, eta jaietako batzordeetan parte hartzen dute.

mutxikin

muxar • 1.- arraina, *Diplodus vulgaris*; 2.- ugaztuna, *Glis glis*, mixarra. Ik. *katamuxar*.

muxarka, muxurka ('muxurka') • mertxikaren antzeko fruitua.

muxiñ ('muzin') • pertsona goibela, hitz gutxikoa, beti haserre antzean dagoena.

muztiyo ('muztio')

*"Tolaria ez zan danetan izaten, baiña toki askotan bai. Auzua zerbitzatzen, etxian ez bazan. Pantolingo tolarian'e txanda eoten zan, Pantolingo tolarian'e, mahats denboa zanian. Hor herri jirako zea hoiek, Montxi-yoko mahasti hoiek eta, danak horrea zeatzen zian. Ta hoiek, errotak laka kentzen zun bezela, ba, ehuneko honenbesteko bat, zeak, tolarezaliak zea kentzen ziyoen, laka bezela txakoliña, **muztiyua**". (Inazio Lazkano)*

nabar • baserriko tresna, lurra zatitzeko labana tankerakoa.

nabaritu**nabarmen**

nahiko, nehiko ('nahiko')

napar-artxoxo • hegaztia, arabazozoa, *Sturnus vulgaris* (Urtetan bereziki); Zarrautzen arruntagoa da *artxoxo* erabiltzea.

napar-okil • hegaztia, *Dendrocopus minor*.

narra • 1.- baserriko tresna, egur-oholez egindako egitura, zokorrak xehetzeko erabiltzen zena; 2.- belarra zelaitik baserrira garraiatzeko erabiltzen zen zuhaitz adarra. Zuhaitz adarra moztu, idiari edo behorrari lotu, eta bere gainean eramaten zen narrasean belarra.

nausi ('nagusi')

naximentu • Gabonetako jaiotza, belena.

nazka**negar****negu****neke**

nekoratako otar ('nekoratarako otarre') • nekorak eta beste harrapakin batzuk hartzeko otarrea.

neska koskor**neska-laguntza****neskame**

noanoa, nuanua ('nonora, nora edo nora') • nonbaitera, *Noanoa jungo al gea bihar?*

noizbait

noizipeiñ ('noizik behin')

nola**nola-hala****noski**

nun ('non')

nunbait ('nonbait')

*"Hemen bazan esaera, igual, enkargatu gibela, eta lñurritzako ganauak eta, gibela txarra ateatzen zitzaioen danai. **Nunbait**, hoiek jaten zuen belarra, zea, gatz-urakin ibilitako belarra zan, ta nunbait kalte iten ziyoen. Ta, igual... baiño ehunetik, igual larogeita hamabi o danak txarra. Gibela txarra." (Joxe Agustin Etxabe)*

ñaña ('nano') • oso txikia, ñimiñoa, ipotxa.

oain dala ('orain dela')

oaiñ, uaiñ, guaiñ, oan, uan ('orain')

ogibide

ohiburu ('oheburu')

oihal

oillagor ('oilagor') • hegaztia, *Scolopax rusticola*.

oillasko-biltze ('oilasko biltze') • baserriz baserri eskean joateko ohitura (garai batean oilaskoak jasoz). Iñurritzako mutilardoak antolatzen du San Pelaio bigarrenean (ekainaren 27an), eta Urtetan eta Urdanetan ere egiten dute. Beste herri batzuetan *puska-biltzea* esaten zaio.

oillatei ('oilategi')

oiñetako ('oinetako')

oiñutsik ('oinutsik') • *hankutsik* ere bai.

oiñ ('oin') • batez ere oinaren beheko aldea.

okasiyo ('okasio') • liskarra, sesioa, tira-bira.

okela • *haragia* arruntagoa da.

okil • hegaztia, *Picus viridis*.

okil txori • hegaztia, *Sitta europaea*, okilaren tankerakoa da, baina ez da benetako okila.

okots ('kokots')

ola(a)rro ('olagarro')

olo • landarea, *Avena sativa*.

on-aurki • onentsuena.

onddo beltz • perretxikoa, *Boletus aereus*.

ondo

ondoren

ondrau, ondradu ('ondradu') • 1.- pertsona zuzena, jatorra; 2.- abere otzana, mantsoa; 3.- tamaina ederrean, ugari: *Atzo bazkaya ondrau eman omen zizueten, e?*

ooldiyo ('goroldio') • 1.- mendiko goroldioa; 2.- itsasoko *algak*.

oolki, olki ('odolki') • 1.- odolarekin egindako jakia, odolostea; 2.- lagun artean, baboa, alua: *ume-olkiya, haundi-olkiya, babu-olkiya...*

"Guk beti, txerriya urtero hazi izandu deu. Oantxe hiltzen genun, San Martiñe-

tan. Earrak eoten zian oolkiyak eta. Ta geo zeak iten, esto, txoixuak iten." (Inaxio Lertxundi)

opil

orban • larru azalean agertzen den mantxa.

orbel • zuhaitzetatik eroritako orri lehorrak.

ordeka • lur zati laua, lautada.

ordia ('ordea')

Orentzago ('Olentzero') • XX. mende hasierarako badira Zarautzen *Orentzagoren* inguruko erreferentziak eta kantuak.

orri • batez ere, barazkien kasuan (aza, azalorea...); gainontzean, *hostro* erabiltzen da gehiago.

orru • abereen oihua; hedaduraz, soinu ozena, zalaparta.

osaba, osoba, josaba ('osaba') • batez ere *osaba*.

osiñ ('osin')

ospa ein ('ospa egin') • alde egin, joan.

ospel • eguzkiak jotzen ez duen ingurunea.

ostegun

ostiral • *astian bi ostiral* esaera ere bada; diruz larri zebilenagatik esaten zen, garai batean larunbatean jasotzen baitzen jorrala: *pasako dituzte hoiek astian bi ostiral!*

ostu • lapurtu, kendu.

otar ('otarre') • mota askotakoak daude: *lepotarra* (otarre handia, artoa, erremolatxa... biltzeko erabiltzen dena), *kopotarra* (otarre txikia), *buru-otarra* (buru gainean jartzen dena, jeneroa-eta plazara eramateko, adibidez), *esku-otarra* (besotik zintzilik eramaten dena), *mahats-otarra* (mahatsa biltzeko erabiltzen dena)...

ota-txiki • otearen antzeko landarea, otabe-
ra, *Genista hispanica*.

ote • landarea, *Ulex europaeus*.

otsail

paela, paila ('paela') • zartagia.

paeta ('pareta')

pagotxa • 1.- ganadu-jatekotarako erabiltzen den belar mota, *Trifolium incarnatum* espeziekoa, baina gorri iluna (*hirusta*, aldiz, gorria da); 2.- mauka, aukera ona *Hoi dek pagotxa, Joxe!*

pagouso, pagauso, paguso ('pagauso') • hegazia, *Columba palumbus*.

pake ('bake')

palar • lurra zulatzeke pala mota, ohikoa baino zapalagoa eta trapezio itxurakoa.

paneka • arraina, *Trisopterus luscus*.

paneka-zulo • paneka ugari izaten den itsasaldea.

panpota • 1.- gosaritan jaten zen ogia, *fota*; 2.- burla egiteko ere erabiltzen da, pertsona puztua adierazteko, bereziki neska: *ikusi zak horko neska panpota hoi!*

panpox

pantxo • arraina, bixigu-kumea.

parderka hartu • mantalean batu?

"Osteunetan, berriz, juten nitunan Gaztaka, gure aman itxea, eta han, izekok iten zitxanan... ogiyak iten zizkiñan han labian. Eta bollua iten zitxanan neetzat... Eta geo, gexiyak... zeatu, arbola puntan iyo, gexiyak han (...) parderka, eta geo itxea etortzen nitunan. Holako gauzak iten nizkiñan." (Joxepa Antoni Aristi)

partz ('bartz') • zorrien arrautzak.

pasaa eman, paxaa eman ('pasada eman') • egurra eman, norbaiti jipoia eman; kirolean eta jokoan ere erabiltzen da: *Paxaa earra eman ziyon!*

pasaa, pasara, pasada ('pasada') • pasea, migrazioa.

pasadako, paseko • bertakoa ez den animalia, migrazioan agertzen dena, hegazti batzuk, bereziki: *pasadako kaztarroa, passedako usoa*, eta abar.

pasadako birigarro • hegazia, *Turdus iliacus*.

pasadako kaztarro ('pasadako garraztaro') • hegazia, *Turdus pilaris*.

pasadako uso • hegazia, *Columba palumbus*, pagauso.

pasmo • zorna; pasmoa biltzeko, aza orria berotu, eta belar beltzarekin eta tipularekin jartzen da zauri gainean.

"Pasmua bakizu zer dan? Pasmobelarra izaten zan orduan. (...) Hura zan... hura zan batez'e pasmuan kontrakua, belarra." (Manoli Uria)

patata-xamorro ('patata-zomorro') • patataren landarea jaten duen zomorroa, *Leptinotarsa decemlineata*; gerra ondoren agertu zen Euskal Herrian.

patrika

pats • sagardoa egitean, sagarra jo ondoren geratzen den hondarra. Era berean, txakolina egitean mahatsari muztioa kendu ondoren geratzen den hondarra.

pelaki ('belaki') • baserriko tresna, hortzik gabeko eskuare tankerakoa.

pentsatu

perkatx, perkaitz ('perkatx') • pertsona gaiztoa edo lotsagabea. Beti bihurrikeriaren bat egiteko prest dagoena.

perratenaza ('ferratenaza') • zurginen lan tresna.

perratoki ('ferratoki')

perrejill ('perrexil')

pertika • gurdiazen zatia, gurtetxetik uzta-rra doan langa luzea; baita lerarena ere.

pertz, partz ('pertz') • kirtendun eltze handia.

pertzun ('bertzun') • baserriko tresna, aitzuraren eta eskuarearen arteko tresna, burdinazkoa. Bidegileek hartxintxorra banatzeko erabiltzen dutena, esate baterako, edo sutako hautsak batzeko erabiltzen dena.

petral

petxo • bularraldea.

peun, perun, berun ('berun')

pika • pendiz handiko aldapa edo eskailera.

pildomen ('bildumen') • kandela mehea, argizaiolan jartzen den argizari luzexka.

pintzan • hegazia, txonta, *Fringilla coelebs*.

piper egin, piperrak ein ('piper egin') • eskolara joan ez, sasieskola egin.

pipi • egurra jaten duen zomorrotxo.

pitzadura

piura

pixa

pixagure ('pixagura')

pixalarri

pixka, bixka ('biska') • txoriak harrapatzeko erabiltzen zen gai likina.

pixkat ('pixka bat')

pixti, pizti, prixti ('piztia')

piztu

poltsiko • patrika txikia.

porru

potor, potorra ('potorra') • hegazia, *Alca torda*, *Uria aalge*.

potro

pozamen

pranko ('franko') • asko, ugari, ondo; *lana pranko*, *seme-alaba pranko*, *pranko pasha nun*.

pronto • prest.

*"Azoka're etorri behar gendun, ta! Beste gauza asko. Hura're prepaatu in behar izaten gendun. Azokako gauzak'e **pronto** jarri bihar izaten zian, ta."* (Maria Josefa Txurruka)

pujamanta • perratzaileen erreminta, kasakoak garbitzeko eta berdintzeko erabiltzen dena.

pulamentu ('fundamentu') • ganora: *Hoi dek, hoi pulamentu gutxiko gizona*.

puntapax ('punta-paris') • iltze mota.

puntera • tertzak dituen soketako bakoitza, txikot nagusia eta amu bakoitza lotzen dituen.

purtzill ('purtzil') • neska zikina, traketsa, itxura txarrekoa.

puska • zati.

puskaten ('puska batean') • denbora tarte batean.

puskatu

*"Gaiñea pelotan asko nola iten zan, asko urratzen zian zeak, alpargatak, eta nik mou askotako alpargatak zeatu ditut: es-te, espartuzkuak eta gomezkuak'e bai; baiño danak **puskatzen** giñuzten, ta... Eta zulua o abar, eta halare segi iten gendun, e, honbre, bai, bai, bai, bai."* (Juan Iturria)

putre • hegazia, *Gyps fulvus*.

putz • hotsik gabeko puzkerra; *putz miña*, usain gogorreko *putza*.

putzabera ('pozadera') • ura lortzeko etxe inguruan egiten den putzua.

puxika • globoa.

puxkat ('puska bat') • asko, dexente.

puzker

saardotei ('sagardotegi')

sabel

saiatu

saizuri • hegazia, mirotz zuria, *Circus cyaneus*.

sakaponetan jostatu, xakaponetan ein ('sakaponetan jolastu') • tortolasetan, asajetan egin; bildots hezurrekin egiten den jolasa.

*"Zer zan hori? **Xakapona** zer zan? Hori, arkumian hexur bat izaten da, barrutik... horrek lau zea izaten dittu, ta..."* (Juana Lizarralde)

sakillo, sakillote • hegazia, *Gavia sp.*

salabardo

saltaka • badirudi Getaria eta Zumaia inguruko dela gehiago, baina Zarautzen ere entzuten da, *korrika* gehiago erabili arren. *"Ta uniformiakin jun behar, galtzerdi bel-bel-beltzakin. Ta geo handikan erten ta dantza jun nahi plaza. Ta uniformiakin juten bagiñan mutillak ez zian hurreetzen... eta guri itxillua, zea, **saltaka** jun behar etxea aldatzea"* (Feli Arruti)

samar

sanjose lore • uda lorea, primula.

santaeske • Santa Ageda bezperako eskea.

sapai ('sabai')

sarbo • arraina, *Diplodus sargus* (?)

sarbo gorri • sarboaren antzekoa, baina gorriagoa.

sarboleta • arraina, sarbo txikia.

sarda • arrain talde handia.

sarde • baserriko tresna, 3 edo 4 hagin dituen erreminta.

sardinzarrak, sardiña zarrak ('sardina zaharrak') • sardina lehortuak, garai bateko jaki ezaguna. Guardia zibilei ere esaten zitzairen (*txapelokerrak, sardiña zarrak...*).

sartu-atean ('sartu-aterean') • garia makinan jotzeko modua, burua sartu ondoren, berriro atereaz, eta bizpahiru aldiz berdina eginez. Garia jotzeko hiru moduzuden: *sartu-atean, aurea pasan* eta *txanketan joz* (eskuz).

sasilarrosa • mendiko larrosa basatia.

sasoi • 1.- osasuna; 2.- garaia.

sastar, xastar, xaxtar ('sastar') • eskasa edo balio gutxikoa; neurri batean, baita zakarra edo narrasa ere, edo esperotakoa baino txarragoa. *"Noa zuaz niki xastar horrekin Donostira?" "Majiña bat kilometro ein genitun gure kotxe xaxtarrakin"*.

sastraka • sasitza.

sataiñ ('satagin') • animalia, xaguen itxurako intsektujalea, *satitsua*.

satitsu • animalia, xaguen itxurako intsektujalea, *sataiña*.

sega • handia (zelai handietarakoa), eta txikia (pendizak eta malkarrak diren lekuetarako).

segapoto • sega zorrozteko harraitza eramateko ontzia.

segitu

seiziya ('segizioa'). 1.- hiletan ostean egiten zen jatordua. 2.- hildakoaren senideek hildakoari egiten zioten segizioa edo protokoloa.

sekula

sen

senire ('senide') • bereziki anai-arrebak adierazteko; bestela, orokorrean, *familiakua* edo *familiartekua* erabiltzen dira gehiago.

*"Ezkundu nitzan Zaautzen; bai ba, han basarrin lanian, ta ni gazteena nitzan **senidetan**"* (Joxe Mari Uria)

senperrenak esan • kristorenak esan.

serora • elizak eta ermitak zaintzen dituzten emakumeak.

serora-etxe

sinistu ('sinetsi')

siote • hegaztia, txirta, *Anthus sp.*

sits • zomorro hegalaria, arropa jaten duena.

soiñoko, soiñeko ('soineko')

soiñu-jotzaille ('soinu-jotzaile') • modu berean *pandero-jotzaille, karga-jasotzaille...*

sokalatz • zurdekin egindako soka, esate baterako, uztarria lotzeko erabiltzen da.

soldata

soldauska ('soldaduska')

solki • buru gainean jartzen zen zapi itxurakoa, pitxerrak eta beste ontzi batzuk gainean eramateko.

somatu ('sumatu')

sona

sorbalda

subiangilla, suangilla ('sugandila')

suge, sube ('suge') • hainbat klase daude, zelaian batez ere *suge berdia*, gaiztoena *suge gorriya*.

suhi

su-pertz • laratzean zintzilikatzen zen pertz handia.

susa, susaa ('susara') • behiak arreske egotea; pertsonekin ere erabiltzen da, lagun artean, baten bat oso bere onetik aterata dagoenean, edo burla egiteko ere bai: *Susaa al zabe?*

sustrai

sutei ('sutegi')

suur, sur, sudur, sugur ('sudur')

suurzulo ('sudurzulo')

taatulu ('daratulu')

takateko • buruan hartutako kolpe minberatsua.

takatu, takau ('takatu') • lurra hartu, pasadako hegaztiekin, batez ere.

"Ahatiak. Goizetan hegabera ta illuntzetan ahatia, hegabera're asko, bertan takatuta, kostan takau ta, golfian takau ta. Hor tirua galaziya zeon baiña in iten zan, Guardia Zibilla zaitu ta aurrera. Hala zan hori" (Ander Alberdi)

taket • 1.- ohol tentea; gurdien ertzetan jartzen direnak, edo hesietan, esate baterako; 2.- itsasoko ugaztunen eta arrain handien aleta dortsala.

talo-burni ('talo-burdina') • taloak erretzeko burdinezko pala.

talo-ohol • taloak egiteko ohola.

tamalez

tankera

tankeratsu • antzera.

tanto • tanta, ur-tanta; *tantanaka* ere esaten da.

tariñ ('tarin') • hegaztia, *Carduelis spinus*.

tarteka • aldian behin, noizik behin.

tarteko jarri • liskar batean, bi lagun artean jarri, konponbidea aurkitzeko.

tente

terral • eguraldi eta haize hotz-hotza, lainoa eta bisutsa dakarrena. Baita laino itxia ere, lurrari itsatsita geratzen dena.

terraa • baserritarren arteko aseguru edo hermandadea: norberak pagatu egokitzen zaiona, eta gero beharra gertatuz gero (behi bat hiltzea, esaterako), kajatik kobratzeko.

timoi • baserriko tresna, area edo karramarroa uztarriari lotzeko erabiltzen den pertika labur-laburra.

tintero • itsas trikua.

tiña ('tina') • ontzi handia: arropa garbitzeko, txorizoak gordetzeko...

tipula

titi

toilla ('toila') • arraina, *Mustelus asterias*.

toki

tolare • sagardoa eta txakolina egiteko lekua; fruitua, tolarean sartzen da, eta ardatza estutuz, zukua ateratzen zaio.

tolestu, tolestatu ('tolestu')

tolet • untziaren zatia, arrauna katigatzeko dauden egurrak.

tosta • untziaren zatia; traineruetan, jarlekuak dauden alderdia, eta arrantza ontzietan erdiko alde guztia, marinela (*tostartekoak*) doazen tokia.

traillu ('trailu') • baserriko tresna, uhal baten bidez lotutako bi egur; bata helduz, bestearekin koltxoak astintzen ziren; babarrunak aletzeko ere erabiltzen zen.

trañneru, trañneu, triñau, triñero ('traineru') • orain kirola egiteko bakarrik erabiltzen dira, baina XX. mende hasierara arte arrantzarako erabiltzen ziren. Zarautzen hondartzan bertan lehorreratzen ziren.

tranga, tranka ('tranga') • ateak ixteko egurra.

"Uso denbora zanian etortzen zan ta han, esto, bazeon zeatikan, bandiyotikan atea kanpoa ertetzeko, ta sukaldian bihian, eta habitaziyuak'e aparte. Ta, baiña, bandiyotikan ate bat bazeon ertetzeko kanpoa, ta, tranga bat ipintzen zitzaion horrela, zea, atiai atzian, ta. Harek ipintzen ziyon hola tranga, eutsitzeko itxita itxuran, ta aide, ehizea. Eta patata ipintzeko denbora ta, gizona palta." (Maria Josefa Txurruka)

trangaera ('trangadera') • enbor zati handia, egurra moztu behar denean egurra gainean jartzeko erabiltzen dena.

trapailla ('trapaila') • haize-olatua, haize bortitzaren eraginez sortzen den olatu mota gaiztoa.

tratu • plazara saltzeko eramaten zen jeneroa. *"Nere amona eunero juten huan plazaa tratuakin"*.

trebe • iaioa.

trepeta • erreminta, lan-tresna.

tresabi • ganadua lotzeko eta jaten emateko tokia: aska, burua ateratzeko egitura, eta aurrera jo ez dezaten jartzen zaien topea.

tresabi-aurre • tresabien aurreko gunea, ganaduei jatekoa emateko lekua; lehen-go baserri askotan, sukaldearen eta ukuiluaren arteko pasagunea.

tretza • arrantzarako aparejoa, *palangrea*.

triku

tripaundi ('tripandi')

trontza • baserriko tresna, bi lagun artean egur pieza handiak ebakitzeko erabiltzen den zerra.

trontzatu

trumoi • ekaitza.

ttunttun • musika-tresna, txistua eta danbolina.

tuntunpaela • buru gutxiko neska; gizonezkoentzat *tontolapiko* erabiltzen da.

tupiya ('tupia') • zurginen tresna; goitik bererako ardatz sendoa du, eta ardatzari edozein kutxilla edo fresa jarritz, nahi den formako moldurak ateratzen ditu.

txabilla ('txabila') • haria egiteko tresna; kasu batzuetan, zurdekin sokalatzak egiteko erabiltzen zen.

txakolin

txakolintei ('txakolindeg')

txakur

txala in ('txahala egin') • lagun artean, bota-ka egin.

txaldanduta • makalduta eta zorabiatuta, gehienbat eguzkiak pasatakoan esaten da.

txamar • 1.- dirua, txanponak; 2.- hondarrak, bukaerak, batez ere belar eta landareenak: "*Bildu itzak txamarrek txukun-txukun metatxorro ondoa*" (Iñaki Zulaika)

txango • pertsona gaixoa, batez ere, eritasuna besoetan duenean; kiroletan ere erabiltzen da, ezgaitasuna adierazteko: *Horrek ezkerre ziharo txangua dik.*

txangulu ('txankulu, txokolo') • egurrezko oinetakoak, arrandegietan eta toki bustietan hezetasunetik babesteko erabiltzen direnak.

txankame • hanka edo zango meheak dituen pertsonari esaten zaio.

txanketan jo • garia jotzeko modua, galburua harri baten aurka joz (makinarik ez zegoenean).

txantxangorri, txantxagorri ('txantxangorri') • hegaztia, *Erithacus rubecula*.

txaparro • bainujantzia.

"Dantza mutillakin ezin zan in, ezta... bestela Hijas de Mariastikan botatzen zizuen. E... kalian erten... bai plazan ta... ezta pentsatu're, beatzitako etxea, bestela pekatua zan. Txaparruak, txaparruak, 'el traje de baño', nik monjai eakutsi, eaman in behar izaten giñon ikusteko nolakua zan, aitu? Eta gona bat eta ez baldin bazakan, 'estábamos escomulgadas', ta orduan berriya in behar zan. O berriya, o ez zan hondartza juten." (F. Arruti)

txapitula • mendian egindako txabola itxurako behin-behineko eraikin txikia.

txara, txaraka ('txara') • berez sortutako baso zaindugabea, itxia, zuhaixkaz eta sasiz betea.

txardango • urkila itxurako egurra, esate baterako, tiragomak egiteko erabiltzen dena, edo belarra zabaltzeko erabiltzen dena.

txarraskala, txirriskala ('txirriskila') • hegazia, *Saxicola torquata*.

txarren, txarran • baserriko tresna, bostortzaren antzekoa, baina 7-9 hortz dituen. Lurra gorritzeko erabiltzen zen, batez ere artotarako (garitarako, aldiz, goldea gehiago).

txartau, txertau ('txertatu') • 1.- fruta-arbola eztitu, mentatu; 2.- animaliei txertoa jarri, ez daitezen gaixotu

"Bazan gurian ardo-mahatsa, baiña (...) gero txertatuta ta abar ta, dana aldatu in zian. Asko ematen zun ta zeatu in zan, dejeneatu o, zeatzen zala, ale ttikiya ta, nik ez dakit ze itten zun. (...) ez zun behar bezelako fruta ez zun hazten azkenean, ta txertatu in zun gure aitta zanak, ta bastante ondo hartu ziyon txertuak.. Itxian ondon dagonak'e zepa, behekua, ardo-mahatsa du, ta oso txakoliñ-mahats... txertauta dao ta, mahats zuriya oso earra ematen du." (Inazio Lazkano)

txatxu • tuntuna, babua; ganora edo indar gutxikoa.

txepel • indar eta animo gutxikoa, goibela; ilearen kasuan, bolumen gutxikoa.

txepetx • hegazia, *Troglodytes troglodytes*.

txepetxuri ('txepetx zuri') • hegazia, *Phylloscopus sp.*, txioa.

txermen • udare txiki mota bat.

txerri

txerritei ('txerritegi')

txibi ('txibia')

txikori ('txikoria') • landarea, *Cichorium intybus*.

txikot • itsasoko lexikoan, soka sendoa.

txilbor, zilbor ('zilbor')

Txilikuko urarekin bataiatua izan • ona izan, ganorazkoa; Txiliku Zarauzko ingurunea eta iturria da. Parrokia ondoan dago eta hango urarekin bataiatzen ziren zarauztarrak. Harrotasun puntu bat bazuen hori esateak, "*ni zarauztarra naiz*", alegia; baina inguruko herrikoentzat beste zerbait esan nahi zuen esaera horrek, *haizea* edukitzea, *harroxkoa* eta *egoskorra* izatea.

txilipito ('txilibitu')

txilipota • hegaztia, *Charadrius* eta *Calidris* generoetako gehienak.

txillar ('txilar')

tximeleta

tximili-kuarteka, tximini-kuartaka • ezku-taketan jostatu.

"Hamalau-hamabost urteako fundiziyuan gizonakin lanian zabillen hua. Ta handik ertetzen zanen, tximili-kuarteka ibiltzea o izango gendun, korrika. Danak, neska ta mutil ibiltzen giñan. Santa Maiñan bai; Santa Maiñatarrak beti alkarrekin ibiltzen giñan." (Manoli Olaizola)

tximillu • txirbila, zura lantzen denean sortzen diren egur zati fin kiribilduak.

tximista

txinbo • hegaztia, *Sylvia atricapilla* eta *Sylvia borin*.

txindur-aski • inurritegia, inurritontorra.

txindurri ('inurri')

txindurritu • hanka eta besoa lokartu.

txingar, xingar, bihatz xingar ('behatz txingar') • hatz txikiena.

txingura, txungura ('ingude') • gaur egun, ezagunena, sega pikatzeko erabiltzen dena.

txintxola • arrantzarako tresna.

"Ilandetan, este, txintxola deitzen zio-gun zea bat izaten zan, ba, perun lori hola, astun samar batekin, holako alanbre bat. Ta alanbre bakoitzan zintzilika, ba, metro bateko beste puntera bat. Han bi amo, ta beste aldiari beste bi amo. Ta, perunakin, zean. Ta han, ba, antxoa eskabetxatua, ixkira onena".

(Juan Agoues)

txintxosta • trentza, txirikordatutako ile-mototsa.

txiñal ('txinal') • txankleta.

txiñalka ibili ('txinalka ibili') • etxeko zapatilak edo alpargatak atzetik sartu gabe ibili.

txirbill ('txirbil') • *tximillua* ere esaten da, eta *kizkurra*.

txirla • almeja tankerako molusku txikia, hondartzan-eta agertzen direnak.

txirringillo, txirringulo ('zirringilo') • hegaztia, *Apus apus*.

txirripito, txirripitto ('txirripito') • hegaztia, *Alauda arvensis* eta *Lullula arborea*.

txirrisbalatu • irristatu.

"56ko jelate hartan makiña bat jendeke hezurak puskatu zizkian txirrisbalatu eta eroita" (Iñaki Zulaika)

txirta • ganaduari jateko ematen zaion belar mota.

txistu • musika tresna. Nagusienek *ttunttun* edo *danbolin* darabilte gehiago, txistua eta danbolina elkarrekin hartuz; eta *txistulariari danbolinterua* esaten zaio.

txistu ('tu')

txitxare ('zizare') • 1.- lur azpian bizi den anelidoa; 2.- hesteetan bizi diren har parasoak; 3.- *Ez neri txitxariak berotu!*

txitxiezpada • oso argala, ihar-iharra, *txitxiezpada* ematen dezu!

txixagura • *pixagura* ere bai.

txixalarri • *pixalarri* ere bai.

txoka • hegazia, *Carduelis cannabina*.

txokorro • itsasoko animalia, *Maja squinado*, txangurroa.

txolarre • hegazia, *Passer domesticus*.

txoliñ ('txolin') • buru arinekoa, ganoraga-bea, bereziki neskak.

txomin • logurea. Batik bat hurrekin erabiltzen da, baina helduekin ere bai, norbait ahozabalka ikusi orduko, "*Ze dezu? Txomin?*" esan ohi da; edo logurea izanik, "*Txomin sartu zait eta ohira nijua*".

txonta • hegazia, gailupa, *Pyrrhula pyrrhula*.

txordoka • mahatsa bildu ondoren, batzuetan, bigarren pasada bat emateko baime-na eskatzen zen (behartsuek, gazteek...), jaso gabe geratutako aleak batzeko; horri esaten zitzaion *txordoketa egitea*.

txorikaka izan • hutsaren hurrengo izan.

txori-kardo, txori-kardu ('txori-kardu') • belar txarra, *Cnicus benedictus*.

txorkatilla, txorgatilla ('orkatila')

txoro, zoro ('zoro') • neurri batean *txoro/zoro* bereizketa egiten da: *txorua* buru arinekoa, eta *zoroa* gaixorik dagoena.

txoropito • txoriburua, kaskarina.

txorta ('sorta')

txukundade ('txukuntasun')

txupin • limonada botila.

txuri, zuri ('zuri')

txuringa ('zuringa') • uzkiaren inguruko barneko muskuluak; batez ere ganaduarekin erabiltzen da, txahala erditu ondoren *txuringa atera* egiten delako.

txuringo ('zuringo') • arrautzaren zuria.

uda igo ('ura igo') • zuhaitzak udaberrian 'piztu', ura sustraiaetatik ostoetarantz igo.

udaberri

udara ('uda')

udare

udatzen • udazkena.

udazale • turista, udatiarra, beraneantea.

udazken

ugaldu

ugera, uhera ('uhera') • itsasoan dauden ur korronteak, ibai antzekoak; *ugera txarrian nao, eta ez det ezer harrapatzen*. Era berean, ontziek atzean uzten duten ur-korronteak.

ujalak, ujolak, ojalak ('uholdeak')

ukalondo

ukendu

ukullu, ukollo, ikullu ('ukuilu')

ukullu-atxur, ikullu-atxur, ikillatxur ('ukuilu-aitzur') • baserriko tresna, *lauhortze-koa*, lau hortz dituen sarde mota; hortzak okerrak ditu eta batez ere ukuiluan erabiltzen da, simaurrarekin, eta abar.

ume

une

upel

ur haundi ('ur handi') • itsaso zabaleko urak.

urdinka ('urdinkara') • urdin antzekoa, urdinxka.

ur-gezatu • itsasoko gatza kentzeko, zerbait ur gezatan sartu, adibidez, hondartzan edo arrantzan erabilitako tresnak, eta abarrak, garbitzeko.

uroillo ('uroilo') • hegazia, *Gallinula chloropus*.

urraburu • arraina, *Sparus aurata*.

urretxindor • hegazia, *Luscinia megarhynchos*.

urruti

ursula, usula ('ur-suil') • egurrezko ontzi handia, behea zabala, gorago estuagoa, eta zenbait uztai dituen. Hainbat erabilpen zituen, besteak beste, txakolina egiteko prozesuan ere erabiltzen zen, baina bereziki iturritik ura ekartzeko erabiltzen zen. Etxeetan urik ez zen garaian, etxeko emakumeen lanetako bat iturritik etxera ur-suilletan ura ekartzea zen. Garrantzi handia izaten zuen ur-suilak garbi-garbi izateak, horrela erakusten baitzen emakumeak bere garbitasun eta prestutasuna.

ur-zakur • animalia, *Lutra lutra*, igaraba.

usaitu, usaindu ('usaindu')

uso erdiko • hegaztia, *Columba livia*, neurri ertaineko uso klasea.

uso haundi • hegaztia, *Columba palumbus*; *pasadako usoa* edo *pagousoa*.

uso txiki • hegaztia, *Columba oenas*, usoen artean txikiena, txoloma.

usteldu**utzi****uxatu**

uzta ('uztaila')

uztai**uztarri**

uztau, uztao ('uztao') • belar txarra, baratzeetan azaltzen den ugari eta txarrene-takoa, *Rumex sp.*

xagu

xakel, zakel • igela.

xator, sator ('sator')

xahutu • gastatu, ahitu.

xauxar, sauzar ('saguzar')

xaximaixu ('sasimaisu')

xerra • haragiarena zein arrainena.

xipitz ein ('izpitu')

xinpro (?) • pertsona lotsagabea.

xoxo ('zozo') • hegaztia, *Turdus merula*.

zabaldu • hedatu, zabal-zabal egin, adibidez, maindireak ohean, arropa lehortzeko, sareak itsasoan... Edo *eguna zabaldu*.
"Hara illunpian, illunpian. Batzuek euna zabaldu baiño bi ordu lehenuo igual. Baiña eguna zabaltzeako, han." (Juan Agoues)

zahi • irina bahetzean, bahean geratzen diren gari-azal puskak; *zahi haundia* eta *zahi txikia* daude.

zaitu ('zaindu')

zakar

zakil • hitz tabua izan da, eta ordezkio hitz asko erabili izan dira: *txilibitua*, *antxoa txikiya* (umeena), *pitilina*...

zaldubi • hegaztia, *Lanius collurio*, antzandobia.

zamo, zamu • babarrunak izaten duen zomorroa, gurgurioa.

zamorro, xamorro ('zomorro')

zanbulla jo • murgil egin. Batez ere Getariako hitza, Zarautzen *murgil* egiten baita. Bi herrien arteko txantxak ere izan dira, hitzongatik.

zanga • 1.- hegaztia, *Morus bassana*. Orion ere *zanga* esaten da, Getarian *glope*, eta Zarautzen bietara, hiztunaren arabera. 2.- lur sailletako ubideak, erretenak baino handiagoak; ubide izanik, muga funtzioa ere betetzen dute erriberetako lur sailletan.

zapatu • zarautzar edadetuen artean, *zapatua* esaten da, ez horrenbeste *larunbata*.
"Jaitan musika izaten zan hamen. Ta uda partian iten zan, ez dakit, astin bitan jartzen zuen, osteunian ta zapatun uste det jartzen zuela." (Joxe Mutiozabal, *Txabillo*)

zapelaitz ('zapelatz') • hegazia, *Buteo buteo*.

zapero • txerriei eta oiloei jaten emateko egiten den orea. Adjektibo bezala, pertsona takarra.

zapi

zaplaska • uretara murgil egin, ur-azala bu-larraldearekin zanpatuz.

*"A lo angel, ta karpa... Ta bestia **zaplaska** izaten zan, zumb! ta, braaa!, ta urai eman, jata... Igual holako ura ta kamiyo-tik, e!... (...) Petxua, petxuakin jo. Igual, karreteratikan murkil in ta metro beteko urian bakarrik, e!" (Pako Olazabal, Paxo)*

zapo • arraina, *Lophius piscatorius*.

zarpildu ('zarpaildu') • nahastu, narrastu.
Lastima, haiziak ilia zarpildu dizu ziharo. Piura earrian jarri zea.

zata • gomazko kubiartekin egindako abar-ka tankerako oinetakoak, baina atzeko aldea zerbait altuagoa zutenak eta au-rrekoa, berriz, zapata itxurakoa.

zatar

zazpiortz, zazpiko • baserriko tresna, zazpi hortz dituen golde itxurako tresna.

zeatik, zeatikan ('zergatik')

zein

zelai

zelatatu

zenbait

zerra

zerra-ballesta ('zerra-balezta') • zurginen tresna, goitik beheraka ebakitzen duen eskuko erreminta.

zerrakote • korte fineko zerra

zerratei ('zerrategi')

zerrauts

zerra-zinta

zerrote • tarteko piezak ebakitzeko erabil-tzen den eskuko zerra.

ziharo ('zeharo')

zimaaur, zimor ('zimaaur')

zimitayo ('zementerio') • 1.- hilerria, kanpo-santua; 2.- eliza ataria (izan ere, garai ba-tean eliza atarian izaten zen hilerria). Biga-rren adiera hori da erabiliena Zarautzen.

zinbrun • pertsona goibel eta ezkorra.

zingira

zintzarri, txintzarri ('zintzarri')

zintzilik, txintzilik ('zintzilik')

zipitz • beti ezezeko esaldietan, ezer ez, hu-tsa: ez *daki zipitzik* ere.

ziraun

zohi • belardi zatia, erremintak jasotzen duena.

zokolin • zokotona, intxaurraren kanpoko azal berdea eta eskuetan uzten duen zi-kina.

zokomiran

zokor • lur zatia, lurra lantzean xehetu gabe geratzen den lur-tontorra, belarrik ga-bea.

zokor-mazo • zokorrak jotzeko eta txikitze-ko egurrezko mazoa; hedaduraz, *babua, kaikua*.

zokorra jo • zokor-mazoa erabiliz, zokorrak xehetu.

zonzongo/a • grazia gutxiko, nerbio gutxiko pertsona.

zopizarrean jardun • lurra azaletik jorratu, belar txar txikiak kenduz eta lurrazala hautsiz.

zorri • 1.- ile artean azaltzen den zomorroa; 2.- landareek izaten dituzten zomorro txiki kaltegarriak; 3.- erreketako harrien azpian bizi diren animalia txiki saltakariak.

zoru

zotal • belarrez estalitako lur zatia. Zohia-
ren antzekoa, baina apropos erabilera
baterako, jasotako lur-atala. Esate bate-
rako txondorra edo txabolak estaltzeko
erabiltzen diren lur zatiak.

zugatz ('zuhaitz') • belar-meta.

zur

zurda • behor eta zaldien lepoko ile luzeak.

zurrutian ein ('zurrutean egin') • edan; neu-
rri batean, eta hiztun batzuen ahotan,
bada *zurrut/txurrut* bereizketa: mozko-
rrek *zurrutean* egiten dute, eta umeek,
aldiz, *txurrutean*, txurrutaka edaten dute
esnea.

zuzi • bideak argitzeko sua eman zaion las-
taikoa, *lastazuzia*.

zuztar



7

Zarauzko euskararen kokapena

Ondorengo orrialdeetan, Zarauzko euskararen ezaugarri nagusien zerrenda eskematikoa azalduko dugu, batez ere Zuazoren (1998) sailkapenari jarraituz eta Zarauzko euskararen ezaugarriak eremu geolektalen arabera aztertuz.

7.1. Zarauzko euskararen ezaugarrien zerrenda

7.1.1. ERDIALDEKO EUSKALKIAREN EZAUGARRIAK

- Hitz hasieran z- > tx- : *txoro, txuri, txilbor, txintxo...*
- -uin > -ui: *igui, ipui.*
- Hitz hasieran [x] ahoskera nagusitu da: *jaitsi, joan, jo, jokatu, josi...*
- Erdarazko -(c)ión > (z)io (ziyo).
- Aditz-izenak osatzeko -tzen /-ten besterik ez (-n edo txistukari + i amaierekin -ten).
- Bai/Ez galderetan AL partikula erabiltzen da.
- Aldaerak: *bezela, bixki, burni, pake, sapai, txindurri, udara...*
- Lexikoa: *aitona, amona, arkakuso, aurrena, babarrun, bailara, behinik behin, belaze, behatz, bukatu, Erromako zubi, esnatu, faborez, garo, hitz egin, hots egin, iaio, ilbeltz, kaz-kabar, lapurtu, mami, mikatz, mingain, neskame, pareta, sona, triku, urruti, zilbor.*

7.1.2. EUSKARA GIPUTZAREN EZAUGARRIAK

- A itsatsia galduta dago (-i ostean batez ere): *zikinkeri, farmazi...*
- d>r bilakaera indartsua: *biria, moruan...*
- f>p bilakaera: *periya, pallua, apariya...*
- Edun aditzaren orainaldiko -e- erroa: *det, dek, degu, dezue...*
- Izan aditzaren orainaldiko erroa -e- da: *gera, zera...*
- Joan aditzean adizki bereziak: *nijua, dijua...*
- Aldaerak: *apaiz, eskubi, ebi, elbi...*
- Lexikoa: *zein (nor desagertu egin da).*

7.1.3. AZPIEUSKALKIAREN EZAUGARRIAK

Gipuzkoa iparraldeko azpieuskalkia

- e + a, e, o > i eta o + a, e, o > u: *biartan* ('behe hartan'), *guatu* ('gogoratu')...
- /i + a, e, o/ ingurunean <y> epentesia (*ogiya*, *mendiya*, *txikiya*...). Aian eta Orion agertzen den /u + a, e, o/ ingurunean epentesia (*kukuba*, *diruba*, *buruba*...), ez da ageri gaur egungo Zarauzko euskararen (Urteta auzoan bakarrik).
- Txistukari sail biak berdindu dira (ts=tz; z=s). Hala ere, baserri giroko edadetuenek neurri batean oraindik ere bereizten dituzte s eta z.
- Trinkoen iraganaldian -a- erroa dago: *nakin*, *zakan*, *nabillen*...
- Ablatiboko -*gantikan*, *gandikan*; motibatiboko -*gantikan*, partitibo eta partizipioetako -*rikan* eta osagarrietako -*enikan*.
- Lexikoa: *jela*, *laga*.

Gipuzkoako erdigune eta sortaldeko azpieuskalkia

- Aditz iragangaitzetako hitanoko adizki bereziak: *natxiok* ('nagok'), *natxiak* ('noak'), *na-txatorrek* ('natorrek'), *natxibillek* ('nabilek').
- Ahalera osatzeko, aditz nominalizatua + eduki: *ekartzia badakat*.

Ez dira betetzen:

- Partizipioa + TA ez ezik, partizipioa + A ere agertzea (neurri txiki batean bakarrik Zarautzen).
- *Bizitu*, *egondu*, *edukitu*, *ibildu*, *izandu*, *jakindu*... tankerako partizipioak (oso urriak Zarautzen).
- Partizipioa eta aditz oina bereizi egiten dira oraindik: *har'zazu* (Zarautzen: *hartu'zazu*).
- Kausa perpausetako *bait-* aurritzia (*baitira*, *baitzekiten*...) ez da erabiltzen Zarautzen.
- Gipuzkoa sortaldean erabiltzen diren zenbait hitz ere ez dira agertzen Zarautzen (edo leku txikia dute): *isats*, *itsusi*, *Eguberriak*, *larunbat*, *igande*...

Gipuzkoa hegoaldeko azpieuskalkia

Ez dira Zarautzen agertzen:

- I eta U ostean a > e bilakaera (*dirue*, *mendie*...).
- Ablatiboko -*ti(o)* eta motibatiboko -*gati(o)* aldaerak.

Beste bi hauek, aldiz, erdizka betetzen dira:

- Bokal luzeak (baserritarren artean bakarrik Zarautzen).
- Mugatzailearen asimilazioa: *mendin*, *diruk*... Absolutiboan, ergatiboan eta inesiboan ger-tatzen da Zarauzko baserritarren artean, baina ez beste kasuetan. Kaletarren artean inoiz ere ez.

Gipuzkoa sartaldeko azpieuskalkia

- *Neuk* tankerako izenordain indartuak erabiltzen dira gehienbat Zarautzen, Azpeitia eta Deba inguruko hizkeretan bezala; Orion, oster, *neonek* tankerakoak.
- Kontzesiboetan *-arren* dago (nahiko galduta).
- Gipuzkoa sartaldeko (eta Bizkaiko) zenbait aldaera eta hitz ere agertzen dira Zarautzen: *azpikoz gaiñera*, *bigun*, *dandarrazka*, *erten* ('irten'), *Gabonak*, *hurre* ('hur, hurbil'), *izeko*, *matraill*, *okela*, *sastar*, *taket*, *txikot*, *txixa*,... Horietako zenbaitek B (Bizkaiera) marka da-ramate hainbat hiztegitan (*sastar*, *hur*, *taket*, *txikot*, *dandarrez*...).

Beste guztiak ez dira Zarautzen agertzen:

- *-a + a > ea* (hitz gutxi batzuetan bakarrik geratzen da mugatzailearen aztarna: *azaa*, *sal-daa*, *gaztaa*..).
- Destinatiboko *-endako* ('-tzat') atzizkia.
- *egin erroa N-N-N sailean (*daikau*).
- *-ado > -au* eta *-idu > -iu* (hautazkoa Zarautzen).
- *Erten* iragankorra zein iragangaitza izatea.
- Esaldi osagarrietako *-ena* aitzizkia .
- ALA hautakaria.
- Gipuzkoa sartaldeko zenbait aldaera eta hitz ere ez dira agertzen Zarautzen: *be* ('ere'), *gaztai*, *ete* ('ote'), *gitxi*, *abade*...

Ez da hain berdina eta ez dauka hainbesteko nortasuna Urolaldeko hizkerak. Hemen, gainera, sakonagoa izan da Beterri-Tolosalde ardatzaren eragina. Gaur egun, behintzat, oharkabean egiten da eremu batetik besterako bidea: Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Zestoa, Errezil eta Beizama dira tarteko hizkerak. (Zuazo, 2003:140).

Ados gaude Zuazoren hitzekin, baina lan honetan jaso ditugun ezaugarriak eskuan, ez dugu uste Zarauzkoa ingurukoak baino “Beterrikoagoa” denik, eta gure ustez hurrago dago Urola Kostako gainerako hizkeretatik Donostia eta Tolosaldeko hizkeretatik baino.

Zarauzko euskara auzokoen artean

Zarauzko euskara aztertzeke orduan kontuan izan beharreko beste puntu bat kaletarren eta baserritarren hizkeren arteko aldea da. Izan ere, Zarauzko hizkera kokatzeko orduan, mugaren bat jartzekotan, Zarauzko kaletarren eta baserritarren artean dago alderik handiena, eta ez horrenbeste Zarautz eta inguruko herrien artean. Hauek dira kaletarren eta baserritarren arteko ezberdintasun nabariak:

- **Mugatzaile asimilazio** nabaria dago Urola Kosta barneko herri gehienetan (Aia barne): *zorrik* (vs. *zorriak*), *hemengok* (vs. *hemengoak*), eta abar. Zarautzen arrunta da baserritarren artean, baina bazterrekoa kaletarren artean.
- **-u + a mugatzailea: -uba** gertatzen da Zarautz inguruko herri batzuetan: Aian eta Aizarnan, besteak beste. Adibidez: *buruba*, *xaguba*, *diruba*, *trikuba*... Zarauzko kalean erabat ezezaguna den ezaugarria, araua da Urteta auzoan.
- Urola Kosta guztian gertatzen da **-it > -itt bustidura**, baita Zarauzko mugakide diren Aizarnazabalen edo Aian, esate baterako. Zarauzko baserritarren artean ere horrela da, baina ez kaletarren artean.
- **p/f aldaerak**: baserri giroan ohikoak dira *apariya*, *periya* edo *Pernando* bezalako aldaerak; kalean, ordea, arrotzak.
- **Mugatzailea a + a > aa**: horrelako formak baserritarren artean dira arruntagoak: *saldaa*, *gaztaa*, *askaa*...



Gipuzkeraren edo Erdialdeko euskalkiaren eremua (Zuazo, 2003)

Laburpen modura, esan daiteke, Zarauzko kaletarren hizkera jasoagoa dela, osatuagoa eta estandarretik gertuago dagoela. Nolabait esateko, kaletarrek baserritarrek baino hizkera ‘zainduagoa’ daukate, beharbada herriaren izaerarekin eta historiarekin bat datorrena. Zua-

zoren ustez (2006), esate baterako, fraileen eragina dago Azpeitiko hizkeraren zenbait ezaugarritan²⁴. Ez litzateke harritzekoa Zarautzen ere antzeko arrazoi historikoren bat izatea.

Inguruko herrietako hizkerarekin alderatuz, eta batez ere baserri giroko ezaugarri horiek kontuan hartuz, neurri handi batean oso antzekoak dira Zarauzko euskara eta auzokoak. Hasteko, Zarauzko euskara eta Aiakoa senide hurbil-hurbilak dira. Alderik handiena, egotekotan, Zarauzko kaletik baserrietara dago, baina Zarauzko baserri-eremutik Aiara dagoen aldea txiki-txikia da. Aizarnazabal eta Aizarna ingurukoa ere taldekoa litzateke. Izan ere, inguru horretako baserri-auzo gehienek hartu-eman handia izan dute beraien artean, eta ondorioz, hizkera ere oso antzekoa dute. Talde horretakoak dira, besteak beste, Urteta (Zarautz), Urdaneta eta Altzola (Aia), Txiriboga (Zestoa), Elkano, Eitzaga eta Meaga (Getaria) eta Aizarnazabal. Ziurrenik, baita Aizarna ingurua (Zestoa), San Prudentzio (Getaria) eta Iraeta (Zestoa) ere. Auzo horietan guztietan eta Zarauzko baserrietan oso antzeko hizkera da-



Urdanetatik (Aia) ateratako argazkia. Barren-barrenean Zarautz, eta ezkerrean hainbat herri bat egiten duten ingurua. Ingurumari horretan elkartzen dira Santa Barbara (Zarautz), Eitzaga eta San Prudentzio (Getaria), Urdaneta (Aia) eta Aizarnazabal.

rabilte, urteetako harremanaren eraginez.

Urrutixeago daude, lehenengo begiratuan behintzat, Getariako eta Orioko hizkerak, baina horiek ere senide hurbilak dira. Alde nabarierik azentuan eta aditz batzuetan dago, ez baina, ezaugarri fonetiko, morfologiko eta sintaktiko gehienetan.

Zarauzko hiztunak ere iritzi berekoak dira; adibiderako, pasarte hauek:

- Nik uste det, hola, hurbillena izan daiteke Aiakoa neurri batean, e, Aiakoa.

Getariak bere nortasun oso berezia du,

baditu bere gauza, e, markatuak, eta nik uste det Aiako... Orikoa ere bai. Bueno, Oriok ere baditu bere zera batzuk, ez? Hamen, Zarautzen esaten da, "Orioko karamelok gozo-gozok". Juxtu, mugagabea, edo mugatzailea, mugatzailea ez dutelako erabiltzen, ez? Laburtu egiten dutelako. Bueno, baiña, bueno, nik uste det hor, e, zona hori izango litzakela, Orijo eta Aiakoak, horrela...

- Eta desberdiñenak?

- Bueno, desberdiñak, ba, Getariak beti izan du hori, ez?, markatzeko hola zenbait gauza. Bueno, askotan txikikeriak izaten dira, e. Ba, Zarautzen ere beti, gauza bat beti esan di-

²⁴ " ...jesuitek misio lanetan jardun zuten iragan garaietan. Hizkuntza lantzea eta zaintzea eskatzen zuen jardun horrek eta, uste izatekoak direnez, «etxe oneko» azpeitiarren artean ere hedatuko zen kezka bera. Hizkuntza jasotze eta dotoretze nahiak ekarri zuen, ziurrenena, t bustia eta i ondorengo dx ahoskera ez onartzea, gertakari bi horiek itsuskeriatzat jo direlako gure artean. Azken batean, ba, azpeitiarrek hizkuntza txukuna eta duina erabiltzeko borondatean egon daiteke auzia argitzeko giltzetako bat." (Zuazo, 2006).

- gutena, “bina-bina”, bustidura ez degulako egiten. “Biña-biña” esango da hemen ingurutako herri guztietan, ta pentsatzen det Euskal Herriko leku gehienetan. Baiña hemen, kaso hortan, eta ez dakit beste txiki batzuetan, ez degu bustidurarik egiten, e. Esaten degu, bai, “elkartu giñen” o “bina duro eman zioten”, edo “bina-bina etorri giñen”. Holako txiki-keria hoiek dira, ezta? Baiña bueno, nik uste det, bai, badaudela horretaz aparte batez ere aditzean. Hikako aditzean Getaritik Zarautza badaude, e, halako desberdintasunak.
- Beraiek, e, gehio jateko...
 - Bai, bai, asko. (...) Hor ba, Aizarnazabal aldea're badago hor beste bat, e... “Txia” deitzen zaion leku bat. Eta berez, Txiriboaga da. Orduan hor ere pentsa nolako laburdura egin dan, ezta? Ta hola, basarri eta holako etxe-izen eta hoetan, asko, asko daude horrelako, ba, hori, laburtzeko ohitura hori. Aizarnazabal'e izan daiteke beste leku bat hola, ba, hizkera aldetikan nahiko, e, berdintsua dana.
 - Getaia baiño gehio.
 - Getaia baiño gehio, bai. Bai. Geo gertatzen dana da Zestu aldea [...], hor badator Urola aldeko zera hori, eragiñ hori. Baiña nik uste det Aizarnazabalen ere nahiko berdintsu, e.
 - Ni pixkat harritu nauena da, e, badirudi hartueman haundiagoa izan dala Getaiyakin Oriyokin baiño. Eta gaiñera, Oriyora juteko mendi bat igo behar da, eta gero erreka igaro, eta... Eta ostera, jende guztiak esaten du Oriyokin euskera oso antzekua dala eta Getaiyakin ezetz.
 - Bai, Oriokin askoz errexago da... Bueno, ez dakit zenbateaiño dan hori ere egia, e. Askotan hartzen diran elementuak izaten dira oso txikiak, eta ez dakit benetan hori egia dan, eta azterketa bat egingo bagendu hor, zenbateaiño dan oso desberdiña, ez dakit [...].
 - Ta beharbada Getaiyakin hiru laburdura eta lexikoko bi kontu dira desberdintzen dianak...
 - Ez dago holako zerarik. Baiño bai. Gehiago, nik uste det kostalde guztian badago entonazioaren halako zera bat, ezta? E... kantatzen... Esaten dute kostaldeko jendeak kantatu egiten degula gehiago euskera zeatzerakuan. Eta hor nik uste det bai badagola diferentzi haundiago Oriyo, Oriyora gehiago hurbiltzen geala Getaiarrak duten doiñu hori baiño, e. Beak erabiltzen duten doiñu hori baiño, hurbillago iten zaigu Oriokoa, e.
 - Beharbada gero barreneko morfologian [...]
 - Bai, ez det uste... Ez, ez det uste, ez det uste diferentzi haundirikan eongo litzakela.

(Jesus Mari Olaizola)

- Ez, ez, ez, holako alde... Nere iritzirako, e, nere iritzirako, Zarautzitan, Oriyotikan Zarautza hixketan, ba, berdintsu samar iten dek. Bai, berdintsu samar zea iten dek, nere iritzirako. Bakar-bakarrikan oriyotarrak [...] izan, baiña haiek maldiziyuan diye indarra gehio. Mutil jatorrenak dituk, munduan dian mutillik jatorrenak dituk, baiña "kaguen diosa" behalaxe botatzen diye.
- Zarautzen baiño gehio?
- Bai, bai, bai, bai. Nik ezagutzen dixkiat mutil jator-jator-jatorrak Oriyon, e! Ta, adibidez, konbersaziyuan eozein kontukin, eo zean da, ta, behalaxe, "E, kaguen dios!"... Holaxe. Alkarri esan, esan, esan izandu dixkiot, "koño, errex botatzen dezue", ta, ba, ba! Ez, ez, hola, ezer esango ez balue bezela.
- Baiña euskera aldetik? Oso antzekuak.
- Getaian'e... Bai, baiña Getaian pixkat azentua, azentu zea, "ámai", "ámena", "ámena", e! "Zein dator?", "Gure ama" [...]. "Jun ai ámana", e, ba, "ámena". Holako zeak baixkiye, bai, Getaian. "Ta zer dezu?" esan beharrian, ba, "Zertzu?". Getaian uain dao, ez zekit berri-berrian, baiña lehen behintzat, "Zer dezu?" o, "Zer nahi dek?", "Zertzu?" esaten due.
- Dana jan?
- Bai. Ta igual esateko postura, "Zertzu?". Hola esaten due. Gaiñontzian, ba, ez, ez, ez, ez dek zeaikan.

(Juan Agoues)

Eta inguruko herrietan ere, nolabaiteko batasun hori azpimarratzen dute hiztunek. Adibiderako, Aizarnazabalen jasotako iritzi hau:

- Euskera aldetik eta, zuek, e, nabaritzen dezue alderik, ba, Zestuko euskera, edo Zarautzekua, zuena...
- Ez, ez.
- Zuen inguruko euskera zer da, gutxi gorabehera antzekua?
- Bai, bai, bai. Hemen antzekua, bai. Oain pixkat erten ezkeo, Itziarrea ezkeo, behin Zumaiatik horrea're bai. Baiña hemen Aizarna, zea, ta habetan igualtsua.
- Hemendik Urdanetara, ta?
- Bai, igualtsua. Ta Aia're bai, igualtsu. Ta, baiña, horrea jo ezkeo, Bizkai aldea, horrea, ya Zumaiatikan Itziar, Deba, horrea ezkeo, ya difeente pixkat. Azkoitin'e bai, e? Ta Azpeitik'e badake hola bere zea bat. Baiña hemen, Aizarna eta Arrua ta Iraeta ta, habek ez, habek igualtsu. Igualtsu.

- Eta Zarautzen?
- Zarautzen'e bai, igualtsu. Zarautza ta Aia ta Oriyo ta habek hemengo moun.
- Zuek ez dezue zaraustar bat entzun, ta ez dezue esaten, "a, hau zaraustarra dekl".
- Ez, ez, ez. Ez, hola zeatzeko ez behintzat. Horrea zeatu ezkeo, beste aldea bai, baiña hemen, hola, behiñ'e. Azpeitikua're bai, Azpeitikua oso nabarmena da, eta Azkoit-kua...
- Eta Getarikua?
- Ez, Getarikua're hemengo moukua, bai, bai.

(Joxe Etxabe, Aizarnazabal)

Egia da, hortaz, Zarausko hizkera zenbaitetan bereiztu egiten dela inguruko hizkeretatik, batez ere Zarausko kaletarren hizkera, baina gure herriko hizkera nonbait kokatzekotan Urolaldeko hizkeren multzoan kokatu beharko dugu, hurrago baitago azpieuskalki horretatik, Beterrikotik baino. Dena dela, lasai asko esan daiteke trantsizioko hizkera dela, Urolaldearen eta Beterriko hizkeren arteko zubi lana egiten duela, eta zenbait ezaugarritan bitasuna aurkituko dugula, bai fonetikan (*narrutsik* vs. *larrutsik*...), hala morfologian (*neuk* vs. *neronek*...), zein hiztegian (*izeko* vs. *izeba*...).

